



# GREVIO

Lehenengoa  
Ebaluazio-  
txostena

## Espainia

” Emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako borrokan adituen taldea (GREVIO)



### Convención de Estambul

COUNCIL OF EUROPE



CONSEIL DE L'EUROPE

**GREVIO**  
**Lehen ebaluazio txostena**  
**ESPAINIA**

Emakumearen aurkako Indarkeriaren eta Etxeko indarkeriaren aurkako Borrokaren Aritu Taldea (GREVIO)  
Istanbulgo hitzarmena  
Europako Kontseilua

**GREVIOren lehen ebaluazio Txostena**, xedapenak indarrean jartzen dituzten legegintza-neurriei eta bestelakoei buruzkoa  
Emakumearen aurkako Indarkeriaren eta Etxeko indarkeriaren aurkako Prebentzioari eta Borrokari buruzko Europako  
Kontseiluaren Hitzarmenaren xedapenei eragiten dien beste mota batzuei buruzkoa.  
ESPAINIA

F-67075 Estrasburgo Cedex Francia  
[www.coe.int/conventionviolence](http://www.coe.int/conventionviolence)



© Ministerio de Igualdad  
Centro de Publicaciones  
C/ Alcalá, 37 - 28071 Madrid

NIPO: 048-22-054-5

<http://www.publicacionesoficiales.boe.es>

## AURKIBIDEA

<b>HITZAURREA</b> .....	<b>4</b>
<b>EGIKARITZE-LABURPENA</b> .....	<b>5</b>
<b>SARRERA</b> .....	<b>8</b>
<b>1.HELBURUAK, DEFINIZIOAK, BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIO EZA, BETEBEHAR OROKORRAK</b> .....	<b>9</b>
<b>A. HITZARMENAREN PRINTZPIO OROKORRAK</b> .....	<b>9</b>
<b>B. HITZARMENAREN INPLEMENTAZIOAREN ALORRA (2. ARTIKULUA)</b> .....	<b>10</b>
<b>C. DEFINIZIOAK (3. ARTIKULUA)</b> .....	<b>12</b>
<b>D. OINARRIZKO ESKUBIDEAK, BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIO EZA (4. ARTIKULUA)</b> ..	<b>13</b>
Genero berdintasuna eta diskriminazio eza .....	13
Diskriminazio interseksionala .....	14
<b>E. ESTATUAREN BETEBEHARRAK ETA BIDEZKO EGINBIDEA (5. ARTIKULUA)</b> .....	<b>17</b>
<b>II. INTEGRATUTAKO POLITIKAK ETA DATUEN BILKETA</b> .....	<b>18</b>
<b>A. POLITIKA ZABAL ETA INTEGRATUAK (7. ARTIKULUA)</b> .....	<b>18</b>
<b>B. FINANTZA-BALIABIDEAK (8. ARTIKULUA)</b> .....	<b>20</b>
<b>C. GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK ETA GIZARTE ZIBILA (9. ARTIKULUA)</b> .....	<b>22</b>
<b>D. KOORDINAZIO ORGANOAK (10. ARTIKULUA)</b> .....	<b>23</b>
<b>E. DATUEN BILKETA ETA IKERKETA (11. ARTIKULUA)</b> .....	<b>24</b>
1. Datu administratiboen bilketa .....	25
2. Biztanleriaren inkestak.....	27
3. Ikerketa .....	28
<b>A. BETEBEHAR OROKORRAK (12. ARTIKULUA)</b> .....	<b>29</b>
<b>B. SENTSIBILIZAZIOA (13. ARTIKULUA)</b> .....	<b>30</b>
<b>C. HEZKUNTZA (14. ARTIKULUA)</b> .....	<b>32</b>
<b>D. PROFESIOALEN PRESTAKUNTZA (15. ARTIKULUA)</b> .....	<b>33</b>
<b>E. ESKU-HARTZE ETA TRATAMENDU PREBENTZIO-PROGRAMAK (16. ARTIKULUA)</b> .....	<b>36</b>
1. Erasotzaileentzako programak etxeko indarkeriaren alorrean.....	36
2. Sexu erasotzaileentzako programak .....	38
<b>F. SEKTORE PRIBATUAREN ETA KOMUNIKABIDEEN PARTE-HARTZEA (17. ARTIKULUA)</b> .....	<b>39</b>
<b>IV. BABESA ETA LAGUNTZA</b> .....	<b>42</b>
<b>A. BETEBEHAR OROKORRAK (18. ARTIKULUA)</b> .....	<b>42</b>
<b>B. INFORMAZIOA (19. ARTIKULUA)</b> .....	<b>43</b>
<b>C. BABESERAKO ZERBITZU OROKORRAK (20. ARTIKULUA)</b> .....	<b>44</b>
1. Gizarte zerbitzuak .....	44
2. Arreta medikuko zerbitzuak.....	45
<b>D. SOSTENGUA BAKARKAKO/TALDEKAKO SALAKETETAN (21. ARTIKULUA)</b> .....	<b>46</b>
<b>E. LAGUNTZA-ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK (22. ARTIKULUA)</b> .....	<b>47</b>
<b>F. BABESLEKUAK (23. ARTIKULUA)</b> .....	<b>48</b>
<b>G. ZAINZA TELEFONIKOAK (24. ARTIKULUA)</b> .....	<b>49</b>
<b>H. SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMEN SOSTENGUA (25. ARTIKULUA)</b> .....	<b>50</b>
<b>I. ARRISKUAN DAUDEN ADINGABEEN BABESA ETA LAGUNTZA (26. ARTIKULUA)</b> .....	<b>51</b>
<b>J. PROFESIOALEN SALAKETA (28. ARTIKULUA)</b> .....	<b>52</b>
<b>V. ZUZENBIDE SUBSTANTIBOA</b> .....	<b>53</b>
<b>A. ZUZENBIDE ZIBILA</b> .....	<b>54</b>
1. Estatuko agintarien aurkako errekurtsio zibilak: bidezko eginbidea (29. artikulua) .....	54
2. Kalte-ordaina (30. artikulua) .....	55
3. Zainketa, bisita-eskubidea eta segurtasuna (31. artikulua) .....	56
<b>B. ZIGOR-ZUZENBIDEA</b> .....	<b>59</b>
<b>VIII. AZKEN BEHAKETAK</b> .....	<b>82</b>
<b>I. ERANSKINA: GREVIOREN PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUNEN ZERRENDA</b> .....	<b>83</b>

**HELBURUAK, DEFINIZIOAK, BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIO EZA, BETEBEHAR**

<b>OROKORRAK.....</b>	<b>83</b>
Emakumeen genitalen mutilazioa (38. artikulua).....	92
Behartutako abortu eta antzutea (39. artikulua).....	92
Sexu-jazarpena (40. artikulua).....	92
Segurtasun indar eta Kidegoen txosten eta ikerketak.....	92
Zigor-tasak .....	93
Ostatua .....	94

**II. ERANSKINA: GREVIOK KONTSULTATUTAKO AGINTARI NAZIONALEN, ERAKUNDE PUBLIKOEN, GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEEN ETA GIZARTE ZIBILEKO ERAKUNDEEN ZERRENDA.....95**

## HITZAURREA

Emakumearen aurkako Indarkeriaren eta Etxeko indarkeriaren aurkako Borrokaren Aditu Taldea (GREVIO) giza eskubideen jarraipena egiten duen organismo independentea da Alderdiak inplementatutako Emakumearen aurkako Indarkeriaren eta Etxeko indarkeriaren aurkako Prebentzioari eta Borrokari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenaren (CETS 210, «Istanbulgo Hitzarmena») gainbegiratzeaz arduratzen dena. Giza eskubideen, genero berdintasunaren, emakumearen aurkako indarkeriaren eta/edo biktimen laguntza-neurrien eta babesaren alorrean duten esperientziaren harira aintzatetsitako 15 aditu independentek eta inpartzialek osatzen dute.

Istanbulgo hitzarmenaren (ebaluazio prozedura), Hitzarmeneko Alderdien egoerei buruzko ikerketen hastapenen (ikerketa prozedura) eta Hitzarmenaren gai eta kontzeptuen inguruan hartutako gomendio orokorren ikuskapena barne hartzen dute GREVIOren jarduera arautuek, herrialdez herrialde.

Txosten hau Espainian egindako ebaluazioaren (oinarrizko lerroarena) lehen prozeduraren emaitza da. Txosten honek Istanbulgo hitzarmenaren osotasuna hartzen du barne<sup>1</sup> eta, beraz, espainiar legediaren betetzearen maila eta gai honetan haren jardunbideak ebaluatzen ditu Hitzarmenak estaltzen dituen alor guztietan. Hitzarmenaren irismenaren argitan, 2.1 artikuluan ezartzen den bezala, oinarrizko lerroaren ebaluazioa «emakumeen aurkako indarkeria forma guztiei, etxeko indarkeria barne, emakumeei neurritz kanpo eragiten dizkienei» dagokionez hartu diren neurrietan oinarritzen da. Hortaz, txosten honetan erabiltzen den «biktima» terminoak emakume edo neska biktima bati egiten dio erreferentzia.

Ebaluazio honetan oinarrituz, txosten honek Hitzarmenaren inplementazioa indartzeko neurriak proposatzen ditu. Neurri hauek proposatzean, GREVIOk larrialdi maila ezberdinei dagozkien hitzezko esamoldeen erabilera gain hartu du, guzti horiek garrantzitsuak direla azpimarratuz. Hauek dira, lehentasun mailaren ordenaren arabera, «premiatu», «arren eskatu», «eskatu» eta «animatu». GREVIOk «premiatu» aditza erabiltzen du Alderdiaren lege edo politika batek Istanbulgo Hitzarmena betetzeko berehalako egintza bat behar duela kontsideratzen duenean, edo haren inplementazioa ziurtatzeko. «Arren eskatu» erabiltzen da GREVIOk etorkizun hurbilean zuzendu beharreko urritasunak igarri dituenean Hitzarmenaren inplementazio osoa bermatzeko.

Hirugarren larrialdi maila «eskatu» aditzaren bitartez iradokitzen da, arreta eskatzen duten urritasunak bereizteko, nahiz eta litekeena den ondorengo etapa batean. Azkenik, «animatu» aditzaren erabilera dagokion Alderdiari Hitzarmenaren inplementazioan edo inplementazio prozesua bideratzeko egindako proposamenetan arrakala txikiak ixteko eskatzen zaizkion egoerei dagokie.

Lehen ebaluazio prozedura (oinarrizko lerroarena) hainbat pausok osatzen dute, eta hauetariko bakoitzak GREVIOri informazio kritikoa eskuratzea ahalbideratzen dio, txostenaren oinarria osatzen dutelarik. Prozesu honek elkarrizketa bat egitean datza, modu konfidentzialean, herrialde bakoitzari proposamen zehatzak eta ebaluatutako Alderdiaren testuinguru nazionalean garatutako hobetzeko iradokizunak eskaintzeko. Hauexek hurrengoak barne hartzen dituzte:

- GREVIOren (estatuaren txostena) oinarrizko lerroaren galdetegiaren oinarriaren arabera egindako txostenaren Alderdiak egindako aurkezpena;
- Ebaluatutako Alderdiari ebaluazio-bisita, alor honetan lan egiten duten gobernu eta gobernuz kanpoko ordezkariekin biltzeko;
- GREVIOren txostenaren zirriborroaren Alderdien iruzkinak;
- GREVIOren txostenaren argitalpena, onartu ondoren, Alderdietatik jasotako iruzkinekin

---

<sup>1</sup> Hitzarmenaren VIII Kapituluak salbu, GREVIOk garrantzi gutxiago zuela kontsideratu zuela egoera nazionala ebaluatzeko Alderdi kontratatzaile bakoitzean

batera.

Halaber, GREVIOk beste iturri batzuetatik informazio gehigarria biltzen du, hala nola, gobernuz kanpoko erakundeetatik (GKE), gizarte zibileko beste kide batzuetatik, giza eskubideen instituzio nazionaletatik eta Europako Kontseiluko organoetatik (Parlamentu Biltzarra, Giza Eskubideen Komisarioa eta eskumena duten beste organo batzuk), baita nazioarteko tratatuen organo batzuetatik ere.

Espainiaren ebaluazio markoan, GREVIOk Espainiako Estambul Sombra plataformaren idatzizko ekarpenak jaso zituen, gizarte zibileko 252 erakundek sinatu zutena baita hurrengo erakundeek ere, Red End FGM-ren *Joint Shadow Report on FGM* (EGM-ari buruzko Taldeko Sombra Txostena), Munduko Medikua, *Save a girl - Save a generation* eta UNAF (Union of Family Associations [Familia Elkarleen Batasuna]).

Estatuaren txostena eta gizarte zibilak aurkeztutako idatzizko ekarpena plazaratu dira eta Istanbulgo Hitzarmenaren webgune ofizialean daude eskuragarri.

Oinarrizko lerroaren ebaluazioaren lehen txosten honetan dauden analisi, iradokizun eta proposamenak GREVIOren erantzukizun eskusiboaren pean egin ziren. 2020ko martxora arteko egoera barne hartzen dute. Data horretatik aurrera egindako edozein aurrerapen ez da barne hartu analisisian ezta ondorio eta proposamenetan kontuan hartu ere.

Hitzarmenaren arabera, parlamentu nazionalak agintari nazionalen txosten hau jasoko dute (70.2 artikulua). GREVIOk agintari nazionalen txosten hau haien hizkuntza ofizial nazionaletara itzultzeko eskatu die eta hura hedatzeaz arduratu daitezke, ez bakarrik maila guztietako (nazionala, eskualdekoa eta tokikoa) estatuko erakundeekin eta bereziki gobernu, ministerio eta botere judizialen artean, baizik eta emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean lan egiten duten GKE eta gizarte zibileko beste erakunde batzuen artean ere.

## **EGIKARITZE-LABURPENA**

Txosten honek Espainiako agintariak Emakumearen aurkako Indarkeriaren eta Etxeko indarkeriaren aurkako Prebentzioari eta Borrokari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenaren (hemendik aurrera «Hitzarmena») alderdi guztiekiko hartutako inplementazio-neurrien ebaluazioa eskaintzen du.

Ebaluazio hau Emakumearen aurkako Indarkeriaren eta Etxeko indarkeriaren aurkako Borrokaren Aditu Taldeak (GREVIO) egin du, Hitzarmena aplikatzen dela zaintzeaz arduratzen den giza eskubideen jarraipena egiten duen organismo independentea. GREVIOren aurkikuntzak Hitzarmenaren 68. artikuluan ezartzen diren ebaluazioaren (oinarrizko lerroarena) lehen prozeduraren etapa ezberdinetan zehar eskuratutako informazioan oinarritzen dira. Hauek idatzizko txostenak barne hartzen dituzte (Espainiako agintariak aurkeztutako estatuaren txostena eta GKEk aurkeztutako informazio gehigarria), baita sei eguneko Espainiarako ebaluazio-bisita ere. II Eranskinean GREVIOk harremana izandako organismo eta erakundeekin zerrenda aurki daiteke.

Txostenak nabarmentzen du Espainiako agintariak irmoki erabaki dutela emakumearen aurkako indarkeriaren prebentzio eta borrokaren arloan politikak ezartzea, baita bikotearen edo bikote ohiaren alorreko indarkeriari dagokionez marko legal aurrerakoiaren garapenean aitzindari izan direla ere. Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Lege Organikoaren onarpenarekin, Espainiak bikote barruan gauzatutako indarkeria-zerbitzuen kontzeptualizazioan ikuspegi eredarria hartu zuen. Legeak bikote barruan gauzatutako indarkeriaren biktimak diren emakumeen erantzunean aldaketa esanguratsua ekarri zuen Espainian, biktiman guztiz zentratzen den ikuspegia txertatuz eta bikote barruan gauzatutako indarkeriaren alorrean dagoen genero isuriaz kontziente izanez.

Bertan, modu integralean eta erakundeekin arteko kooperazioan oinarritzen diren sostengu eta babes-neurriak eskainiko direla aurreikusten dira, hots, segurtasun kidegoen, emakumeen aurkako

indarkerian espezializatutako epaitegien, osasun-zerbitzuen eta emakumeei aholkularitza juridikoa eskaintzen dien edozein erakunderen artean.

Horrez gain, berriki eskala handian eman den indarkeriaren biktimenzako zerbitzuen finantzazioaren gorakadak erakutsi du agendan emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioak eta borroka lehentasuna izaten jarraitzen duela.

Era berean, gehieneko gardentasuna lortzeko informazio estatistiko esanguratsua jasotzeko eta haren hedapen azkarra bermatzeko ahaleginak nabarmendu behar dira, biztanlerian oinarritutako inkestak erreferentzia gisa hartuz. Lau urtero egiten den eta Hitzarmenak estaltzen dituen indarkeria forma gehienak barne hartzeko berriki garatutako Emakumearen aurkako Indarkeriaren Makroinkestak eta diskriminazio interseksionala jasaten duten emakumeei buruzko datuek informazio guztiz erabilgarria ematen dute.

Espainiako agintariek sektore pribatuaren eta komunikabideen zeregina nabarmentzen dute emakumearen aurkako indarkeria forma guztiak prebenitu eta aurre egiteko. Lan arloan neurri espezifikoak hartu dira bikotearengandik edo bikote ohiarengandik pairatutako indarkeriaren biktimenzako, betebeharrak profesionalak haien egoera pertsonalera egokitzea ahalbideratzen dielarik, horrela lan-hitzarmen malgukuek abusu-harremanetatik libratu nahi duten emakume langileentzat duten garrantzia erakutsiz

Gainera, lege eta politika ugari daude eta baita sentsibilizazio-kanpaina asko ere indarkeriaren biktima diren emakumeen ahalduz ekonomikoan enpresen parte-hartzea eskatu eta sustatzen dutenak. Komunikabideei dagokienez, hainbat legek genero-indarkeriaren berri emateko arau zehatzak ezartzen dituzte, eta erakundeek zeregin garrantzitsua izan dute emakumeak irudikatze moduaren eta emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako edukien jarraipenean.

Espainia eskualde- eta toki-autonomia maila altuengatik bereizten den herrialdea da, hala eta guztiz ere, eskualdeen artean ezberdintasun handiak daude Hitzarmenaren inplementazioari dagokionez. Espainiako agintariek koordinazio-neurri ezberdinak hartu arren, ez dira bermatzen emakumeek jasan ditzaketen genero-indarkeria forma ezberdinak modu orokorrean babesteko eta sostengatzeko maila konparagarriak.

Hau bikote ohi eta bikotetik kanpo gertatzen diren indarkerien kasuan da bereziki esanguratsua. Oso autonomia-erkidego gutxi eskaintzen dituzte sexu-erasoen eta bortxaketen biktimenzako zerbitzu espezializatuak, eta behartutako ezkontzak, emakumeen genitalen mutilazioa, erasoak eta behartutako antzute/abortuak jasateko arriskuan dauden emakumeentzako sostengurako are zerbitzu espezializatu gutxiago daude.

Izan ere, Espainian emakumeen aurkako indarkeriaren gaiari heltzeko ahalegin gehienak bikote barruko indarkerian zentratu dira, Hitzarmenean, Espainiako legedian eta politika publikoetan barne hartutako emakumeen aurkako beste indarkeria forma batzuei garrantzi gutxiago emanez.

Indarkeria forma hauei aurre egiteko politika integral eta holistiko faltagatik, erantzun autonomiko desberdinek hainbat praktika instituzionalak eman die bidea eta hauek ez dute modu koherentean biktimengan eta erakundeen arteko lankidetzan oinarritutako ikuspegia eskaini.

Egoera hau, bereziki, profesional guztien elkarrengana erraztu nahi denetan salatzen da, baita sexu-indarkeriaren biktimei zuzendutako mediku- eta auzitegi-zerbitzuetan ere. Datuen bilketa, sentsibilizazioa eta bikotetik edo bikote ohitik kanpo geratzen diren indarkeria formei buruzko profesionalen prestakuntza ere mugatzen direla dirudi. Zigor Kodea aztertuta izan da Istanbulko Hitzarmenaren baldintzekin bat etortzeko.

Hala ere, sexu-eraso eta bortxaketagatik prozedura judizialei dagokienez, emakume biktimek sektore judizialarekin lotuta bizi izandako esperientzietan inpaktu negatiboa duten hainbat faktore identifikatu dira. Prozedura penalen epea, epailearen agindurik gabe bildutako auzitegi-froge erabilpena

baztertzea eta bortxaketa fenomenoengatik inguruko epaiketetan nahikotasun-frogagarri estandar sobera altuak egotea, birbiktimizazioa eta zigor-tasa baxuak erraz sor ditzaketenak.

Etxeko indarkeriaren biktimak diren emakume eta haurren segurtasuna bermatzeko lege-neurriak egon arren, inplementazioko gabezien emaitza zaintza partekatua eta zigortutako erasotzaileei bisita eskubidea haren osotasunean ematea izan dira, baita bortxaketa eta abusuen ebidentzia argiak dituzten haur zein profesionalen kasuetan ere.

Familia elkarguneetan lan egiten duten langile eta epaileek sarri abusu egoerak modu desegokian epaitzen dituzte. Bikote ohi edo bikote barruan gauzatzen den indarkeriatik eratorritako genero dinamiken, amen abusu gertaerak bizi dituzten haurrek jasaten duten inpaktuaren eta abusua gauzatzen jarraitzeko bidea diren kustodia-erregimen eta guraso biolentoen bisitek dakartzaten arriskuaren ezezagutzaren ondorio dena.

Beste arrazoi kezagarri bat Espainiako legediak epaileei legalki pertsona ezgaituen antzutea baimentzeko ematen dien agintea da. Prozedura honen oraingo erabilera bereziki arazotsua dela dirudi, ezgaituak diren eta gerora epailearen aginduz antzutu egiten dituzten ezgaitasuna duten emakumeei dagokionez. Antzutearen inguruko espektro zabalaren inplikazioen aurrean, ezgaitasuna duten emakumeen ugaltze-eskubideak errespetatzea bermatu beharra dago, horretarako metodo antikontzeptibo ezberdinak eskainiz eta ez inbaditzaileak eta betirako diren antzutea bezalako neurriak. Gauzak horrela, adostutako antzutea aurrera eramaten duten emakumeek haien erabakia behar beste eta eskuragarria den informazioaren baitan hartzea bermatzea beharrezkoa da.

Asiloa eskatzen duten emakumeek oztopo ugari aurre egin behar diete generoarekiko sentikorra den asilo prozedurari ekiteko. Prozedura azkarrek zein harrera eta elkarrizketa baldintza desegokiak ez dute behar den konfiantza eta sostengu giroa sortzen sentikorra den informazioa partekatzeko eta indarkeria esperientziak kontatzeko. Hori dela eta, emakume eta nesken indarkeria esperientziak, haien zaugarritasun egoerak eta esperientzia traumatikoen ondoriozko behar espezifikoek, hein handi batean landu gabe jarraitzen dute.

Gainera, bai sexu-indarkeria eta etxeko indarkeria kasuetako nahikotasun-frogagarri estandar altuek bai asilo eskatzaileek agintari nazionalari indarkeria aurreko salaketa frogak eskatzeak, sentsibilitate falta agerian jartzen dute eskatzailearen herrialdeko arrazoi jakinekin batera, indarkeriaren biktimak salaketa jartzea galarazteraino.

Nahiz eta GREVIOk Espainiak Istanbulgo Hitzarmena berrestea eta haren inplementaziorako egindako ahaleginak gogobetetzez hartzen dituen, lehentasuna duten puntu batzuk identifikatu ditu Espainiako agintarien partetik erantzun azkarragoa behar dutenak Hitzarmenaren xedapenak guztiz bete daitezzen. Xedapen hauek hurrengo beharrek lotzen dira:

- Diskriminazio interseksionala pairatzen duten emakumeei eragiten dizkien prebentzio-neurriak eta indarkeriaren aurkako borroka sustatzea, haien ikuspegia politika publikoetan txertatuz eta haien eskubideei buruzko kontzientziak areagotuz, baita sostengu-zerbitzuak eta hauetarako sarbidea ere.
- Eskualdeko agintarien partetik baliabideen esleipen eta erabilera egokia ziurtatzea bai eta finantziario-sistemak garatzea emakumeen aholkularitzan eta laguntzan espezializatutako GKE sostengu-zerbitzuen eskaintzan jardun aktiboa izan ahal izateko.
- Segurtasun kidegoen, osasun-langileen eta irakasleen lanbide-heziketen ahaleginak areagotzea eta botere judizialeko kideentzako eskuragarri dauden trebakuntzak ebaluatzea inpaktua hobetzeko.
- Laguntza-zerbitzuen eskaintza hobetzea, autonomia-erkidego guztietan nahikoa ostatu bermatuz, baita indarkeriaren biktimak diren emakume guztientzako hauetarako sarbidea ere, Hitzarmenean barne hartutako indarkeria forma guztiei telefono-laguntza linea nazionalaren irismena handituz eta lekuko diren adingabeei aholkularitza psikologiko eskaintza egokia



bermatuz, adinaren arabera.

- Indarkeria psikologikoari, zelatari, sexu-indarkeriari eta emakumeen genitalen mutilazioari buruzko marko legala indartzea Hitzarmenaren baldintzekin bat etortzeko, haren inplementazio egokia eta delitu hauen zigorra bermatuz, eta segurtasun kideen arduradun diren aginteen trebakuntza hobetzea azkar eta egoki erantzuteko.
- Biktimen segurtasunaz arduratzea, botere judizialak babes ordenak behar bezala ematea bermatuz eta delituaren egileek errespetatuz.

Bestalde, GREVIOk Hitzarmeneko betebeharrak guztiz betetzeko hobekuntzak behar dituzten arlo gehigarri batzuk identifikatu ditu. Hala nola, genero-indarkeriagatik zigortutakoei zuzendutako programa guztien inplementazio eta ebaluazio zabalagoa bermatzea, emakumeentzako sostengu-zerbitzuen lankidetzarekin.

Era berean, bidezko eginbidearen betebeharrerako eta neurri zibil eta diziplinazkoen betetze eraginkorrerako ahaleginak areagotu beharko lirateke Estatuko funtzionarioak erantzule egiteko betebeharrak ez betetzeagatik eta halaber, biktimek zor zaien kalte-ordaina jasotzea bermatzea indarkeriaren ondorioz jasandako kalteengatik.

Hitzarmenak begiztatutako indarkeria forma guztien biktimentzako laguntza juridikorako sarbiderako neurriak hartu beharko lirateke. Azkenik, beharrezkoa da nahikotasun-frogagarri estandarraren berrikuspena egitea indarkeriaren biktima diren emakume migratzaileei aldi baterako egoitza baimena emateko.

## **SARRERA**

Espainiak 2011ko maiatzaren 11an sinatu zuen Istanbuleko Hitzarmena, eta 2014ko apirilaren 10ean berretsi zuen, parte den lehen Estatuetakoa bat izanik Hitzarmena 2014ko abuztuaren 1ean indarrean jarri zelarik.

Istanbuleko Hitzarmena irismen handieneko nazioarteko ituna da emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeriari dagokionez. Hitzarmen honek irismen handiko prebentzio- eta babes-neurriekin lotutako xedapen multzo zabala eta justizia penalak giza eskubideen urratzei erantzun egokia ematea bermatzeko betebeharrak definitzen ditu.

Horrez gain, emakumeen aurkako indarkeriaren oinarrizko zergatietan bide berriak zabaltzen ditu (besteak beste, genero estereotipoak, emakumeentzako kaltegarriak diren tradizioak eta genero ezberdintasunarekin lotutako edozein adierazpen).

Hitzarmenak jarraipen mekanismo bat ezartzen du parte diren Estatuaren inplementazio maila ebaluatzeko. Jarraipen mekanismoak bi euskarri ditu oinarritzat: Emakumearen aurkako Indarkeriaren eta Etxeko indarkeriaren aurkako Borrokaren Aditu Taldea (GREVIO), aditu independenteen organismoa, eta Alderdien Batzordea, Hitzarmenaren Alderdien ordezkari ofizialek osatutako organismo politikoa.

Hitzarmeneko 68. artikularekin bat etorritik, GREVIOk Espainiarekin oinarrizko lerroaren ebaluazioa 2018ko irailaren 18an hasi zuen galdetegia gutun bidez bidaliz. GREVIOri aurkeztutako txostenen ordena eskualdeak taldekatzean eta berrespen ordena konbinatzean oinarritzen da.

Ondoren, 2019ko otsailaren 18an Espainiako agintariak estatuaren txostena aurkeztu zuten, GREVIOk ezarritako epemugan. Espainiako estatuaren txostenaren aurretiko azterketa egin ostean, GREVIOk ebaluazio-bisita egin zion Espainiari 2019ko irailaren 25etik urriaren 2ra. Ordezkaritza hauexek osatzen zuten:

- Biljana Branković, GREVIOko kidea
- Rachel Eapen Paul, GREVIOko kidea
- Liz Kelly, unibertsitateko irakaslea, Erresuma Batua
- Javier Truchero, Aditua, Espainia
- Johanna Nelles, Istanbulleko Hitzarmenaren jarraipen mekanismoko Idazkaritzaren Administrazioa
- Carmela Apostol, Istanbulleko Hitzarmenaren jarraipen mekanismoko Idazkaritzaren Administrazioa

Ebaluazio-bisita zehar, ordezkari emakumearen indarkeriaren aurkako prebentzio eta borroka arloetan lan egiten duten gobernu eta gobernu kanpoko ordezkarien bildu zen.

Txosten honen III. Eranskinak agintari nazionalen, gobernu kanpoko erakunde eta bertan bildutako beste pertsona batzuen zerrenda dakar. GREVIOk haiek emandako informazio baliotsua eskertzen du.

Ebaluazio-bisita Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren Genero-indarkeriaren Gobernuaren Ordezkariak Pilar Vilaplana Garcíarekin lankidetzan prestatu zen, GREVIOk egindako ebaluazioan harremanetarako aukeratu zen pertsona da hain zuzen ere. GREVIOk bere eskertza adierazi nahi dio ebaluazio prozesu guztian zehar emandako lankidetzaren eta sostenguegatik, baita Espainiako agintariek hartutako ikuspegi konstruktiboagatik ere.

Oinarriko lehen ebaluazio gisa, GREVIOk Espainiako agintariek ekindako Hitzarmenaren alderdi guztiekin lotutako inplementazio-neurriak aztertu ditu. Laburtzeko, txosten honek xedapen batzuk besteekiko lehenesten ditu. Hitzarmenaren kapitulu guztiak (VIII Kapituluaren izan ezik) hartzen dituen arren, ez ditu aurkezten bakoitzak dituen xedapenei buruzko xehatutako ebaluazioa ezta ondorioak.

## **1. HELBURUAK, DEFINIZIOAK, BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIO EZA, BETEBEHAR OROKORRAK**

### **A. HITZARMENAREN PRINTZIBIO OROKORRAK**

Istanbulleko Hitzarmenaren I Kapituluak printzipio orokorrak xedatzen ditu II eta VII Kapituluaren artean dauden atal guztiei aplikatzen zaizkien printzipio orokorrak. Hauek barne hartzen dituzte, besteak beste, pertsonen oinarriko giza eskubideen aintzatespena, alor publiko nahiz pribatuen indarkeriarik gabeko bizitzaz gozatea, eta Hitzarmenaren aplikazioan diskriminaziorik ez izatea, askotariko diskriminazio formak hartzen dituzten ondorio eta potentziala kontuan hartuta.

Orobat Hitzarmenaren inplementazioan eta ebaluazioan genero ikuspuntua txeratzaren beharra dute.

Espainiako agintariek aspalditik dute emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzio eta borrokarekin lotutako politika publikoen inplementaziorako agenda propioa. Bikote eta bikote ohiaren alorreko indarkeriarekin lotutako marko legal aurrerakoien garapenean izan duten paper aitzindaria goraiatzeko GREVIOk, 2004an jada ezarrita zegoena.

Lege-marko hau, oro har, aldaketa eredu gisa hartzen da bikotearen eta bikote ohiaren alorrean pairatutako indarkeriaren hautematean, aboratzeko eta prebentzioan, eta Europako beste herrialde batzuentzako erreferentzia izateko balio izan du.

Hori horrela, GREVIOk Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Lege Organikoa hartzeagatik gogobetetzea adierazten du, bikotearen alorrean jasandako indarkerian dagoen genero isuria aintzat hartu duelako, indarkeria horren aurrean emakumeak prebentzioan eta emantzipazioan ahalduzko beharra nabarmentzeaz gain, haren dimentsio ekonomikoan ere, bizi-autonomia ematen dien emakumeen independentzia ekonomikorako neurriak garatzen dituelako, Hitzarmenak ezinbestekotzat jotzen duen alderdia.

Europar zehazki gizonen haien emakumezko bikote edo bikote ohiekiko gauzatzen duten indarkeriari heltzen dion legediaren adibide bakanetako bat da, biktimei eskubide legal eta sozioekonomikoak eskainiz.

Berrikuntza eredu bat ere bada, lehen aldiz emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako epaitegiak sartzen dituelako. Zuzenbide zibil eta penal kontuetan bikotearen alorreko indarkeria egoeretan aplikatu daitezkeen eskumenak partekatzen dituzte, familia-zuzenbidearekin ere parekotasunak izanik. Helburua tribunal bakar batekin lotutako kontu legal guztiak ebaztea da bigarren mailako biktimizazioa eta biktimen traumak arintze aldera.

Nazio zein eskualdeko mailako zenbait lege, ekintza-plan eta estrategia osagarri Espainian laguntzakoak izan dira emakumearen aurkako indarkeriaren prebentzio eta borrokan marko legal, politiko eta instituzionalaren garapena lortzeko emandako aurrerapauso handietan, asko Istanbulgo Hitzarmena indarrean jarri baino lehenagokoak izanik.

GREVIO kontziente da Istanbulgo Hitzarmenaren garapenean Espainiako agintariak izan duten lidergoak eta era berean nazioarteko itun hau irmoki sostengatu dutela, nazio zein nazioarteko mailan.

Hori horrela izanik, GREVIOk Espainiako agintariak zorientzen ditu bost urtetarako bide-orriaren lanketan egindako ahaleginengatik Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren bitartez. Istanbulgo Hitzarmenaren inplementazio handiagoa lortzeko asmoz 481 neurri espezifiko identifikatu dira. Hala ere, erroka ezberdinek dokumentu garrantzitsu honen inplementazioa zaildu dute, zeintzuei arreta berezia jarriko zaien txosten honen beste atal batean.

Aurrekoak, argi eta garbi ez dio egiten erreferentzia Istanbulgo Hitzarmena bere osotasunean inplementatzeko borondate politikoari, txosten hau egiteko berrikusi den informazio gehigarriarekin berretsi den alderdia. Beraz, txosten honetan adierazitako iradokizun eta proposamenek Espainiako agintariak orientatzeko helburua dute Hitzarmeneko xedapen guztien inplementazioan ikuspegi integralagoa hartzeko, batez ere orain Espainiako legedian eta politika publikoan arreta gutxiago jasotzen duten emakumeen aurkako indarkeria formekin lotzen diren horiek.

## **B. HITZARMENAREN INPLEMENTAZIOAREN ALORRA (2. ARTIKULUA)**

Istanbulgo Hitzarmenaren irismenaren argitan, 2.1 artikuluan ezartzen den bezala, oinarritzko lerroaren lehen ebaluazioa emakumeen aurkako indarkeria forma guztiei, etxeko indarkeria barne, emakumeei neurritz kanpo eragiten dizkienei dagokionez hartu diren neurrietan oinarritzen da.

3.a artikuluan ezarritako definizioaren arabera, galdetegi guztian eta txosten honetan erabilitako «emakumearen aurkako indarkeria» terminoak generoan oinarritutako indarkeria ekintza guztiei egiten die erreferentzia, emakumeei kalte edo sufrimendu fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoak eragiten dizkienak, ekintza horiek egiteko mehatxuak eta hertsapena edo hautatu gabe askatasuna kentzea barne, bizitza publiko nahiz pribatuan.

Kontrara, 3.b artikuluan emandako definizioaren arabera, «etxeko indarkeria» kontzeptua familian edo etxean, edo ezkontide, edo lehengo edo oraingo bikoteen artean jazo diren indarkeria fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomiko ekintza guztiei dagokie, delituaren egileak biktimarekin etxea partekatzen duen edo partekatu zuen alde batera utzita.

Hitzarmenaren V. kapituluak xehetasunez zehazten ditu zigortu behar diren emakumearen aurkako indarkeria formak (eta hala badagokio, beste modu batera berretsi). Hauek indarkeria psikologiko, eraso, indarkeria fisiko, sexu-indarkeria, bortxaketa barne, behartutako ezkontza, emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako abortua, behartutako antzutzeta eta sexu-jazarpena dira.

Espainian emakumearen aurkako indarkeria lantzeko ahalegin gehienak bikote barruan gauzatutako indarkerian oinarritu dira. Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Lege Organikoak alor honetako agenda markatu du, bikote barruko indarkeriaren prebentzioan lanketa

integrala eta diziplina anitzekoa eta horri erantzun instituzional koordinatu baten ezarpena eskaintzen duena.

Legedi honek hartutako eta erabilitako «genero-indarkeria» terminoak gizon batek harreman estua duen edo izan duen emakumearen aurkako indarkeria gauzatzeari egiten dio erreferentzia. Txosten honen arabera, «genero-indarkeria» terminoa Espainiako politika publikoen dokumentuetan agertzen den bezalaxe, «bikote barruko indarkeria» edo «etxeko indarkeria» izendatu da.

GREVIOk Espainiako agintariak goستن ditu lege honetan genero-ikuspegia irmoki eskaintzearen eta urte askotako sentsibilizazioak kontzientzia soziala areagotu duelako bikote edo bikote ohiak gauzatatuko emakumearen aurkako indarkeriaren inguruan, genero-fenomenoa den aldetik.

Emakumearen aurkako indarkeria errotik kentzeko Estrategia Nazionalak (2013 -2016) eta Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itun berrienak ere erantzun instituzionala hobetzera bideratutako neurriak eta bikote edo bikote ohiaren biktimen sostengua barne hartzen dituzte, 1/2004 Lege Organikoaren inplementazioarekin zuzenean lotuta daudenak.

Estatu Itunak etxeko indarkeriaz gain emakumearen aurkako forma ezberdinak barne hartzearen inguruko adostasun politikoa islatzen badu ere, GREVIOri kezkarria zaio politika publikoen dokumentu hauek Istanbulgo Hitzarmenean dauden emakumeen aurkako beste indarkeria forma batzuetara mugatutako neurriak bakarrik eskaintzen dituela.

Bi dokumentuak, bikote barruko indarkeriaz «ezberdinak» diren emakumearen aurkako indarkeria formak lantzen dituzten helburu bereziren parte dira<sup>2</sup>. GREVIOri kezkatzen dio honek sexu-indarkeriaren aurkako prebentzio eta borrokaren, sexu-jazarpenaren, behartutako ezkontzen, emakumeen genitalen mutilazioaren eta abortu/antzutze behartuaren garrantzia gutxitzea.

Garrantzitsua da indarkeriaren etengabeko kontzeptua ezagutzea, besteak beste, indarkeria-esperientzien arteko lotura islatzen duena, eta horien oinarri komunak ulertzea. Ezagumen honetatik, indarkeria forma ezberdinak pairatzen dituzten biktimen behar espezifikoetara egokitzen diren politika integral eta espezifikoak garatzeko beharra sortzen da ekintza-plan nazionalen markoan.

Ebaluazio-bisitan zehar, alderdi ezberdinek GREVIOri Estatu Itunaren inplementazioan egondako arazoak adierazi zizkieten, alde batetik konplexuak diren neurri asko (481) dituelako eta bestetik, organismo ezberdinetan banatuta dagoelako, gobernu zentral, eskualdekoak eta lokalak barne.

GREVIOk jasotako informazioaren arabera, erronkak neurriak inplementatzeko moduaren planifikazio eskasari, lehentasun faltari eta gobernu zentralak emandako funtsekin lotutako kontu emate mugatuari dagozkie. Hortaz, oraingo inplementazio maila berrikustea gomendagarria da, orain arte lortutako inpaktua baloratzea eta hau kontuan hartuta etorkizuneko inplementazioa egokitzea.

Espainiako agintariak adierazi dute Istanbulgo Hitzarmenean barne hartutako indarkeria forma *guztiak* modu berean lantzeko gehiago egin beharko litzatekeela. GREVIOk begi onez ikusten du Hitzarmenaren xedapenek (ikus V. Kapituluak) indarkeria mota guztiak delitutzat tipifikatzen dituztela, baina edozein erantzun judizial/penal arretaz planifikatutako politika publikoekin osatu beharko litzatekeela azpimarratzen du, esaterako indarkeria forma anitzen biktimak babestu eta sostengatzera bideratutako neurriak txertatuz.

Beraz, emakumeen aurkako indarkeria forma guztiak emakume eta gizonen arteko ezberdintasunaren kausa eta ondorio diren nozioaren arabera, berebiziko garrantzia du Istanbulgo Hitzarmena sostengatzen duten kontzeptu eta premisak barne hartzeko prozesuari ekitea, emakumeen aurkako indarkeria forma ezberdinak heltzen dituzten lege, politika eta neurri guztietan esplizitu egin behar direlarik.

---

<sup>2</sup> Ikus Estrategia Nazionalen «4. Helburua: Emakumeen aurkako beste indarkeria forma batzuekiko ikusgarritasuna eta arreta» eta Estatu-itunean «8. Ardatza: Emakumeen aurkako beste indarkeria forma batzuekiko ikusgarritasuna eta arreta».

Izan ere, honek Espainiako politikan agerikoa den Istanbulgo Hitzarmenak zehaztutako genero-ikuspegia holistikoki ezartzea eskatzen du, emakumeen aurkako indarkeria forma *guztiek*in lotutako politika integral eta koordinatuen bidez (ikus II. Kapituluak).

**GREVIOk gogorarazten du Istanbulgo hitzarmenaren 2.1 artikulua emakumeen aurkako indarkeria forma guztiek, eta ez bikote edo bikote ohiaren barruko indarkeriak bakarrik, emakumeei neurritz kanpo eragiten diela baieztatzen duela.**

**Hori dela eta, GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die Istanbulgo Hitzarmenaren implementazioa hobetzea espainiar lege, politika publiko eta programetan gaur egun arreta gutxiago jasotzen duten indarkeria formei dagokienez, indarkeria mota hauen prebentzioan, babesean eta jazarpenean ikuspegi holistikoa hartuz.**

Hau bereziki garrantzitsua da sexu-indarkeriari, sexu-jazarpeneri, behartutako ezkontzei, emakumeen genitalen mutilazioari eta behartutako abortu/antzutzei dagokienez. GREVIOk emakumeen GKE eta beste aditu independente batzuei eskatzeaz gain, Espainiako agintariei ere eskatzen die Estatu Itunaren implementazioa berrikusteko oraingo estatuko politiken jarraipen eta ebaluazio mekanismoak erabiltzea, ezarritako neurrien inpaktua aztertzea eta jarraitu beharreko hurrengo pausoak planifikatzea, emandako aurrerapausoak neurtzen dituzten aurrez zehatutako adierazleetan oinarrituz.

### **C. DEFINIZIOAK (3. ARTIKULUA)**

Istanbulgo Hitzarmenaren 3. artikulua haren implementaziorako funtsezkoak diren kontzeptu gakoak definitzeko ezartzen ditu. «Emakumearen aurkako indarkeriak» erreferentzia egiten dio «emakumeei kalte edo sufrimendu fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoak eragiten dizkien genero-indarkeria ekintza guztiei... bitzita publiko nahiz pribatuan».

3.d artikuluan ezarritako «generoan oinarritutako emakumearen aurkako genero-indarkeria» definizioak «emakume izateagatik emakume baten aurka zuzendutako indarkeria edo emakumeei neurritz kanpo eragiten diena».

Hortaz, Istanbulgo Hitzarmenak lantzen duen indarkeria beste indarkeria mota batzuetatik ezberdintzen da biktimaren generoa oinarri hartzen duelako. Emakumeen aurkako indarkeria, emakume eta gizonen artean hautemandako ezberdintasunetan oinarritutako botere harremanen kausa zein ondorio da, zeinak emakumearen menpekotasuna ekartzen duen alor publiko eta pribatuan.

Espanian Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Lege Organikoa etxeko indarkeriaren alorreko lege nagusia da. Emakumearen aurkako etxeko indarkeriaren definitzen du, oro har Hitzarmenaren 3.b artikulura egokitzen dena- indarkeria ekonomiko barne hartzen ez duenaren salbuespenarekin.

Estatu mailan ez da beste alderatu daitekeen beste legerik existitzen, etxeko indarkeria edo bikote barruko indarkeriatik ezberdintzen diren emakumeen aurkako indarkeria formak definitu eta barne hartzen dituen. Hala ere, GREVIOk aintzat hartzen du indarkeria forma hauek kriminalizatu, auzipetu eta lantzen direla (esaterako, osasun langileei zuzendutako emakumeen genitalen mutilazioarekin lotutako protokoloen bitartez).

Emakumearen aurkako indarkeriaren prebentzio eta borrokaren arloko legegintza-eskumenen trukearen ondorioz, esku alde mailan onetsitako legediak irismen handiagoko marko arautzaile gehigarriak ezartzen ditu. GREVIOk 17 autonomia-erkidegoetatik 14k emakumeen aurkako indarkeria forma askoren biktimak modu integralean sostengatu eta babesten dituen legedia hartu dutela laudatzen du eta ondorioz, Espainian Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Lege Organikoa eskaintzen duen kontzeptualizaziotik haratago joan izana ere. Kasu guztietan, emakumearen aurkako indarkeria forma ezberdinak lantzean, genero-ikuspegi oinarritzen direla

dirudi, GREVIOk gogobetetzez hartzen duena.

Estatuan bikotearen eremuan emakumearen aurkako indarkeriari buruzko definizio mugatu bat eta 17 definizio autonomiko desberdin batera egoteak (horietako askok nabarmen zabaltzen dute estatutu-organoen jardun-eremua) egoera bat sortu du, eta badirudi autonomia-erkidego batzuk beste batzuk baino errazago egokitzen direla Istanbulgo Hitzarmenaren 3.a artikuluan ezarritako emakumearen aurkako indarkeriaren definiziora.

Ez dago argi Espainian Istanbulgo Hitzarmena indarrean sartu eta gero, definizioen eta baita eskualde, autonomia eta maila zentralaren arteko ikuspegi baten bateratzea lortzeko ahaleginak zer neurritan egin diren, besteen artean, konferentzia sektorialen bitartez (ikus III. Kapituluak). Hori dela eta, GREVIO arduratuta dago hainbeste definizioen ondorioz Istanbulgo Hitzarmenaren inplementazioarekin ikuspegi zatitua sortzen ari delako.

Modu berean, GREVIO kezkatuta dago Espainian bikote barruko indarkeriaren inguruko genero-ikuspegi ugariak zalantzan jartzen dituzten saiakera berriengatik eta baita praktikan haren inplementazioa murrizteko saiakerengatik ere<sup>3</sup>. Istanbulgo Hitzarmenaren berrespenarekin, Espainiako agintariak gobernuko maila guztietan konprometitu dira haien xedapen indibidualaren inplementazioarekin eta haien funtsezko printzipio eta definizioekin.

Hauek «emakume izateagatik emakumearen aurkako indarkeria edo emakumei neurritik kanpo eragiten diela» (3.d artikulua) eta emakumeen aurkako indarkeria emakume eta gizonen arteko ezberdintasunen kausa eta ondorio dela aintzat hartzen dituzte, bikote barruko indarkeria honetan forma bereziki deigarria izanik. Kontuan hartuz, 15 urte baino gehiagoz, Espainiak bikote barruko indarkerian egon den genero-isuria aintzat hartu duela eta biktimetan izan duen inpaktu kaltegarriari eutsi diola, hau transmititzen jarraitzea garrantzitsua da. Hori horrela izanik, berebizikoa da kontzientzia sozialari eta indarkeriaren biktima diren emakumeek gizonengatik jasotako babesari dagokionez lortu diren aurrerapausoak zapuzteko edozein ahaleginen aurka babestea.

**GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die legedia eta araudi administratiboak, protokoloak barne, maila nazional eta autonomikoan, Istanbulgo Hitzarmeneko 3. artikuluko definizioetara guztiz egokitzea bermatzea inplementazioa bateratzeko.**

#### **D. OINARRIZKO ESKUBIDEAK, BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIO EZA (4. ARTIKULUA)**

##### **Genero berdintasuna eta diskriminazio eza**

Guztizko genero berdintasuna legean eta praktikan lortzea Espainiako agintariak determinazioz onetsi duten helburu politiko bat da. Espainiako Konstituzioak sexuan oinarritutako diskriminazioa debekatu du (14. artikulua). Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoa emakume eta gizonen berdintasun nozioa garatzen du administrazio publikoari zuzendutako helburu eta neurri politikoak ezarri arlo ezberdinetan, esaterako, hezkuntza, kultura, osasunean, enpleguan eta komunikabideetan.

1/2004 Lege Organikoa legedi aitzindariak, bikote barruko emakumeen aurkako indarkeria gizonen dagokien berdintasun kontua dela adierazten du eta Espainia genero ezberdintasunaren adierazpen

---

<sup>3</sup> 1/2004 Lege Organikoa oinarritzen den bikote edo bikote ohi barruko indarkeriaren genero-ikuspegia zalantzan jartzen duten

tokiko eta autonomiako politikarien adierazpen eta jarduketak erakusten duten materiala dugu, publikoki eskuragarri dagoena. «Etxeko indarkeria» nozioaren aldeko erretorikari mesede egiten diotela dirudi, bikote barruko indarkerian gizon eta emakumeen arteko botere-dinamika estaltzen duena. Ikus, adibidez:

[www.elmundo.es/espana/2019/11/25/5ddc4dc621efa00e648b4621.html](http://www.elmundo.es/espana/2019/11/25/5ddc4dc621efa00e648b4621.html) ;

[https://elpais.com/sociedad/2019/11/22/actualidad/1574456273\\_625239.html](https://elpais.com/sociedad/2019/11/22/actualidad/1574456273_625239.html) ;

[www.rtve.es/noticias/20191125/protesta-mujeres-contravox-durante-acto-del-dia-contraviolencia-genero-ayuntamiento-madrid/1992516.shtml](http://www.rtve.es/noticias/20191125/protesta-mujeres-contravox-durante-acto-del-dia-contraviolencia-genero-ayuntamiento-madrid/1992516.shtml) ; [www.voxespana.es/noticias/comunicado-de-vox-sobre-la-mal-llamada-violencia-de-genero-20180717](http://www.voxespana.es/noticias/comunicado-de-vox-sobre-la-mal-llamada-violencia-de-genero-20180717).

garrantzitsu honen eta emakumeen giza eskubideak urratzearen aurkako borrokan buruzagitza hartzera bultzatu du.

### **Diskriminazio interseksionala**

Hitzarmenaren 4.3 artikulua eskatzen du Alderdiak Hitzarmenari jarraikiz konpromisoak betetzea bermatuko dutela inolako diskriminaziorik gabe. Xedapen honek diskriminazio arrazoien zerrenda ireki bat ematen du, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 14. artikuluan eta haren 12. Protokoloa zerrenda batean oinarritzen dena<sup>4</sup>, eta horrez gain genero, orientazio sexuala, genero identitatea, osasun egoera, desgaitasuna, egoera zibila eta migratzaile edo errefuxiatu baldintza edo besteren bat arrazoiak barne hartzen ditu.

Betebehar hau segurtasun kidego, botere judizial edo zerbitzuen hornitzaileek emakume talde jakin batzuekiko dituzten diskriminazio forma normalizatuetatik dator, guztiz bere egun dituztenak<sup>5</sup>.

GREVIOk Espainiako agintariek egoera arriskutsuan dauden edo diskriminazio interseksionala jasan dezaketen emakumeen egoera lantzeari ematen dioten garrantzia aitortzen du, Emakumearen aurkako Indarkeria Errotik Kentzeko Estrategia Nazionalaren (2013 -2016) lau helburuetatik batean zehazki lantzen den egoera.

Aldi berean, GREVIO gogobeteta dago Espainian babes integrala emakumearen migrazio egoera kontuan hartu gabe eskaintzen delako, laguntza juridikorako eskubidea eta 1/2004 Lege Organikoak eskaintzen dituen prestazio sozioekonomikoak barne, eta, printzipioz, Espainian egoera irregularrean dauden emakume atzerritarrak bikote barruko indarkeria dela eta salaketa egin dezaketelako eta baita babes ordena eskatu ere <sup>6</sup>.

Nolanahi ere, bikote barruko indarkeria jasan duten emakumeek agintarien laguntza bilatzean oztopo askorekin egiten dute topo, zehazki Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Lege Organikoan agertzen ez diren indarkeria formekin lotutako laguntzak jasotzeko.

Lehenik eta behin, 2003tik bikote edo bikote ohiak eraildako emakume guztien % 33a emakume migratzaileak direla kezkatzen du GREVIO, horiek biztanleriaren % 10a baino gutxiago izanda<sup>7</sup>. Hau are eta kezagarriagoa kontuan hartzen bada atzerriko emakumeak espainiarrak baino gehiago jotzen dutela polizia edo epaitegietara sostengu bila, datuek erakusten duten bezala<sup>8</sup>.

Honek biktima diren emakume migratzaileen aurka dagoen erakunde-isuri posible bateri buruzko galderak dakartza, bikoteak eraildako emakume batzuk erantzun instituzional azkarrago eta eraginkorrago bat izanez gero bizirik atera ahalko lirakeelako.

Berriki egin diren ikerketek erakusten dute bikote barruko indarkeriaren biktima diren emakume migratzaileek, erresilientzia gaitasun handia duten arren, espainiar emakumeek baino oztopo gehiagori aurre egin behar dietela eskubideak erabiltzeko, baina baita enpleguari, etxebizitzari, seme-

---

<sup>4</sup> Diskriminazio arrazoiek sexua, arraza, kolorea, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo beste mota batzuetakoak, jatorri nazional edo soziala, gutxiengo nazional batekoa izatea, aberastasuna, jaiotza edo beste edozein egoera hartzen dute barne.

<sup>5</sup> Ikus Azalpen Txostenaren 52-54 paragrafoak.

<sup>6</sup> 2/2009 Lege Organikoak Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoa aldatu zuen, emakume guztiek 1/2004 Lege Organikoan xedatutakoaren onura ateratzeko, Espainian egoera irregularrean dauden emakume migratzaile guztiak barne.

<sup>7</sup> Datu ofizialen arabera, 2003 eta 2016 artean bikoteak edo bikote ohiak eraildako 872 emakumetatik, 581 espainiarrak ziren (% 69,7) eta gainontzekoak atzerritarrak (% 30,3). Iturria: 2016 urteko Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren Urteko Txostena (gazteleraz bakarrik eskuragarri), 2019an argitaratua, hemen eskuragarri [www.violenciagenero.igualdad.mpr.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/colecciones/estudio/Libro27\\_X\\_Informe2016.htm](http://www.violenciagenero.igualdad.mpr.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/colecciones/estudio/Libro27_X_Informe2016.htm)

<sup>8</sup> Genero Indarkeriaren Gobernuaren Ordezkaritzak eskatutako 2019ko Emakumearen aurkako Indarkeria Makroinkestaren arabera, emakume atzerritarren % 28,6ak eta espainiarren % 20ak bikote barruko indarkeria salatu zuten. Ikus inkestaren emaitzen 275 orr., 22.1.6 Kapitula.

alaben hezkuntzari, gizarte-baliabideei eta laguntza ekonomikoei dagokienez ere<sup>9</sup>.

Horrez gain, Fiskaltzak igorritako babes agindu edo dokumentu ofizial bat eman behar izan gabe (ikus VI. Kapituluak), emakume migratzaile askori bikote barruko biktima gisa aitortzea ahalbideratzen dien legegintza aldaketa ez ezagutzeak egoera irregularrean dauden emakume atzerritarrek agintarien laguntza ez bilatzea dakar, sinetsiko ez dietenaren beldurra dutelako edo ezin dutelako indarkeria behar bezala frogatu.

Babes-ordena ukatu ostean itzulketa bati aurre egitea arriskutsua da. Berriki egin diren ikerketek bikote barruko indarkeriaren biktima diren emakume migratzaileen kasuan zerbitzuen prestazioan dauden oztopoak erakusten dituzte.

Besteak beste, emakume migratzaileen egoera espezifiko eta konplexura egokitzen diren zerbitzu aproposak bermatzen dituzten giza baliabide eta ekonomiko nahikoa izatearen falta barne hartzen dituzte, baina baliabide hauek sarbide erreala eta duten eraginkortasuna ere bereziki landa-eremura dagokienez, profesional asko ez daudelako trebatuta emakume migratzaileei zerbitzuak eskaintzeko eta zerbitzu espezializatuagoekin koordinazio falta egon daitekeelako<sup>10</sup>.

Orobat, landa-eremuan bizi diren eta fruta-biltzaile gisa aldi baterako lan-erregimenean dauden emakume migratzaile eta Ceuta eta Melillako abegi-zentroetan asiloa eskatzen duten emakume askok, besteen artean, sexu-indarkeria kasuetan bereziki bizi-zerbitzuetarako- osasun-zerbitzuak barne hartzen dituen- sarbidea izateko zailtasunei aurre egin behar diete.

Egoera irregularrean dauden barneko zaintzaile eta etxe-langile askoren zaugarritasun sozioekonomiko altuko egoerak sexu-jazarpen eta sexu-indarkeria bezalako indarkeria formak jasateko arriskuan jartzen die. GREVIOrentzat kezagarria da emakume hauek indarkeriarik gabeko bizitza bat bizitzeko eskubideaz gogatu ahal izateko ikuspuntutik ez izatea.

Illo beretik, indarrean dauden emakumearen aurkako prebentzio eta borrokarako neurri eta programek ezgaitasuna duten emakumeen egoera partikularra behar beste kontuan ez izateak ere kezkatzen du<sup>11</sup>. Dirudienez ezgaitasunek laguntza espezializatu oztopatzen jarraitzen dute indarkeria egoeretan, bortxaketetan barne.

Mendekotasun egoerei buruzko prestakuntza eta kontzientziazio faltak, ezgaitasun eta genero arteko intersekzioek eta protokolo estandarizatu ezak, profesionalen erantzun desegokiei bidea ematen die, ezgaituen laguntza-zerbitzuetara bideratuz, indarkeriaren biktimen zerbitzu espezializatuera bideratu ordez.

Oraindik oztopoak dituzte oinarriko zerbitzuetara sarbide fisikoa izateko, hala nola, segurtasun indar eta kidegoetara, eraikin judizialera eta etxeko indarkeriaren biktimentzako aterpetxeetara.

Horrenbestez, GREVIOk gogobetetze handiz hartu du 2017 - 2020 Plan Estrategikoa, zeinak egoera espezifikoengatik zaugarritasun egoeran dauden pertsonen Guardia Zibilak arretoa espezifiko eskaintzea bermatu nahi duen. Plan hau inplementatuz, bikote barruko indarkeriaren biktimak babesteko plan pertsonalatuari erreferentzia egiten dion material irakurteraza eman zaie.

Honekin batera, biktimen eskubideei buruzko informazioa eskuragarri dago zeinu hizkuntzan,

---

<sup>9</sup> Ikus: Martinez-Roman M-A., Vives-Cases C. and Perez-Belda C., "Immigrant Women Suffering from IPV in Spain: The Perspectives of Experienced Social Workers", in *Affilia: Journal of Women and Social Work*, 2017, Vol. 32(2) pp. 202-216.

<sup>10</sup> Briones-Vozmediano E., La Parra D. and Vives-Cases C. (2015), "Barriers and facilitators to effective coverage of Intimate Partner Violence services for migrant women in Spain", *Health Expectations: An International Journal of Public Participation in Health Care & Health Policy*, 18 (6), pp. 2994 - 3006.  
<http://dx.doi.org/10.1111/hex.12283>

<sup>11</sup> Ikus azken oharra, Espainiak Ezgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordeari (CRPD/C/ESP/CO/2-3, 2019ko apirila) egindako aldizkako bigarren eta hirugarren txosten konbinatuei buruzkoak, bai eta GREVIOra ebaluazio-bisitan bidalitako informazioa eta CERMI Mujeres Fundazioak (FCM) GREVIOra bidalitakoa ere, 12. or.



azpitoluekin eta ahoz itzulita. Edonola ere, GREVIOk ezgaitasuna duten, ezgaitasun intelektual eta psikosozialak barne, emakume eta nesken aurkako indarkeria kontuan hartzen duten politika eta ikuspuntuak garatzeko ahaleginak egiteko garrantzia azpimarratzen du. Ondorioz, GREVIOk Estatu Itunak aurretik aipatutako kezka batzuei konponbidea ematen saiatzea goraiatzen du eta politika eta ikuspuntu integralen inplementazioa laudatzen du. Horrez gain, dagoeneko Espainiako eskualde batzuetan ezgaitasuna duten indarkeria mota honen biktimen babeserako esku-hartze esperientzien ondorio diren ezagutza jakinak lortu dituztela goesten du GREVIOk<sup>12</sup>.

Antzeko zailtasunak daude Espainian ijito komunitateko emakumeen egoera partikularrekin lotuta. Genero-indarkeria jasan ostean, segurtasun indar eta kidego edo gizarte zerbitzuetara jotzeko mesfidantza handia da, eta ez dago argi salaketak jartzeko eta agintariak kolektibo honekiko behar besteko konfiantza sortzeko neurriak hartzen ari diren.

Osasuneko lehen mailako arretara sartzeko oztopoak askoz txikiagoak diren arren, maiztasunez bikote barruko indarkeria pairatzen duten emakume ijitoei administrazioek ematen dizkieten erantzunak mugaketei, rolei eta ijito-komunitateetan emakumeen mendekotasun egoerari buruzko sentsibilitate kultural eta ezagutza espezifiko gabezia dute<sup>13</sup>.

GREVIO pozik dago Espainiako Ijito Biztanleria Gizarteratzeko Estrategia Nazionalean (2012-2020) jasotako aipamen espezifikoarekin, bikote-indarkeriak emakume ijitoei nola eragiten dien aztertze beharrari eta prebentzio-neurri espezifikoak ezartzeko beharrari dagokionez. Hala ere, ez dakigu horrek emaitza ukigarriak, adierazgarriak, ekarri ote dituen, esate baterako, etxeko indarkeriaren edo sexu-indarkeriaren esperientziak ezagutzean, emakume ijitoen eta haien ezkontzaren prebalentzia-tasen arteko ezagutzan. GREVIOk emakumeen aurkako diskriminazio interseksionalari buruzko politika publikoek emakume talde hauekiko indarkeria forma guztien prebalentzia erakusten duten ikerketa eta datuak aurkeztu behar dituztela uste du, haien interesak ordezkatu eta haien eskubideak defendatzen dituzten emakume erakundeen ezagutza eta posizioa islatuz.

#### **GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die:**

- **diskriminazio interseksionala pairatzen duten edo jasan dezaketen emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzio eta borrokarako neurriak indartzea, zeinak ezgaitasuna duten emakumeak, talde minoritarioetako emakumeak, emakume ijitoak, emakume migratzaileak eta asiloa eskatzen dutenak, LGBTI emakumeak, adineko emakumeak, prostituzioan dauden emakumeak eta emakume drogazaleak barne hartzen dituen;**
- **genero-indarkeriaren aurkako prebentzio eta borrokarako politika publikoen diseinuan, inplementazioan, jarraipenean eta ebaluzioan emakume hauen ikuspegia txertatzea, ordezkatzan dituzten GKE babestuz, finantzatuz eta kooperazioa eskainiz;**
- **talde hauetako biktimak babes- eta laguntza-zerbitzuekin lotutako eskubideen erabilerei buruz sentsibilizatzea;**
- **emakume talde hauentzako babes- eta laguntza-zerbitzuen sarbidea garatzea eta hobetzea;**
- **ikerketa sendotzea eta diskriminazio interseksionala pairatzen duten edo jasan dezaketen emakume eta nesken aurkako indarkeriarekin lotutako datu bilketan adierazle espezifikoak txertatzea.**

---

<sup>12</sup> Ikus, adibidez, 2017an argitaratutako «Indarkeriaren biktima diren eta dibertsitate funtzionala duten emakumeen kasuetan esku hartzeko gomendioak» eta Emakundek, Euskal Autonomia Erkidegoa, garatutako esku-hartzei buruzko ildoak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideen alorrean lan egiten duten gizarte zibileko eragileekin lankidetzan.

<sup>13</sup> Vives-Cases C., Goicolea I., Hernandez, A., Sanz-Barbero B., Davó-Blanes C. & La Parra-Casado D. (2017), "Priorities and strategies for improving Roma women's access to primary health care services in cases of intimate partner violence", International Journal for Equity in Health, Volume 16, 2017.

## E. ESTATUAREN BETEBEHARRAK ETA BIDEZKO EGINBIDEA (5. ARTIKULUA)

Hitzarmenaren 5. artikulua bidezko eginbidearen printzipio orokorra du ardatz: Alderdi diren Estatuak Hitzarmenak barne hartzen dituen indarkeria forma guztiei erantzuna emateko betebeharra dute, agintariak bidezko eginbidearen bidez indarkeria hauek prebenitu, ikertu, zigortu, konpentsatu eta biktimak babestu ahal izateko.

Bitartekoei dagokien betebeharra da eta ez emaitzei dagokiena. Betebehar hori ez betetzeak Estatuaren erantzukizuna dakar, bestela estatukoa ez den eragile bati bakarrik esleitzen zaion egintza batengatik. Behar den arretaren estandarraren potentzial osoa gauzatzeko, estatuko erakundeek prebentzio, ikerketa, zehapen, konpentsazio eta babeserako beharrezko ekintza guztietan termino sendoetan inbertitzeko duten gaitasunean oinarritzen da, hasteko, genero-egitura patriarkalak eta emakumearen aurkako indarkeria iraunarazten eta finkatzen duten balioak eraldatzeko betebeharretik hasita<sup>14</sup>.

Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Lege Organikoaren aldarrikapenarekin, Espainiak guztiz aintzatesi du bikote barruko emakumearen aurkako indarkeriari dagokionez *de jure* bidezko eginbidearen printzipioa, eta horrek GREVIO pozten du.

Aitzitik, GREVIOk gogorarazten du aintzatespen hau ez dagola hain garatuta beste indarkeria forma batzuei dagokienez, bereziki sexu-indarkeriari dagokionez, baina antzutze, behartutako abortu, sexu-jazarpen, behartutako ezkontza eta emakumeen genitalen mutilazioari dagokienez ere. Emakumearen aurkako indarkeria forma hauek zuzenbide penalaren bidez lantzen dira nagusiki, baina prebentzioan, babesean eta kalte-ordainean parte-hartzeko beharrari zor zaion enfasia eman gabe.

Funtzionario publiko askok erakutsi duten, segurtasun indar eta kidegoko funtzionario, epaile eta ebaluazio-bisitan zehar GREVIOrekin bildu ziren beste Alderdi interesatuak barne, bidezko eginbidearen printzipioaren ondorioen kontzientziazio maila altua dela eta GREVIO gogobetea dago. Alabaina, GREVIO arduratuta dago *de facto* bidezko eginbidearen printzipioa bere osotasunean aplikatzen ez delako. Oraindik zailtasunak daude Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Lege Organikoa guztiz inplementatzeko, hau dela bide txosten honetan zehar landuko dira.

Espainiako agintariak ez dute Estatuko funtzionarioen aurkako ebazpen eta kasu judizialen kopuruari buruzko datu eta informazioa eman lege honen arabera prebentzio edo babes-neurriak ez hartzeagatik. Honen ondorioz, badirudi funtzionario publikoek oso gutxitan hartzen dutela erantzukizuna bidezko eginbidearen betebeharra ez betetzeagatik. Hau are larriagoa da babes agindurik ez duten guraso erasotzaileen zaintza- eta bisita-eskubideen testuinguruan, kasu askotan ondorio larriak izaten dituztenak.

GREVIOri Ángela González Carreñorena bezalako kasu esanguratsuak kezkatzen dizkiote, Espainiako agintariak bikote barruko indarkeriaren biktima diren emakume eta haurren segurtasunarekiko arreta falta pertsonifikatzen dute, eta era berean, kexak aurkezteko edo ordaintza emateko neurri eraginkorren gabezia<sup>15</sup>.

Beharrezkoa da kasu hauez eta beste batzuek ikastea ezaugarri hauek dituzten akatsak prebenitzen laguntzen dituzten neurriak hartzeko, erakundeek generoarekiko duten isuri maila gutxitzeko neurriak eta baita ikuspegi diskriminatzaile eta estereotipatuarekiko ere, emakumeen aurkako edozein indarkeria forma salatzen duten emakumeak manipulatuak edo sinesgaitz bezala hautemateko joera

<sup>14</sup> "The due diligence standard as a tool for the elimination of violence against women", UN Special Rapporteur on violence against women, its causes and consequences, E/CN.4/2006/61, enero de 2006.

<sup>15</sup> Ikus Ángela González Carreñoren kasua, Espainiako Auzitegi Gorena, 1263/2018 sententzia, eta ONU CEDAW Batzordeak eramandakoa, CEDAW Hitzarmena bete ez zelako, aita erasotzailearen gainbegiratu gabeko bisitak onartzearen haren bi alabei, etxeko indarkeria aurrekariari garrantzi eman gabe. CEDAWren txostenak (CEDAW/C/58/D/47/2012) ez zituen agintariak neurriak hartzeraz bultzatu omisioa aitortzeko. Auzitegi Gorenaren erabakiaren ostean soilik hartu ziren neurriak seme-alaben galeraren kalteak ordaintzeko. Ikus ere Itziar Pratzen kasua.

dutenak<sup>16</sup>.

**GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die Istanbulgo Hitzarmenean barne hartutako edozein indarkeria formaren biktimei, Istanbulgo Hitzarmenaren 4.3 artikuluan zerrendatutako arrazoiengatik diskriminatu gabe, modu arduratsuan prebenitzeko, ikertzeko, zigortzeko eta kalte-ordaina emateko bidezko eginbidearen betebeharra eraginkortasunez betetzea ziurtatzeko.**

## **II. INTEGRATUTAKO POLITIKAK ETA DATUEN BILKETA**

Istanbulgo Hitzarmenaren II. Kapituluaren emakumearen aurkako indarkeriaren erantzun integral baterako oinarritzeko baldintza ezartzen da: beharrezko egitura instituzional, finantzario eta antolatzaileetan sostengatutako politika nazional eraginkor, zabal eta koordinatuen premia.

### **A. POLITIKA ZABAL ETA INTEGRATUAK (7. ARTIKULUA)**

Espainian, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Lege Organikoak emakumeen aurkako indarkeriaren oinarritzeko markoa eskaintzen du, Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itun berrienarekin osatzen delarik. 2017ko irailetik, itun honek indarkeriaren aurka emakumeen babesa indartzera eta emakumeen aurkako indarkeriaren definizio zabalagoa hartzera bideratutako akordio politiko zabala erakusten du.

Espainiako Kongresuak onartutako bi txostenetan zerrendatutako neurrietan oinarritzen da, emakumeen aurkako indarkeriari emandako espainiar entzunaren analisi sakona islatzen duena, edozein indarkeria formaren trataeran ikuspegi zabalago baterantz aurrera egiteko asmoz, Istanbulgo Hitzarmenarekin bat etorritik. Izan ere, neurri batzuek bortxaketa eta sexu-erasoei egiten die erreferentzia, baita emakumeek bikote eta bikote ohitik kanpo jasaten dituzten beste indarkeria forma batzuei ere.

Inplementazioa martxan jartzen ari dira ministerio zentralak eta autonomia-administrazioak egiten ari diren lanari esker. Horrez gain, Kanpo Arazoetako Ministerioak Espainiako diplomazia-zerbitzuak atzerrian indarkeria jasaten duten emakume espainiarrei sostengua ematera bultzatzen dituela ospatzen du GREVIOk.

1/2004 Lege Organikoa onartu eta hamabost urtetara, GREVIOk bikote barruko indarkeria emakumearen aurkako indarkeria forma bat dela aitortzen du. Prebentzio, babes eta jazarpenaren alorreko ekintzak martxan jartzea behar duen ikuspegi zabal eta koordinatua oinarrituz erantzun bat ematen ari zaio, erakundeen arteko lankidetzan oinarrituz. Biktimetan oinarritzen den ikuspegia barne hartzen du, genero-isuria kontuan hartuz, bikote edo bikote ohi barruan gauzatzen den indarkeriaren propio dena. Hori horrela, oinarritzeko marko gisa, Istanbulgo Hitzarmena gutziz betetzen du.

Bestetik, Espainian emakumearen aurkako indarkeriaren prebentzio eta borrokaren arloko eskumenak gobernu zentralak eta eskualdeko/tokikoak dituzte. Eskualdeko autonomia zabalaren ondorioz, oinarritzeko marko hau eskualdeko lege, programa eta neurriekin osatzen da, non ikuspegi, irismen eta implementaziora esleitutako finantzazio-mailari dagokionez ezberdinak diren.

GREVIOk onartzen du politika publiko deszentralizatuak egiteak autonomia-erkidegoen berezitasunak eta beharrak kontuan hartzea ahalbideratzen duela, baina Hitzarmenaren arauak herrialde guztian berdintasunez aplikatzearen beharra bermatzea nabarmentzen du.

Ebaluazioan zehar, GREVIOk Espainiako lau komunitate-erkidego bisitatu zituen<sup>17</sup>, eta aintzatesten du

---

<sup>16</sup> Ikus, halaber, lantaldeak emakumeen aurkako diskriminazioaren gaiari buruz planteatutako kezka, bai legean, bai praktikan, Espainiari buruzko 2015eko ekainaren 17ko txostenean, A/HRC/29/Add.3, 72. paragrafoan.

<sup>17</sup> Hauen artean Madrilgo Erkidegoa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Andaluzia eta Gaztela-Mantxa daude.

17 autonomia-erkidegoetan baldintzak aurkitu ez dituela lege/politika zentral eta autonomikoen inplementazioaren kalitatearen ebaluazio sakonerako.

Hala ere, autonomia-erkidego batzuetan 1/2004 Lege Organikoan ezarritako prebentzio, babes eta jazarpen ikuspegi integrala indarkeria esperientzia ezberdinei aplikatzen zaiela dirudi, beste eskualde batzuetan ordea, bikote edo bikote ohiaren alorrean jasandako indarkeriara soilik mugatzen da.

GREVIOk modu positiboan baloratzen dituen arren gobernu zentralaren eta autonomia-erkidegoen arteko koordinazio eta lankidetzaz bermatzeko ezarritako mekanismo ezberdinak, kezka behatzen du legedia eta ikuspegi autonomikoak oinarritzko markoarekin, 1/2004 Lege Organikoarekin eta Istanbulgo Hitzarmenaren arauarekin lerrotuta ez daudela, baizik eta guztien arteko nahasketa bat dirudiela.

Autonomia-erkidego ezberdinek hartutako ikuspegi desberdinek zaildu egiten dute ebaluatzea Espainian emakumeen aurkako indarkeria forma guztiei zer neurritan eskaintzen zaien erantzun integrala.

GKEek eta espezializatutako emakume elkarteek GREVIOri haien kezka adierazi diote, araudi eta legedi autonomiko ezberdinen arteko desadostasuna dela eta. Praktika instituzionalak biktimetan oinarritutako erakunde arteko ikuspegitik aldentzen direla arrazoitu dute, Hitzarmenak barne hartzen dituen indarkeria forma guztiak kontuan izan gabe<sup>18</sup>.

Koordinazio nazionalako organoaren jarraipen- eta ebaluazio-eginkizunetan hutsuneak daudela adierazteaz gain<sup>19</sup>, diskriminazio-arazo bat sor baitezakete<sup>20</sup>, GREVIOk uste du gai horrek elkarrekintza eta elkartruke sendoagoa behar duela gobernantza nazionalaren eta autonomikoaren/lokalaren mailen artean, eta mekanismo horiek koordinazio-organoaren egituretan eta/edo lan-metodoetan txertatu behar direla.

Hala, mekanismo hauek ikasitako lezioen inguruko eztabaida izateko eta maila autonomiko/tokikoan garatutako praktika hobek elkartrukatzeko aukera ematen dute, emakumeen GKE eta aditu independenteen parte-hartzea ahalbideratuz. Era berean, GREVIOk komunitate edo kolektibo espezifikoetara zuzendutako estrategia eta politika zabalagoetan emakumearen aurkako indarkeriaren prebentzio-, babes- eta jazarpen-neurriak txertatzeko beharra azpimarratu du, hala nola, ijito komunitatea gizarteratzerako estrategiak<sup>21</sup>.

**GREVIOk Espainiako agintariei eskatzen die gobernuko maila guztietan, maila autonomikoan batez ere, Istanbulgo Hitzarmenaren printzipioetara legedia eta araudi administratiboak guztiz egokitu daitezzen eta estatu mailan politika eraginkor, osatu eta koordinatuak bermatu ditzaten Istanbulgo Hitzarmenean barne hartutako indarkeria forma guztien aurkako prebentzio eta borrokarako.**

**Helburu honekin, GREVIOk Espainiako agintariei erregutzen die:**

- emakumearen indarkeriarekin lotutako legedia eta politika autonomikoak alderatzen dituzten analisi independenteak egitea, bereziki Espainia guztian gomendatu daitezkeen etorkizun handiko praktiken identifikaziora bideratuta daudenak, ahalegin hauek maila nazional eta autonomikoan sustatuz;
- emakumearen aurkako indarkeria bere forma eta adierazpen guztietan lantzen dituzten politika integral eta holistikoak diseinatzea eta inplementatzea, bereziki sexu-indarkeria, sexu-jazarpena, behartutako ezkontzak, antzutea eta behartutako abortua, baita ustez «ohorea»ren izenean emakumearen aurka gauzatutako delituak ere.

<sup>18</sup> Espainian egindako ebaluazio-bisitan zehar jasotako informazioa.

<sup>19</sup> Ikus txosten honetan jarraian aipatzen diren koordinazio organo nazionalaren ebaluazio funtzioen inguruko hausnarketak.

<sup>20</sup> Espainiako Konstituzioaren arabera, Estatuak eskubideen erabilera eta eginkizun konstituzionalen betebeharrean espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarritzko baldintzen arauketan eskumen eskusiboa du (EK 149.1.1 artikulua).

<sup>21</sup> Ijito Herria Gizarteratzeko Espainiako 2012 -2020 Estrategia Nazionalak ez ditu barne hartzen emakume ijitoek pairatzen duten indarkeria lantzeko neurriak.

## B. FINANTZA-BALIABIDEAK (8. ARTIKULUA)

Espanian, emakumearen aurkako indarkeriaren prebentzio eta borrokaren jarduerentzako gobernuko finantziarioa maila nazional zein autonomikoan dago eskuragarri. Nahiz eta zorrotzasun-neurriek emakumearen aurkako indarkeriaren biktimei zuzendutako aurrekontu eta zerbitzuetan funtsezko murrizketak eragin, GREVIOk ospatu egiten du arlo horretako finantzaketaren igoera handia<sup>22</sup>. Honek indarkeria prebenitu eta horren aurka borrokatzeko eta agenda politikoan kokatzeko gogoia adierazten du.

Estatuaren Administrazio Orokorrari dagokionez, ministerioko sailek 2017an 340 milioi euro eman zizkieten nagusiki sentsibilizazio, ikerketa, prebentzio-kanpaina eta 016 laguntzako telefono-linea jardueri. GREVIOk goresten du 2018an Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak 200 milioi euro Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren arloan hartutako neurriak finantzatzeko zuzendu zituela.

Maila autonomikoko finantzarioari dagokionez, urtero gobernu zentralak autonomia-erkidegoei funtsak transferitzen dizkie zerbitzuaren eskaintza bermatzeko, Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Lege Organikoa betez. Horretarako, 2016an 6 milioi euro transferitu ziren gizarte-laguntzako zerbitzuak, etxeko indarkeriaren biktimeentzako plan pertsonalizatuak egiteko eta erakunde arteko lankidetzak hobetzeko Proposamen Komunaren inplementazioa finantzatzeko. 2017an, 10 milioi eurotara igo zen eta 2 milioi euro sexu-indarkeriaren biktimeen sostengura zuzendu zituen zehazki. Guzti hori dela eta GREVIO gogobeteta dago.

GREVIOk positiboki baloratzen du gastu publikoaren maila orokorra. Nolanahi ere, zaila da zehaztea autonomia-erkidegoei egindako funts publikoen transferentziak Istanbulgo Hitzarmenaren inplementazio uniformeagoa bermatzeko erabiltzen ari diren (esaterako, lehentasunak ezartzen edo premiazko jarduketak erakusten) haren erabilerari buruz kontuak emango lizkieken mekanismoez gain. Funtsen esleipena erabakigarria da indarkeria forma guztien biktime diren emakume guztiek zerbitzuetara sarbide berdintasuna izan dezaten bermatzeko.

Espaniako erkidego askotan zerbitzuen eskaintzan dauden arrakalak ixteko neurriak hartu behar dira (ikus IV. Kapitulu Babesa eta Sostengua) eta hori bermatzeko funts publikoen erabilera egokiaren erantzukizunak eginkizun garrantzitsua du. Hau bereziki garrantzitsua da Estatu Ituna ezartzeko erabilgarri dagoen finantziario eskuragarria kontuan izanik. Proiektuei zuzendutako funts gehigarri hauen erabileraren adibide batzuek kezkatzen dute GREVIO, lehenetsitako arloen barruan ez dauden jarduerak hauteman direlako<sup>23</sup>.

Estatu Itunak emakumeen indarkeriaren aurka borrokatzeko etorkizuneko ekintzei dagokienez akordio nazionala islatzen duenez gero, GREVIOk positiboki baloratzen duena, finantzatzeko edozein erabaki maila guztietan egin behar dela aldarrikatzen du, maila autonomikoan zein tokikoan. Erabaki hauetan ere, kontuan hartu behar dira txosten honetan barne hartutako aurkikuntzak, modu egokian lehenestea bermatze aldera.

Hala, gobernu zentralaren eta gobernu autonomikoen arteko lankidetzak-mekanismoak maila autonomian jarduteko lehentasunak definitzeko erabili behar dira, Estatu Itunak ezarritako mugen eta helburuen barruan, erkidegoen beharrezko espezifikak kontuan hartzen direla aintzatetsiz (eta autonomia-erkidegoarekiko errespetua) eta, aldi berean, funtsen erabilera erkidegoko agintarien nahierara guztiz ez uztea bermatzea (esaterako, babes-zerbitzuen finantziarioa ezin dela sentsibilizazio-kanpainetarako erabili, babes-zerbitzuen banaketa uniformearen lehentasuna delako).

Lizitazio publikoen bitartez laguntza-zerbitzu espezializatuak finantzatzeko ere kezkatzen du. GREVIO ohartu da prozedura hauek lizitatu baxuenari mesede egiten diotela eta horren ondorioz, batzuetan indarkeriaren biktimeentzako laguntza-zerbitzuetan espezializatu gabeko enpresa pribatuei esleitzen

<sup>22</sup> Espainiako estatuaren txostena GREVIOri, 8 or.

<sup>23</sup> Espainian egindako ebaluazio-bisitan zehar GREVIOrekin partekatutako informazioa.

zaizkiela hitzarmen publikoak.

Langileen artean espezializazio maila nahikoa dagoela ziurtatzeko ahaleginak egin diren arren, GREVIORi enpresa pribatuen kargura dauden laguntza-zerbitzuetako lan baldintzak okertu izanaren kezka komunikatu zaio. Erkidego batzuetan, arazo hau irabazi asmorik gabeko elkarrekin zerbitzuen eskaintza erregulatzen ebatzi da (Euskal Autonomia Erkidegoa), GREVIOk eskertzen duena. Herrialdeko beste erkidego batzuetan lan egiten duten gizarte zibileko ordezkarietatik haien lan baldintza eta finantziario prekarioen inguruko informazioa jaso du, ordea, GREVIOk<sup>24</sup>.

Arazo hau ebazteko ahaleginetan, lizitazio publikoaren legea aldatu da kontratazio publikoko prozedurek zerbitzuaren eskaintzan lizitatuzaileek genero-ikuspegia txertatu dezaten eskatzeko, baina aldaketa hau oraindik ez da guztiz egin.

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei zuzendutako zerbitzuen hornitzaile guztiek mugimendu feministak garatu eta hobetutako eta Europako Kontseiluaren argitalpenetan sakonki berrikusitako funtsezko estandar minimoen arabera jardutea bermatzearen beharra azpimarratu du GREVIOk<sup>25</sup>. Oro har, GREVIOk gogorarazi du biktimei zuzendutako sostengu eta laguntza onena genero-indarkerian ezagutza sakona duten langile espezializatu eta esperientziadunek, haien behar espezifikoaren arabera, ematen dituztenean bermatzen direla (ikus beherago).

Illo horretan, GREVIOk nabarmendu du Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeak arautzen dituela 139.000 euroko edo gehiagoko balioa duten kontratazio publikoko prozedurak, zeinak Espainiako legeriara ekartzen baititu Europako Parlamentuaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak. Bikote barruko indarkeriaren biktimei zuzendutako zerbitzuen kontratu zehatz batzuetarako proposamen ekonomikoan azaltzen diren bestelako baldintzak ezarri daitezke. GREVIOk eskertzen du Espainiako autonomia-erkidego batzuek lizitatuzaile baten esperientzia profesional eta teknikoa lehenestea eta finantza-proposamena eskaintzaren % 30ean bakarrik kalifikatzea.

Garrantzitsua da praktika hauek Espainiako erkidego guztietan bermatzea, kontratazio publikoko arauak indarkeriaren biktima diren emakumeei zuzendutako laguntza-zerbitzuen prestazioan eskaintza txikiena egiten duenari bakarrik mesede egiten ez diotela ziurtatzeko eta kalitate altuko esperientzia espezializatuko jarraipena bermatzeko, langileen baldintzen onargarritasunean oinarrituz.

**GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die gobernu maila guztietan, autonomia eta lekuko mailan bereziki:**

- **sustapenak ezartzea edo parte-hartzen dutenei Istanbulgo Hitzarmenean barne hartutako emakumearen aurkako indarkeria forma ezberdinetako biktimei zuzendutako zerbitzuen kontratazio prozeduretan esperientzia profesional eta teknikoan behar bezalako enfasia jar dezaten eskatzea.**
- **agintari autonomikoen kontu emateak areagotzeko moduak aztertzea gobernu zentraletik transferitutako funtsen erabilerarengatik;**
- **maila autonomikoko lehenetsun ekintzak Estatu-itunean ezarritako neurriekin eta Istanbulgo Hitzarmenaren printzipioekin lerrokatuta egotea ziurtatzea, zerbitzuak ematean eta Istanbulgo Hitzarmenaren xedapenen inplementazio orokorrean arrakalak ixteko helburuz.**

---

<sup>24</sup> Espainian egindako ebaluazio-bisitan zehar jasotako informazioa.

<sup>25</sup> *Combating Violence against Women: Minimum Standards for Support Services*, Kelly L. and Dubois L., Council of Europe (2008), y *Ensuring Data Collection and Research on Violence against Women: Artículo 11 of the Istanbul Convention*, Council of Europe, 2016

### C. GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK ETA GIZARTE ZIBILA (9. ARTIKULUA)

Espainiako emakumeen eskubideak defendatzen dituen mugimendu feministak, haren indarrari esker, zeregin garrantzitsua du emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako agendaren ezarpenean. Kolektibo hau berebizikoa izan da herrialde guztian biktima diren emakumeei eman dien babesagatik.

Eginkizunak diskriminazio forma ezberdinak pairatzeko arriskuan dauden emakume taldeetan oinarritzen dituzten abokatutzako GKE ugari daude, desgaitasuna daukaten emakumeak, landa-eremuko emakumeak edo emakume migratzaileen kolektiboak kasu.

Esperientzia espezializatuak eta bezeroek aurre egin beharreko arazoek ezagutza sakonak, baita genero-indarkeriako esperientziatarako laguntza bilatzen duenean ere, indarkeria horren aurrean ematen diren erantzunak hobetzeko potentzial esanguratsua du, Espainiako emakume guztien beharrak islatuko dituena. Potentzial hori emakumearen aurkako indarkeriaren inguruko politiken maila nazional, autonomiko eta tokiko diseinu eta inplementazioan aprobetxatu behar da.

Abokatutzaz gain, hainbat mailatako emakumeen erakundeek zerbitzu espezializatuak eskaintzen dituzte etxeko indarkeriaren, bortxaketaren, sexu-jazarpenaren, zelataren eta, neurri txikiagoan, emakumeen genitalen mutilazioaren eta behartutako ezkontzaren biktimei laguntzeko. Urteekin printzipio feministetan irmoki finkatutako eta biktimetan oinarritutako esperientzia aipagarria lortu dute.

Hala ere, GREVIOk ikusi du gero eta emakumeen GKE gutxiago sartzen direla bai kontratazio publikoko prozeduretan, bai prozesu politikoetan, eta, horren ondorioz, erakunde horiek ekarpen txikiagoa egiten dute Espainian emakumeen indarkeriaren aurkako babesak hobetzeko<sup>26</sup>.

Urteroko lizitazio prozedurek tamainan eta lizitazio gaitasunean gainditzen dizkien irabazi asmodun erakunde antolatzaileekin lehiatzen duten emakumeen GKE txikiak ez dituzte esperientzia zehatza mantentzera eta garatzera bideratzera bermatzen (ikus goian).

GREVIOk aintzat hartzen du Istanbulgo Hitzarmenak emandako diskrezioa Alderdi diren Estatuak indarkeriaren biktimei laguntza-zerbitzuen eskaintza antolatzeko eta era berean, 9. artikulua emakumearen aurkako indarkeriaren borrokan lan egiten duten GKE garrantzitsuen aitortza, pizgarria eta lanaren sostengua behar duela gogorarazten du.

Honek barne hartzen du erakunde hauekin lankidetzaren eraginkorra ezartzea. Hortaz, zerbitzuen eskaintzaren azpikontratazioak ahalduz inguru bat sortzera lagunduko duten aholkularitza, babesleketan ostatatzea eta abokatutzaren bezalako zerbitzuen eskaintzan edo kudeaketan emakumeen GKEen jardun independentea bermatu behar du.

GKEen gastu operatibo guztiak estaltzen ez dituzten proiektuei esleitzen zaien finantzaketak eta urteko lizitazio-prozedurek beren tarifak gero eta gehiago murriztea eskatzen duten proiektuek kalitatezko zerbitzuak ematen jarraitzea zailtzen duten esparrua sortzen dute.

Era berean, politika integralagoak garatzearen beharrak Espainian nahikoa landu ez diren indarkeria formei, zehazki sexu-indarkeriari, behartutako ezkontzei eta emakumeen genitalen mutilazioari (ikus IV. Kapituluaren G Atala) zuzendutako zerbitzuen eskaintzarekin batera gizarte guztiaren parte-hartzea beharko du, emakumeen GKE espezializatuak barne.

Funtsezkoa da GKE oinarrituko eta komunitarioak, partikulariki emakume migratzaileak, desgaitasuna duten emakumeak eta beste emakume talde espezifiko batzuk ordezkatzeko dituztenak, indarkeria forma guztiei erantzuteko neurrien diseinuan eta inplementazioan barne hartzea, lurralde-maila guztietan.

---

<sup>26</sup> Espainian egindako ebaluazio-bisitan zehar jasotako informazioa.

Esaterako, oinarrizko GKEek funtsezko zeregina dute indarkeria ezberdinen prebentzioan, behartutako ezkontzetan eta emakumeen genitalen mutilazioan kasu. Gaur egun gehienek finantzazio oso gutxi jasotzen dute, haien zerbitzuen irismena eragozten duena eta haien iraunkortasuna arriskuan jartzen duena.

Istanbuleko Hitzarmenean barne hartutako indarkeria forma guztien aurkako prebentziorako eta borrokarako ikuspegi integrala bermatzeak, GKE espezializatuekiko lankidetzan oinarritzen denak, beraz, GKEentzako erabilgarri dauden finantzazio-iturrien eta finantzazio maila orokorren ebaluazioa beharko du. Indarkeria pairatzen duten emakumeen arretan GKE eta bazkideek osatzen duten lagin zabala txertazearen helburua ez da betetzen ari.

Honek, aldi berean, Espainia guztian zehar zerbitzuaren eskaintzaren jarraipena eta kalitatea ziurtatzen dituzten finantzazio-sistema eta -maila egokiak behar ditu, Hitzarmenaren 18.3 artikuluan jasotako zerbitzuaren eskaintzaren printzipioetan eta biktimen konfidentzialtasuna eta autonomia bermatzeko beharra bezalako estandar minimoetan oinarrituz, besteak beste<sup>27</sup>.

#### **GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die:**

- **Espainiako autonomia-erkidego guztietan finantzazio sistemak garatzea eta finantzazio-mailak bermatzea, indarkeriaren forma guztien biktima diren emakumeei zuzendutako laguntza-zerbitzuen eskaintzan, emakumeen GKE espezializatuek zeregin aktiboa izan dezaten;**
- **Lurralde-maila guztietan, bereziki toki- eta autonomia-mailan, emakume independenteen erakundeen esperientziaren aitorpena ezartzea edo indartzea, oinarrizko eta komunitateko GKEak eta emakume-talde espezifikoak ordezkatzeko dituztenak barne, hala nola, emakume migratzaileak, desgaitasuna duten emakumeak, landa-eremuetan bizi diren emakumeak eta emakume ijitoak, beren iritziak eta esperientziak politika publikoen diseinuan eta prebentzio- eta borroka-neurrien diseinuan txertatze aldera, bai eta gaur egun adin txikiko emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko neurriak ere.**

#### **D. KOORDINAZIO ORGANOA (10. ARTIKULUA)**

Espainian, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Lege Organikoak organo administratibo nagusiren sorrera aurreikusten du: Genero Indarkeriaren Gobernuaren Ordezkaritza eta Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokia, biak Presidentetzako, Gorteekiko Harremanetako eta Berdintasuneko Ministeriora atxikituta.

Genero Indarkeriaren Gobernuaren Ordezkaritza emakumearen aurkako indarkeriaren inguruko politiken koordinazio eta inplementazioaren ardura duen gobernuko organismo nazionala da. Hala nola, barne hartzen ditu prebentzio- eta informazio-kanpainak egitea; zerbitzu eskudunen arteko koordinazio eta lankidetzaren sustapena, baita autonomia-erkidegoekin eta gizarte zibileko erakundeekin ere; txostenak, azterketak eta ikerketak egitea eta hedatzea; bilketa sistema bat ezartzea eta eguneratzea eta emakumeen aurkako indarkeriaren datuen analisia egitea eta hauek zabaltzea.

Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokia administrazio nazional, autonomiko eta tokikoak eta gizarte zibileko erakundeak barne hartzen dituen espezializatutako organo bat da<sup>28</sup>. Bere funtzio nagusien artean, alegia, erakundeen lankidetzaren kudeaketa, datuen bilketa, politika eta neurrien inpaktuaren ebaluazioa, txostenak egitea eta genero-indarkeria prebenitzeko eta horren

---

<sup>27</sup> Ikus 24. oharra.

<sup>28</sup> Zehazki, Behatokia Estatuko Administrazio Orokorreko ordezkariak, autonomia-erkidegoek, Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioak, Estatuko Fiskaltza Nagusiak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, gizarte zibileko erakundeak eta genero-indarkeriaren alorreko adituek osatzen dute.



aurka borrokatzeko jarduketan azterketa eta proposamenak egitea daude.

Gainera, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko politika nazionalen koordinazio eta inplementazioa Berdintasun Konferentzia Sektorialaren bilerekin esker lortu da. Berdintasun Ministerioak antolatutako jardunaldi hauek bizpahiru aldiz egiten dira urtean, Estatuko Administrazio Orokorreko eta autonomia-erkidegoetako ordezkariak biltzen dira gobernu maila guztietan eta lurralde guztian koordinazio politikoa bermatzeko xedez. Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunaren Ministerio arteko Batzordea gobernu zentrolean ministerio ezberdinen arteko lankidetzan bermatzen duen organoa da.

Espania eskualdeko eta tokiko autonomia maila altuengatik karakterizatzen den herrialdea den aldetik koordinazioak garrantzi handia du<sup>29</sup>, eta GREVIOk koordinazio hau ziurtatzen duten neurri guztiak ohoratzen ditu. GREVIOk positiboki baloratzen du Genero Indarkeriaren Gobernuaren Ordezkaritzaren eginkizunak Istanbulgo Hitzarmenaren helburu eta irismenekin elkartu direla, emakumearen aurkako indarkeria forma guztiak txertatuz. Bestalde, GREVIOk 32 milioi euro inguruko (2017ko zifra) urteko aurrekontu propioa eta ardura espezifikoa duten 39 langile esleitu zaizkiola ospatzen du, oraindik postu guzti horiek bete ez diren arren.

Edonola ere, GREVIOk egindako ebaluazioan ikusi da Istanbulgo Hitzarmenaren inplementazioan aldaketa handiak daudela autonomia-erkidegoen artean. Hala, emakumeek jasaten dituzten genero-indarkeria forma ezberdinekiko babes eta sostengu maila berdintsuak lortu direnaren bermerik lortu ez dela dirudi. Gainera, legedi guztiaren ebaluazio eta haren maila autonomikoko praktika gabeziaren ondorioz, ez dira autonomien ezberdintasunen inpaktua ezagutzen bortxaketa, sexu-jazarpen, ezkontza behartu, emakumeen genitalen mutilazio eta etxeko indarkeriaren biktimak segurtasun indar eta kidegoek, gizarte zerbitzuek eta laguntza-zerbitzu espezializatuek artatzen dituzten moduari dagokionez.

**Autonomia-erkidego guztietan Istanbulgo Hitzarmenaren inplementazio uniformearen bermatzeko, GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die:**

- **gobernuko egitura nazional eta deszentralizatuen arteko koordinazioa indartzea eta Genero indarkeriari dagokionez Gobernuko Ordezkaritzari lege-marko eta politika nazional zein autonomikoak definitzeko trebakuntza ematea, Istanbulgo Hitzarmena guztiz bete dezaten.**
- **maila autonomikoan emakumearen aurkako indarkeriari dagozkion lege eta politika publikoen jarraipen eta ebaluazio eraginkorrerako neurriak hartzea indarkeriaren prebentzioko arrakalak identifikatu eta heltzeko helburuz, baita biktimak babesteko eta delituak jazartzeko;**
- **lorpena baloratzen duten aurretik definitutako adierazleetan oinarritzen diren politika publikoen jarraipen eta ebaluazioa ziurtatzea, maila nazional zein autonomikoan.**

## **E. DATUEN BILKETA ETA IKERKETA (11. ARTIKULUA)**

Emakumearen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren prebentzio eta borroka gertaeretan oinarritutako politiken formulazioa behar du. Ildo horretatik, funtsezkoa da eskumena duten administrazio iturri guztien datu sistematiko eta alderagarrien bilketa, baita emakumeen aurkako indarkeria forma guztien prebalentziari buruzko informazioa ere.

---

<sup>29</sup> Hitzarmenaren 7. artikulua estandarretan betetzen dituzten politika integral eta koordinatuak ziurtatzeko, Espainian hartutako neurrien analisiarekin lotuta, maila autonomiko eta tokikoan emakumeen aurkako indarkeria lantzeko marko instituzionala txosten honetan aztertzen da.

## 1. Datu administratiboen bilketa

Espanian datu estatistiko pila biltzen ari dira, zeintzuetariko asko Genero Indarkeriaren Gobernuaren Ordezkaritzaren bitartez zentralizatzen diren diseinua funtsatzeko eta/edo gai honetan politika publiko eta neurriak lotzeko asmoz.

Erakunde honek, hala nola, urteroko eta hilabeteroko estatistika-buletin, bikote edo bikote ohiak eraildako emakume kopurua bezalako datuei buruzko argitalpenen, babes ordenak betetzeari buruzko datuen, telefono bidezko laguntza-zerbitzu nazionalera egindako dei kopuruen, 1/2004 Lege Organikoa betez laguntza ekonomikoak jaso dituzten onuradun kopuruen bitartez ere baieztatzen du<sup>30</sup>.

GREVIOk Espainiako agintariak zorientzen ditu Genero Indarkeriaren Gobernuaren Ordezkaritza informazio estatistiko garrantzitsua biltzeko lanean egiten ari den jardun garrantzitsuagatik eta haren hedapen azkarra ziurtatzeagatik emakumeen indarkeriaren aurkako prebentzio eta borrokara zuzendutako politika publiko eta legediaren formulazioan gardentasun osoa eta datuen garrantziaren aitortza orokorra lortzeko asmoz.

Nolanahi ere, orain arteko sistemak bikote barruko indarkeriari buruzko datuak soilik kontuan hartzen dituela azpimarratu du GREVIOk, 1/2004 Lege Organikoaren ezarpenaren jarraipenarekin duen lotura estuaren ondorioz, honela, Istanbulgo Hitzarmenak barne hartutako beste indarkeria forma batzuei dagozkien datuak albo batera utziz.

Gainera, GREVIOk behatu du ikerketa eta kondenei dagokizkien datuak ez direla Genero Indarkeriaren Gobernuaren Ordezkaritzan sartzen, bereizita biltzen dira, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia eta Barne Ministerioaren barne-erabilerarako batez ere.

Istanbulgo Hitzarmenak barne hartutako indarkeria forma guztien datuen beharraren ondorioz, GREVIOk Espainiako agintariei Genero Indarkeriaren Gobernuaren Ordezkaritzak bildutako eta hedatutako datuak Istanbulgo Hitzarmenak barne hartutako emakumearen indarkeria forma guztietara, bereziki sexu indarkeriara, behartutako ezkontzetara eta emakumeen genitalen mutilaziora, hedatzeko eskatzen die.

### Segurtasun indar eta kidegoak eta justizia penalaren sektorea

Segurtasun indar eta kidegoek eta Genero Indarkeria Kasuetan Jarraipen Integraleko Sistemako (Sistema VioGén) beste erakunde publiko batzuek bikote ohi edo bikote barruko emakumearen aurkako indarkeria kasu kopuruari buruz erregistratutako datuak bildu eta hedatzen ditu hilabetero Barne Ministerioak<sup>31</sup>.

Kasu hauek gerora arrisku balorazioaren Espainiako tresna estandarizatuek (Arriskuaren Balorazio Poliziala [ABP] eta Arriskuaren Bilakaeraren Balioespen Poliziala [ABBP]) estimatutako arrisku mailaren arabera sailkatzen dira eta kokapen geografikoaren arabera banatzen dira. Kasuaren arabera, Salaketa eta Herritarren Arretarako Bulegoei, Familia eta Emakumeari Arreta Unitateei (UFAM) edo Familientzako Arreta Zerbitzuei bidalitako deklarazioetan, memorandumetan, aktetan salatutako delituei buruzko datuak biltzen ditu ere Polizia Nazionalak Espainian.

Polizia Nazionalaren Estatistika Zerbitzuak zentralizatzen du eta prozesatzen du informazio guztia eta sexuaren, adinaren, delitu motaren, biktimarekiko harremanaren, herriaren, probintziaren eta beste datu garrantzitsu batzuen arabera banatzen da. Guardia Zibilak biltzen dituen datuak antzeko moduan banatzen dira. Nolanahi ere, datu hauek ez dira modu sistematikoan publiko egiten.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak (hemendik aurrera, BJKN) emakumearen aurkako indarkerian

<sup>30</sup> Informazio hau hemen dago eskuragarri <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/home.htm>.

<sup>31</sup> Hileko txosten estatistikoak hemen eskuragarri: [www.interior.gob.es/ca/web/servicios-al-ciudadano/violencia-contra-la-muje/estadisticas](http://www.interior.gob.es/ca/web/servicios-al-ciudadano/violencia-contra-la-muje/estadisticas).

espezializatutako zigor-auzitegi orokor eta epaitegien aurrean prozeduraren etapa guztietan bikote edo bikote ohiaren indarkeria kasuei buruzko datuak biltzen ditu (informazio gehiagorako, ikus VI. Kapituluak).

Datuen gehiengoa buletin espezifikotetan argitaratzen da aldizka. Aurkeztutako eta kendutako kargu kopurua; eskatutako, emandako eta ukatutako babes orden kopurua eta hasitako prozedura motak eta haien emaitzak barne<sup>32</sup>. Datuen gehienak adinaren, sexuaren, delitu motaren, erasotzaileak biktimarekin duen harremanaren, bikote edo bikote ohiaren indarkeria motaren («ohorearen» izenean eragindako indarkeria fisiko, psikologiko eta sexuala barne) eta lokalizazioaren arabera daude bereizita, GREVIOk eskertzen duena.

BJKN da emakumearen aurkako indarkerian espezializatutako epaitegietara eramandako kasu zibilen kopuruari buruzko datuak biltzen dituen ere, baita dibortzioarekin, adingabekoen zaintzarekin eta bisita-erregimenarekin lotutakoak<sup>33</sup>.

Hala ere, datu hauen irismena mugatua da emaitzei buruzko informazioa eman ez delako eta prozesu judizial hauetan etxeko indarkeriaren historiala kontuan hartu ez delako.

Bikotetik kanpoko emakumearen aurkako indarkeria formei dagozkien datuen bilketaren ahaleginak, bortxaketa eta sexu-indarkeriari dagozkienak bereziki, ez dute irismen berdina. Izan ere, publikoki eskuragarri dauden sexu-indarkeriari buruzko datu bakarrak sexu askatasunaren aurkako delitu kopuruarekin lotuta daude, bortxaketa eta beste sexu-delitu batzuk barne, segurtasun indar eta kidegoek erregistratutakoak izan direnak<sup>34</sup>.

GREVIO ez dago ados datuak adinaren, sexuaren eta erasotzaile eta biktimaren harremanaren arabera bereizi ez direlako, eta aurkeztutako salaketa kopuruari eta irekita dauden prozesu penalei buruzko informaziorik ez dagoelako.

Era berean, «ohorearen» izenean gauzatutako indarkeriari buruzko datuak gutxi dira eta bikote barruko indarkeriaren testuinguruan soilik biltzen direla dirudi. Horregatik, GREVIOk positibotzat jotzen du Estatuko Itunak adierazitako borondatea, hau da, bikotearen edo bikote ohiaren eremutik kanpo erabilitako indarkeria-motei buruzko datu estatistikoak biltzeko legezko betebeharra txertatzea eta Estatistika Judizialaren Batzorde Nazionalarekin akordio batera iristea gai horrekin lotutako buletin estatistikoak aldatzeko (167. eta 180. neurriak).

**GREVIOk ahalik eta azkarren Diputatuen Kongresuak hartutako Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren 167 eta 180 neurriak ezartzea eskatzen die Espainiako agintariei, Istanbulgo Hitzarmenean barne hartutako indarkeria forma guztiekin lotutako bereizitako datuen bilketa osoa bermatzeko.**

**Gainera, GREVIOk biziki animatzen ditu Espainiako agintariak zigor-arloko prozesu baten etapa bakoitzean (salaketa eta ikerketa, prozesu penalak irekitzea eta horien emaitzak) sortzen diren emakumearen aurkako indarkeria-mota guztiei buruzko datuak biltzearekin lotutako neurriak hartzera, sexuaren, adinaren, indarkeria motaren eta biktimaren eta delituaren egilearen arteko harremanaren arabera banakatuta.**

**Halaber, GREVIOk Espainiako agintariei dei egiten die BJKNk dibortziolari eta seme-alaben zaintzari buruzko ebazpenei buruz bildutako datuak zabal ditzaten, Espainiako epaitegiek etxeko indarkeriak eragindako emakumeen eta haurren segurtasuna testuinguru horretan nola bermatzen duten baloratu ahal izateko.**

<sup>32</sup> Ikus, adibidez: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (2018) genero-indarkeriari buruzko urteko txostena (gaztelera).

<sup>33</sup> *Ibid.*, 13.

<sup>34</sup> Ikus, adibidez, 2018 urteko Barne Ministerioaren urteko azken txostena, hemen eskuragarri [www.interior.gob.es/documents/642317/1204854/Anuario+Estad+%C3%ADstico+del+Ministerio+del+Interior+2018/5a35fad7-5386-44fb-83ae-9b14e678cc4a](http://www.interior.gob.es/documents/642317/1204854/Anuario+Estad+%C3%ADstico+del+Ministerio+del+Interior+2018/5a35fad7-5386-44fb-83ae-9b14e678cc4a)

## Osasun sektorea

Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluaren Genero Indarkeriaren Aurkako Batzordeak urtero genero-indarkeriari buruzko txostena igortzen du. Txostenak Osasun Sistema Nazionalen hautemandako eta erregistratutako genero-indarkeria kasuei buruzko datuak aurkezten ditu, lehen mailako arretakoak, ospitaleko arretakoak eta larrialdi zerbitzuenak, lesio parte edo historia klinikoen bitartez.

Era berean, txosten honek kasu kopuruari, abusu motari (fisikoa, sexuala, psikologikoa), abusuaren iraupenari, biktima eta erasotzailearen arteko harremanari, adinari, nazionalitateari, biktimaren egoera laboralari eta haurdun zeuden biktima kopuruari buruzko datuak eskaintzen ditu.

GREVIOk Osasun Sistema Nazionalak erregistratutako genero-indarkeria kasuei buruzko informazioa biltzeko duen interesa positiboki baloratzen duen arren, datuen bilketaren inguruko hainbat arazo egon dira.

Txostenek ez dute behar adinako sistematikotasunik datuen arteko alderaketa egiteko; izan ere, alde batetik, ez dago autonomia-erkidegoetako zenbait adierazleri buruzko daturik, mediku-espeditanteetan edo lesio-parteeetan sortuak, baina, bestetik, autonomia-erkidegoetako informazio-sistemen arteko aldeak ere badaude. Gainera, ze daude Hitzarmenak barne hartzen dituen emakumearen aurkako indarkeria forma ezberdinekin lotutako bereizitako datuak.

GREVIOk Espainiako agintariei Istanbulgo Hitzarmenak barne hartutako emakumeen aurkako indarkeria forma guztiekin lotuta, herrialde guztian osasun sektoreak egiten duen bilketa prozesuan datuen sistematizazioa eta alderagarritasuna hobetzeko neurriak hartzea eskatzen die.

## 2. Biztanleriaren inkestak

Espanian emakumeen aurkako indarkeria forma ezberdinen prebalentziari eta indarkeria horri lotutako jarrerei buruzko biztanleriaren hainbat inkesta daude. Esaterako, Genero Indarkeriaren Gobernuaren Ordezkaritzak «Genero-indarkeriaren hautemate sozialari buruzko inkesta» (2014), «Nerabezaroan eta gaztaroan genero-indarkeriaren hautemate sozialari buruzko inkesta» (2014) eta «Sexu-indarkeriaren hautemate sozialari buruzko inkesta» (2018) egin ditu.

Era berean, Genero Indarkeriaren Gobernuaren Ordezkaritza lau urtetik behin emakumearen aurkako indarkeriari buruzko makroinkesta egiteaz arduratzen da. Azken inkesta 2020ko irailean argitaratu zen, 16 urte baino gehiago dituzten 9.568 emakumez osatutako laginetik abiatuta, Espainian bizi den emakumezkoen biztanleriaren adierazgarria.

Galdetegiak indarkeria mota ezberdinak barne hartzen ditu: bikote edo bikote ohi barruko indarkeria (indarkeria fisiko, sexual, psikologiko eta ekonomikoa barne), bikote kanpoko indarkeria fisiko eta sexuala, sexu-jazarpena eta zelata (*stalking*).

Inkestak bizitzan zehar pairatutako indarkeria forma bakoitzaren prebalentzia aztertzen du, elkarrizketa aurreko azken 4 urte eta 12 hilabeteetan arreta berezia jarriz. Bikote edo bikote ohi barruko indarkeriari dagokionez, galderek indarkeriaren ondorio fisiko, psikologiko eta laboralak, indarkeria gertakizunetan haurrak egotea, biktimen salaketaren aurkezpena, laguntza motaren bat jaso izana eta hala badagokio, gogobetetze maila, haren inguru sozialarekin bateratze-lana eta indarkeriaren ondorioz harremana bukatzea barne hartzen dituzte.

Inkestak bikote edo bikote ohitik kanpoko sexu-indarkeriari dagokionez, haurtzaroan zehar indarkeriaren prebalentzia, erasotzailearen sexua, indarkeriaren maiztasuna, gertatu zen lekua, indarkeriaren ondorio fisiko, psikologiko eta laboralak, biktimen salaketaren aurkezpena, laguntza motaren bat jaso izana eta hala badagokio, gogobetetze maila aztertzen ditu.

Bestalde, 16 eta 24 urte arteko eta 65 urtetik gorako emakumeek jasandako indarkeriaren, atzerrian

jaiotako emakumeen, % 33ko ego gehiagoko desgaitasuna ziurtatuta duten emakumeen eta herri txikietan bizi diren emakumeen prebalentziari buruzko datuak eskaintzen ditu.

GREVIOk positiboki baloratzen du inkestak hurrengo urteetan izan duen jarraipena. Batik bat, nabarmentzen du 2015ean bikote edo bikote ohitik kanpo jasandako indarkeria fisiko eta sexualari buruzko galderak sartu izana eta baita ere 2019an sexu-jazarpenari buruzko galderak txeratu izana.

GREVIOk 16 eta 24 urte arteko eta 65 urtetik gorako emakumeek, atzerrian jaiotako horiek, desgaitasuna duten emakumeek eta herri txikietan bizi direnek jasaten dituzten indarkeria forma guztien prebalentzia modu zehatzean adierazi izana baloratu du baita.

Izan ere, diskriminazio interseksionala jasaten duten emakume taldeen artean indarkeria forma guztien prebalentziaren analisia ezinbestekoa da, kolektibo hauek bereziki pairatzen dituzten zailtasunak ebatzi ahal izateko, politika publiko eraginkorrak egiterakoan beharrezko elementua izanik (ikus I. Kapitulua, D.2 Atala).

GREVIOk, ordea, inkestak oraindik behartutako ezkontzei eta emakumeen genitalen mutilazioari buruzko informazioa eskaintzen ez duela seinalatu du. Hain zuzen ere, 11.2 artikulua helburua Istanbulgo Hitzarmenean ezarritako emakumeen aurkako indarkeria forma guztien prebalentzia aldizkako inkestaren bitartez ebaluatzea dela nabarmendu du GREVIOk.

**GREVIOk Espainiako agintariei Istanbulgo Hitzarmenean barne hartutako emakumeen aurkako indarkeria forma guztiei buruzko inkestak egin ditzaten eskatzen die, baita emakumeen genitalen mutilazioarekin eta behartutako ezkontzeekin lotutako indarkeriari buruzko inkesta espezifikoa egiteko ere. Era berean, GREVIOk Espainiako agintariak animatzen ditu edozein inkestaren emaitzak, bereziki indarkeriarekiko esposizioari dagokionez emakume taldeen artean desberdintasunak daudela adierazten dutenak, ebidentzian oinarritutako politika publikoen formulazioa bermatzeko erabiliko direla bermatzera.**

### 3. Ikerketa

Espanian azterketa eta ikerketa ugari daude emakumearen aurkako indarkeria forma ezberdinei heltzen dizkietenak. Genero-indarkeriaren alderdi ezberdinei buruzko argitalpen akademiko eta ikerketa aniztasun handia dago, zehazki, bikote edo bikote ohiaren partetik jasandako indarkeriari buruzkoa.

GREVIOk positiboki baloratzen du Genero Indarkeriaren Gobernuaren Ordezkaritzak aldizka emakumeen biktimizazioa, laguntza bilaketa eta emakumearen aurkako indarkeriarerako zaugarritasuna oinarri hartzen duten ikerketa-proiektuei ematen dien sostengua. Duela gutxi, emakumearen aurkako indarkeriaren alorreko doktorego-tesira zuzendutako sari banaketa dortu zuen, arlo honetan ikerketa akademikoa sustatzeko helburuarekin.

Ez hori bakarrik, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiak Espainian emakumearen aurkako indarkeriarekin lotutako hainbat alderdiren inguruko informazio biketa eta ikerketa bermatzen du, bereziki, bikote edo bikote ohiak eraildako emakume kopurua zehazten laguntzen dutenak. GREVIOk ongietorria ematen dio ekimen honi.

GREVIOk eskertzen du ebidentzietan oinarritutako politika publikoak egiteko ikerketa oinarritzat hartzearen beharra aintzatetsi izana, jarduketa hauek islatzen duten bezala. Halaber, duela gutxi enkargatu diren azterketek desgaitasuna duten emakumeek, landa-eremuko emakumeek eta 65 urte baino gehiagoko emakumeek haien bikote edo bikote ohiarengandik pairatutako indarkeriarekin lotutako arrisku forma espezifikoa ikertzen dituztela baloratzen du.

Gainera, GREVIOk 2003tik Espainian bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeriaren testuinguruan emakumeen hilketei buruz egindako azterketa sakona aitortzen du. Azterketa horren emaitzek oinarri sendoa eman beharko lukete Espainian etorkizunean babes-sistema hobetzeko.

Hala ere, GREVIOk adierazi du Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzak agindutako ikerketa batez ere etxeko indarkeriari buruzkoa dela, eta labur baino ez dituela aipatzen emakumearen aurkako beste indarkeria mota batzuk. Esate baterako, nabarmentzekoa da ikerketa-lan gutxi egin direla bikoteak/bikote ohiak ez diren pertsonen sexu-indarkeria eta bortxaketa salatzeko tasa baxuak edo sektore judizialak emakumeen bigarren mailako biktimizazioa eragin dituzten arrazoiak aztertzeko.

Gainera, ikerketa eskasa dago emakumearen aurkako indarkeria-motei lotutako kondena-tasei buruz, eta alderdi hori beharrezkoa da sektore judizialean egon daitezkeen gabeziak identifikatzeko. Gainera, ez da inolako ikerketa sakonik eskatu diskriminazio intersektionalaren arazoak eta agentzia ofizialen eta gizarte-zerbitzuen laguntza bilatzea eta lortzea zailtzen duten gainerako faktoreak emakume migratzaileen eta gutxiengo etnikoen kolektiboen aldetik argitzeko.

**GREVIOk Espainiako agintariei dei egiten die gaur egun arreta gutxi jasotzen duten emakumeen aurkako indarkeria-adierazpenai buruzko ikerketa bultzatzeko ahaleginak areagotzera, eta lehentasuna ematen die sexu-indarkeriarekin, behartutako ezkontzarekin, emakumeen genitalen mutilazioarekin eta behartutako antzutzearekin eta seme-alabengan etxeko indarkeria ikustek dituen ondorioekin zerikusia duten adierazpenei.**

### III. PREBENTZIOA

**Kapitulu honek prebentzioaren alorreko betebeharrak orokor eta espezifikoak barne hartzen ditu. Prebentzio-neurri goiztiarrak hartzen dituzte barne, hala nola emakumeen eta gizonen portaera-eredu sozial eta kulturalak aldatzea sustatzea, genero-aurreiritziak eta -estereotipoak ezabatzea, eta genero-berdintasuna lortzeko eta emakumearen aurkako indarkeria prebenitzeko gizarte osoa inplikatzeko neurriak, gizonak eta haurrak barne.**

**Prebentzio-neurri espezifikoagoak ere jasotzen ditu, hala nola sentsibilizazio kanpainak egitea, profesional guztien prestakuntza egokia bultzatzea, eskoletan eta beste ingurune batzuetan hezkuntza eskaintzea, eta, azkenik, delituen egileei zuzendutako programak, biktimizazio handiagoo saihesten dutenak.**

#### A. BETEBEHAR OROKORRAK (12. ARTIKULUA)

2004an Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriak buruzko 1/2004 Lege Organikoa ezarri zenean, Espainian bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeriari buruzko eztabaida publiko zabala izan zen. Horrek guztiak arazo hori eremu publikora azalera lagundu du.

Lege honen ezaugarri berritzaileetako bat da eskala handiko sentsibilizazio-ekimenak bermatzen dituela, baita ikuspegi komunitarioen eta kulturartekoen bidez ere, gizartean oinarritutako eskubide eta askatasunen errespetuan eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean oinarritutako balio berriak sartzeko, eta tolerantzia eta askatasuna bizikidetzako printzipio demokratikoen barruan erabiltzeko, genero-harremanen ikuspegitik (3. artikulua).

Gogoratu beharra dago bidezko eginbidearen printzipioaren ezarpena ez dela mugatu behar indarkeria-kasuei erantzutera, baizik eta estatuek emakumeen aurkako indarkeria iraunarazten duten genero-egitura eta -balio patriarkalak eraldatzeko duten betebeharrak barne hartzen duela<sup>35</sup>.

GREVIOk zorian eman dizkie Espainiako agintariei, bikotearen edo bikote ohiaren eremuan gizonen eta emakumeen aurkako indarkeria onartzen eta normalizatzen duten portaera-ereduetan eta gizarte-arauetan aldaketak eskala handian sustatzeko beharri buruz egiten duen aitorpen goiztiarragatik.

<sup>35</sup> Ertürk Y. (2006), «Integración de los derechos humanos de la mujer y la perspectiva de género: Violencia contra la mujer: La norma de la debida diligencia como instrumento para la eliminación de la violencia contra la mujer», emakumeen aurkako indarkeriari eta honen kausa eta ondorioei buruz Kontalari Bereziak egindako Txostena, E/CN.4/2006/61.

GREVIOk positiboki baloratzen du bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeriaren eta horrek pertsonengan eta gizartean oro har dituen ondorioen inguruko kontzientziatio-maila orokorra, baita profesional eta gizabanako askok adierazitako zero tolerantziako jarrera ere.

Hala ere, eta txosten honetan adierazten den bezala, GREVIO kezkarria iruditzen zaio emakumeen aurkako indarkeria-mota bati buruzko pertzepzioak (bikotearen edo bikote ohiaren ondoriozko indarkeria) aldatzeko beharraren aitorpen horrek presentzia txikiagoa izatea Istanbulgo Hitzarmenean jasotako emakumeen aurkako beste indarkeria-mota batzuekin alderatuta.

GREVIOk gogorarazten du emakumeen aurkako indarkeria forma guztien erroa emakume eta neskekiko gizonen duten gehiagotasun sinesmenean dagoela. Bortxaketa eta sexu-erasoa, zelata, emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontza eta behartutako abortu/antzutzea bultzatzen dituen motibazioa emakume baten gaineko boterea eta kontrola da: haren gorputza, burua, egoera ekonomikoa, sexualitatea edo ugalketa-funtzioak. Botere eta kontrol hau onartzen eta normalizatzen dituzten balio, maskulinitasun eta tradizio sozialak, beraz, gizarteko sektore guztietan eta harreman estuetatik haratago ere deseraiki behar dira.

Kezka honek larritasun berezia du bortxaketa eta sexu-erasoei dagokienez. GREVIO kezkatuta dago, azken urteetan emakume gazteen eta nesken talde bortxaketa kasuek jasotako publizitatearen ondorioz, erasotzaileek emakumeekiko izan duten jarrerarengatik, haien teknika kriminalarengatik eta emakumeak objektu bezala tratatzen dituztelako.

Kezkarria da, oro har, taldean gertatzen diren bortxaketen kopuruak gora egin izana, are gehiago udako hilabeteetan<sup>36</sup>; era berean, gero eta gehiago dira biktima adingabeak edo erasotzaile adingabeak inplikatzeko dituzten kasuak<sup>37</sup>.

GREVIOk eskertzen du agintarien artean gai horri buruzko kontzientziatioa prebentzio-neurri bihurtzen hasi dela, gizonen emakumearen gorputzari buruz erakusten duten partaide izatearen sentimenduari aurre egiteko.

Neurri hauek, besteak beste, emakume, gizon eta haurren autonomia sexualarekiko errespetuan oinarritutako sexu-heziketa aproposa barne hartzen dute<sup>38</sup>. Era berean, lehen pausoak eman dira udako jaietan emakume eta nesken segurtasuna bermatzeko. Arreta gehiago jartzen den arren emakume eta nesketan biktima posible gisa, gizon eta mutiletan beharrean erasotzaile posible gisa baino. Ministroen Batzordearen CM/Rec (2019) 1 Gomendioa estatu kideetan sustatzeko eta inplementatzeko egiten ari diren ahaleginen helburua da Espainian genero-estereotipo sexista kaltegarriak are gehiago murriztea, eta GREVIOk positibotzat jotzen du hori.

**GREVIOk Espainiako agintariei dei egiten die, beharrezkoa denean, gizartea oro har aldekata horretan inplikatzen dituzten ahaleginei eusteko, bereziki gizonen eta haurrei, prebentzio-programen, kanpainen eta oinarri komunitarioko beste neurri batzuen bidez. Helburua emakumeen aurkako indarkeria-motak prebenitu eta horiei aurre egitea da, autonomiarekiko errespetua eta sexu-baimena garatuz, sexu-jazarpenari buruzko kontzientziatioaren bidez eta emakumeen aurkako indarkeria telematikoa antzemateko bitartekoen bidez.**

## **B. SENTSIBILIZAZIOA (13. ARTIKULUA)**

Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Lege Organikoaren 3. artikuluan ezarritako betebeharrarekin bat etorriz, 2004tik bikoteak edo bikote ohiak gauzatutako indarkeriaren

<sup>36</sup>feminicidio.net proiektuak abian jarritako GeoViolenciaSexual ikerketak jasotako informazioaren arabera, Espainian bortxaketa kolektiboen kopurua 2016an 18 izatetik 2019an 63 izatera igaro da. Ikus <https://geoviolenciasexual.com>

<sup>37</sup> Fiskaltzaren arabera, 2017an sexu-delituen harira hasitako prozesu penalek % 23,2ko hazkundera izan dute. Estatuko Fiskal Nagusia Espainiako Gobernuari egindako txostenean sexu-delituen kopurua «arduragarritzat eta kezkarritzat» jotzen ditu, 14 urte baino gutxiagoko adingabeek jasandako talde bortxaketak barne. Ikus Estatuko Fiskaltza Nagusiak Espainiako Gobernuari 2018 urte judizial hasieran aurkeztutako Txostena, hemen eskuragarri [www.elconfidencialdigital.com/media/elconfidencialdigital/files/2019/06/28/MEMFIS18.pdf](http://www.elconfidencialdigital.com/media/elconfidencialdigital/files/2019/06/28/MEMFIS18.pdf).

<sup>38</sup> Ikus, adibidez, 2019an Genero Indarkeriaren Gobernuaren Ordezkaritzak sexu kontuetan baimena emateari buruzko kanpaina egin zuen, zehazki gizonekoei zuzenduta zegoena.

inguruko eskala handiko sentsibilizazio-kanpaina publikoak egiten dira. Gastu publikoa nabarmen aldatu da urteetan zehar, baina esanguratsua izan da aldi horretan, urtean 1,3 eta 8 milioi euro artekoa izan baita<sup>39</sup>.

Nahiz eta adostu daitekeen ahalegin hori eraginkorra izan dela bikotearen eremuan gizonen emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeriari buruzko gizarte-kontzientziazioaren maila handitzeko («genero-indarkeria»), genero-indarkeria ez da arazo garrantzitsutzat jotzen Espainian, duela gutxiko ikerketen emaitzen arabera.

Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorenaren (CIS) Ikerketa Sozio-Juridikoen Zentroko espainiarren hileko barometroaren arabera, emakumeen aurkako indarkeriak oso leku txikia du bikotearen eremuan, eta ez du loturarik sentsibilizazio-kanpainetako gastu publikoaren mailarekin<sup>40</sup>.

GREVIOk onartzen du Espainiako agintariak, bereziki Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzak, konpromiso irmoa dutela sentsibilizazioaren bidez genero-indarkeria prebenitzeko. Hala ere, adierazi du beharrezkoa dela prebentzio-ahaleginak epe luzeagoko beste ekimen batzuen bidez eta komunitatean oinarritutako prebentzio-neurrien bidez banatzea, bereziki emakumeen gutxiagotasun-nozioak deseraikitzen dituzten eta genero-harreman berrietan (beheko genero-harremanak) txertatzea helburu duten neurrien bidez.

Horrez gain, GREVIOk kezka ikusten du bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeriari buruzko egungo ikuspegia oso txikia izan dela emakumearen aurkako indarkeria-motetik (emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontza, jazarpena edo sexu-indarkeria) kontzientziazio-maila oso baxuetan<sup>41</sup>.

GREVIOk eskualde mailan egiten ari diren ahaleginak baloratzen ditu, bereziki delituen egile gazteei zuzendutakoak, besteak beste, teknologiaren bidez egindako abusu eta kontrolaren inguruan, espioitza-softwarea instalatuz eta «sextorsioa» errazten duen softwarea instalatuz adibidez<sup>42</sup>.

Badira, halaber, gizarte zibilaren kanpainak eta sentsibilizazio-ahaleginak, batez ere bikotearen eta bikote ohiaren eremuko indarkeria telematikoari buruzkoak. Kanpaina horien helburua da gazteei aukera ematea abusuaren lehen zantzuak identifikatzeko eta horien aurrean erreakzionatzeko (bikoteak gailu mugikorrek edo sare sozialak kontrolatzen dituenean gertatzen den bezala)<sup>43</sup>, bai eta nerabeen artean sexu-indarkeria ere lantzen duten etorkizun handiko ekimen batzuk ere<sup>44</sup>.

Nolanahi ere, badirudi saiakera horiek magnitude eta irismen geografiko mugatua dutela; ikuspegian, finantzaketan eta eraginkortasun orokorrean aldakorrak izanik, oro har. Azalean geratzen den egoera, beraz, zatiketa egoera bat da. Ahalegin gehiago egin behar dira sentsibilizazio-ekimenek Espainiako eskualde guztietako indarkeria-mota guztien berri sistematikoki ematen dutela bermatzeko.

---

<sup>39</sup> Cepeda I., "Fighting Prejudice: Campaigns on Gender Violence in Spain", *Journal of International Women's Studies*, Vol. 19, Nº 6, 2018, Table 2: Public expenditure on publicity against violence against women (2007-2015).

<sup>40</sup> *Ibid.*, 22-26. Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorenaren (CIS) Ikerketa Soziojuridikoen Zentroko espainiarren hileko barometroaren arabera, bikoteak edo bikote ohiak emakumearen aurka erabiltako indarkeria oso txikia da, eta sentsibilizazio-kanpainetako gastu publikoaren mailarekin zerikusirik ez du.

<sup>41</sup> 2018an, Genero Indarkeriaren Aurkako Gobernuaren Ordezkaritzak sexu-indarkeriaren aurkako kanpaina bat abiarazi zuen, #SomosUna traolarekin, baita nerabeei zuzendutako kanpaina bat ere, #Puesnolohagas traolarekin.

<sup>42</sup> NBEko Errelatore Bereziak emakumeen aurkako indarkeriaren dimentsio digitalari buruz egindako txostenean azaltzen den bezala, 16. paragrafoak, «sextorsioa» izenekoak, biktima bati xantaia egiteko IKTak erabiltzea aipatzen du; kasu horietan, erasotzaileak mehatxatzen du biktimaren material intimoa (argazkiak, bideoak, sexu-ekintzak edo bestelako sexu esplizitua) ezagutaraziko duela biktima estorsionatzeko. Txostenak ere lotutako beste terminologia baten erabilera ere aztertzen du («ziberindarkeria», «indarkeria digitala», «indarkeria online») eta «IKT bidezko emakumeen aurkako indarkeria» terminoa erabiltzea proposatzen du inklusiboagoa delako, edo «indarkeria online» erabiltzeko errazagoa delako. Ikus «Report of the Special Rapporteur on violence against women, its causes and consequences, on online violence against women and girls from a human rights- based perspective», 2018ko ekainaren 14a.

<sup>43</sup> Ikus, adibidez, «Diez formas de violencia de género digital» kanpaina, 2017an Asociación Pantallas Amigas-ek egindakoa eta Espainian Twitter bidez babestutakoa.

<sup>44</sup> Extremadurako Autonomia Erkidegotik hartutako eredia, Espainiako estatuaren txostena GREVIOri, 83. or.



**GRTEVIOk** Espainiako agintariei eskatzen die emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko sentsibilizazioa gehiago sustatzeko, Istanbulgo Hitzarmenak barne hartzen dituen indarkeria guztiak kontuan hartuz, bereziki indarkeria sexuala eta digitala. Horretarako, emakumeei laguntza-zerbitzu espezializatuak eskaintzen dizkien elkarteekin lan eginez, eta baita oinarri komunitarioko erakundeekin eta komunikabideekin ere.

### **C. HEZKUNTZA (14. ARTIKULUA)**

Hautemateak, sinesmenak eta portaera patrioak bizitzako etapa goiztiarrenetan osatzen dira. Hortaz, hezkuntza-zentroek eginkizun garrantzitsua dute emakume eta gizonen arteko berdintasunaren eta giza eskubideen sustapenean. Horregatik, 14. artikulua emakume eta gizonen arteko berdintasuna, estereotipatu gabeko genero rola, elkarrekiko errespetua, indarkeriarik gabeko gatazken ebazpena pertsonen arteko harremanetan, integritate pertsonalerako eskubidea eta generoan oinarritutako emakumearen aurkako indarkeria heltzea sustatzen dituzten material didaktikoen diseinuak eskatzen ditu.

Espanian, komunitate-erkidegoek hezkuntza eskumenak izan arren, 8/2013 Lege Organikoak Hezkuntza Kalitatea Hobetzeko hezkuntza marko komuna ezartzen du. Lege honek aurreikusten du eskolan gizon eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra sustatzen duten balioak garatzea eta genero-indarkeria prebenitzea printzipio gidari gisa (2 l artikulua). Horren harira, Lehen Hezkuntzako helburuetako bat ikasleek indarkeriari, aurreiritziei eta estereotipo sexistei dagokienez jarrera kritikoa garatzea da (17 m artikulua) eta Bigarren Hezkuntzako, aldiz, ikasleak estereotipo diskriminatzaileak ukatzera daramatzen gaitasunak garatzea (23c artikulua).

Hezkuntza sistemak, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Lege Organikoak ezartzen duenarekin bat etorriz, hezkuntzari buruzko kapitulu bat duenak (I. Kapituluak), emakumearenganako errespetua eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen dituzten balioak irakasteko betebeharra du eta haien eskolarizazioan zehar ikasleek gatazkak modu baketsuan ebazteko eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna defendatzeko trebetasun eta gaitasunak garatu behar dituztela (4. artikulua) ezartzen du.

GREVIOk marko legal hau positiboki baloratzen duen arren, haren preskripzioak ez dira Hitzarmeneko 14. artikuluan identifikatutako gaiei buruzko material didaktikoa txeratzeari islatu derrigorrezko hezkuntzako sistemaren barruko ikasketa formalen planetan. Bigarren Hezkuntzan ikasleak «Erljioa» irakasgaia egin beharrean «Balio Sozial eta Zibikoak» irakasgaia egin dezakete, zeinak genero berdintasun eta genero-indarkeriari buruzko edukia izan dezakeen, hala ere irakasgai honetan matrikulatutako ikasle proportzioa eta heren inpaktua ebaluatzeko datuak falta dira.

GREVIOk adierazi du «Balio Sozial eta Zibikoak» hautazko irakasgaia izanik, ez duela Bigarren Hezkuntzako ikasle guztietara heltzeko potentziala. Genero berdintasuna, pertsona arteko harremanetan elkarren arteko errespetua eta indarkeria eza sustatzen duen material didaktikoa komunitate-erkidego bakoitzean ezberdina da. Komunitate-erkidego batzuek eskoletan berdintasun planak martxan jartzen dituzte, genero-indarkeriari buruzko ikastaro eta tailerrak ematen dituzte edo prebentzio-kanpainak antolatzen dituzte.

Bestalde, ikastetxeetako hezitzaile eta langileen hasierako eta etengabeko prestakuntza autonomia-erkidegoen eskumena izanik, irakasle guztiek ez dute prestakuntza jaso eta jaso dutenek iraupen eta mota ezberdinetakoak jaso dituzte. Honek, irakasgai hauek eman ahal izateko beharrezko gaitasunak dituzten Espainia guztiko irakasleak ebaluatzea zailtzen du.

Hala ere, GREVIOk txalotu egiten du hezkuntza-administrazioek bizitza pertsonalaren, familiarraren eta sozialaren eremu guztietan gatazkak prebenitzeko eta modu baketsuan konpontzeko hezkuntza bat zeharka sartzeko duten betebeharra, bai eta genero-indarkeriaren prebentziorako beharrezkoak diren demokraziaren eta giza eskubideen oinarri diren balioena ere ».

Hezkuntza materialari dagokionez, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien

1/2004 Lege Organikoak hezkuntza-agintariek hezkuntza material guztietatik estereotipo sexista edo diskriminatzaileak ezabatzeaz (6. artikulua) arduratu behar direla ezartzen du eta hau positiboki baloratzen du GREVIOk. Gainera, Genero Indarkeriaren Gobernuaren Ordezkaritzaren Bulegoak hezkuntza eta nerabe eremuetan genero-indarkeriaren prebentziorako materialak jarri zituen erabilgai, besteak beste, nerabeen arteko abusuzko harremana deskibatzen duen komikia, informazio-liburuxkak eta gidaliburudun film laburrak nerabeek harreman bateko lehen abusu seinaleez hitz egin dezaten. Maila autonomikoan material hauen erabilpenaren jarraipena egiten ari dela dirudi, haren inpaktua zehazteke dagoen arren.

GREVIOk adierazi du sexu-heziketa ez dela ikasketa plan formalen parte. Beste irakasgai batzuetan lantzen denean, badirudi arreta sexualitatearen alderdi biologikoetan jartzen dela, adostasunaren, elkarrekiko errespetuaren eta genero-estereotipoek harremanetan duten eraginaren nozioan baino gehiago.

GREVIOk jakin badaki nolabaiteko kezka dagoela eskolan sexu-heziketarik ez egotearen inguruan, eta, horren ondorioz, gazteek sexu-izaerako edukietara jotzen dute Interneten eta beste leku batzuetan, eta horrek, kasu askotan, jokabide sexista eta genero-estereotipoak betikitzen ditu. GREVIO kontziente da gaur egun Espainian sexu-heziketaren erreforma egiten ari dela eta guzti hori behar bezala gizarteratzea espero du.

Irakasleek funtsezko zeregina dute indarkeriaren biktimia izan daitezkeen haurrak identifikatzeko. Ildo horretatik, GREVIOk positiboki baloratzen du, hezkuntza-administrazioek duten betebeharrak legala irakasleek familia alorreko indarkeria goiztiarra hautemateko ezagutzak eta teknikak jasotzeko formakuntza izan dezaten bermatzeko (1/2004 Lege Organikoa, 7c artikulua). Gainera, agintari autonomiko batzuk eskolak genero-indarkeriaren biktimia diren haurrak identifikatzeko eskaintzen duen potentziala modu aktiboan aprobetxatzen ari dira, eta horrek barnean hartzen ditu emakumeen genitalen mutilazioa<sup>45</sup> jasateko arriskuan dauden neskek.

**Hezkuntza-sistemaren helburuetako bat genero-berdintasuna bihurtzen duen Espainiako legerreferentziatzat hartuta, GREVIOk gonbita egiten die Espainiako agintariei, ahaleginak egin ditzaten ikasleei Istanbulgo Hitzarmenaren 14. artikuluan identifikatutako gaiei lotutako ezagutzak eta trebetasunak emateko.**

#### **D. PROFESIONALEN PRESTAKUNTZA (15. ARTIKULUA)**

Hitzarmeneko 15. artikuluan edozein indarkeria ekintzaren biktimia edo erasotzaileak artatzen dituzten oinarrizko eta etenbako prestakuntzaren izaera sistematikoa ezartzen da. Prestakuntzak indarkeria honen prebentzioa eta hautematea, emakume eta gizonen arteko berdintasuna, biktimen behar eta eskubideak eta bigarren mailako biktimizazioaren prebentzioa barne hartu behar ditu. GREVIOk egindako galdetegiak, bertan atxikitutako koadroan, GREVIOren ustez garrantzitsuak diren eta prestakuntza hau behar duten profesional taldeak zerrendatzen ditu<sup>46</sup>.

GREVIOk positiboki baloratzen du Espainian, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoak administrazio eta organo publikoetako langileentzat emakume eta gizonen arteko harreman berdintasunari eta bikote edo bikote ohiaren indarkeriaren prebentzioari buruzko prestakuntza ikastaroak ematea aurreikustea. Baina kezkarria deritza, ebaluazio-bisitan zehar jasotako informazioak ezagutzera eman dituela lanbide ezberdinetako profesionalak praktikan jasotzen dituzten prestakuntza mailen ezberdintasunak.

<sup>45</sup> Ikus, adibidez, Genero Indarkeriaren aurrean Osasun Jarduketarako Andaluziako Protokoloa, genero-indarkeriaren biktimia diren adingabeekin edo emakumeen genitalen mutilazioa jasateko arriskuan dauden neskekin kontaktuan dauden profesionalai, irakasleak barne, jarduteko jarraibide homogeneoak emateko helburua duena. Hemen eskuragarri: [www.juntadeandalucia.es/export/drupaljda/salud\\_5af95874e02ad\\_protocolo\\_violencia\\_genero.pdf](http://www.juntadeandalucia.es/export/drupaljda/salud_5af95874e02ad_protocolo_violencia_genero.pdf), p. 66 y p. 106.

<sup>46</sup> Hauek dira, besteak beste, polizia-agentek eta segurtasun indar eta kidegoko beste ofizial batzuk, fiskalak, epaileak, gizarte-langileak, medikuak, erizainak eta emaginak, psikologoak eta psikoterapeutak, Atzerritartasun saileko funtzionarioak, irakasleak eta eskola-administratzaileak, kazetariak eta komunikabideetako beste profesional batzuk eta zerbitzuan dauden gizon eta emakumeak.

Prestakuntza heterogeneoa jasotzen duen profesional talde bat, GREVIOk behatutakoaren arabera, botere judiziala da. Adibidez, Eskola Judizialak oinarritzko prestakuntza ikastaro batzuk eskaintzen ditu emakumearen aurkako indarkeriari buruzko edukiarekin, prestakuntzan dauden epaileei zuzenduta. GREVIOk adierazten du, halaber, 5/2018 Lege Organikoak aldatutako Botere Judizialaren Lege Organikoak orain xedatzen duela karrera judizialean eta fiskalean sartzeko eta mailaz igotzeko hautaketa-proba guztiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioari heltzea eduki gisa, emakumearen indarkeriaren aurkako neurriak barne eta neurri horiek jurisdikzio-funtzioaren esparruan aplikatzea, bai eta legea genero-ikuspegiarekin interpretatzea eta aplikatzea ere (310. artikulua).

Nahiz eta GREVIOk positibotzat jotzen duen 2019an bai Eskola Judizialeko prestakuntzan bai hautaprobetarako onartutako ikasketa-planean genero-estereotipoak, babes-neurriak, bikotearen edo bikote ohiaren indarkeria, sexu-jazarpena eta emakumeen genitalen mutilazioa bezalako gaiak sartzea, adierazi du sexu-indarkeriaren arloko prestakuntza duela gutxi baino ez dela indartu.

Aipatzeko da, fiskal eta funtzionario publikoak trebatzeko egiten ari diren ahaleginak, baina ez da modu sistematikoan eskaintzen, hala nola, trauma osteko estresaren nahasmenduari eta epaiketa batean lekuko gisa deklaratzeko orduan haren inpaktuari buruzko epaileak trebatzeko ikastaroetan. Bestalde, auzitegi-medikuei eskainitako prestakuntza-maila, bortxaketa eta sexu-eraso ez-intrusibo eta sentikorren frogen dokumentazioan funtsezkoa baita, oso desberdina da kasuaren arabera, eta autonomia-erkidego batzuek ez dute inolako prestakuntzarik eskaintzen<sup>47</sup>.

Etengabeko formakuntzari dagokionez, Justizia Zerbitzu Publikoarentzako Zuzendaritza Orokorra 2018 eta 2019an genero-indarkeriari buruzko diziplina anitzeko tailerrak antolatu zituen, justizia administrazioarekin lotutako profesional ugari bilduz, hala nola, fiskalak, abokatuak, auzitegiko medikuak, psikologoak, gizarte-langileak eta Delitu Bortitzen Biktimen Laguntza Bulegoetako langileak.

Tailer hauen helburua profesionalen marko legalari eta laguntza-zerbitzuei erabilgarriei buruzko ezagutza hobetzea zen eta aldi berean, genero-indarkeriaren inguruan sentsibilizatzea zuzeneko testigantzen bitartez. Gai asko barne hartzen dituzte: sexu-indarkeria, emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontzak, bigarren mailako biktimizazioa, adingabeak, desgaitasuna daukaten emakumeak, emakume migratzaileak, adineko andreak eta sexu-indarkeria diren transgenero eta transexualak. GREVIOk prestakuntza-ekimen horiek guztiak ospatzen ditu, profesionalak sexu-indarkeriaren arloan duten prestakuntza hobetzeko duten potentziala dela-eta, eta, horrela, alde interesdunen arteko ezagutza-trukea indartzen da.

Era berean, bikote edo bikote ohiaren alorreko indarkeriari buruzko online ikastaroak eskaintzen dira epaileen lanbide-heziketarako. GREVIOk positiboki baloratzen du Europako Kontseiluaren HELP Programak (Zuzenbideko Profesionalen Prestakuntza Giza Eskubideetan) garatutako emakumeen aurkako eta etxeko indarkeriari buruzko ikastaro birtuala sartzeko diren epaile guztientzako derrigorrezkoa izatearen iragarpena. Gainera, 5/2018 Lege Organikoaren arabera, genero-aurreiritziei eta -estereotipoari buruzko prestakuntzan arrakastaz parte hartzea ezinbestekoa da arlo horretan espezializatzeke (312. artikulua).

Nahiz eta GREVIOk positiboki baloratzen duen legezko ebazpen garrantzitsu hori, kezka ikusten du, hala ere, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko zerbitzuan prestakuntza hautazkoa dela emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako epaitegietan parte hartu nahi ez duten epaileentzat.

Prestakuntza osagarria derrigorrezkoa da bikote edo bikote ohiak gauzatutako indarkerian espezializatutako zigor-epaitegietan edo gai honetan espezializatutako sail penal edo zibiletan lan egiten duten Botere Judizialeko kideentzako. Epaile hauek lan egiteko emakumearen aurkako

---

<sup>47</sup> Amnistía Internacional, España (2018), "Ya es hora de que me creas". Un sistema que cuestiona y desprotege a las víctimas». Egikaritze-laburpena ingelesez, 4. 4.

indarkeriari buruzko prestakuntza jasotzeko betebeharra dute, epaitegietan egiten diren prestakuntza jardunaldiak ikasketa indibidual telematikoarekin konbinatuz.

Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko eskumena soilik ez duten epaitegietako epaileek ere ikastaro hauetan parte-hartzeko aukera dute. Hala ere, GREVIOk kezka ikusten du, legeak botere judizialaren eraketan egiten duen enfasia gorabehera, ebazpen judizialek, baita emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako epaitegietakoek ere, agerian uzten dutela nolabaiteko ezjakintasuna abusuaren, genero-aurreiritzien eta biktimen babesaren dinamikari buruz zaintza ezartzerakoan.

**Nahiz eta GREVIOk onartzen duen botere judizialaren eraketa legez emanda dagoela, GREVIOk biziki animatzen ditu Espainiako agintariak gaur egun botere judizialari zuzenduta dagoen prestakuntza-eskaintza ebalua dezaten, haren eraginkortasuna hobetzeko. GREVIOk agintariei eskatzen die berma dezatela trebakuntza horrek Istanbulgo Hitzarmenean jasotako emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak jorratzen dituela, bereziki sexu-indarkeria, bai eta bikotearen edo bikote ohiaren eremuan indarkeria biltzen duten dinamika psikologikoak, banantze baten osteko indarkeria, indarkeriak haurrengan (biktimak eta lekukoak) dituen ondorioak eta bigarren mailako biktimizazioaren prebentzioa ere.**

Osasunaren sektorearekin zerikusia duten hainbat lanbidek jaso dezakete Genero-indarkeriaren aurrean osasun-arloan jarduteko protokolo erkideari buruzko prestakuntza. Protokolo horrek onartzen du bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeria osasun publikoko arazoa dela, eta esku-hartze estandarizatuak ezartzen ditu indarkeria-mota horrekin lotuta.

GREVIOk modu positiboan balioesten du Espainiako agintariek erakutsi duten erabakia, hau da, etengabe hobetzen duela esku-hartze medikoen kalitatea eta bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeriaren eraginpean dauden emakumeei ematen zaien laguntza. Alderdi hori agerikoa da erizaintzako oinarrizko prestakuntza-programa guztien % 80k genero-indarkeriari buruzko moduluak dituztela erreferentziatzen hartzen bada<sup>48</sup>.

Hala ere, ez da hain agerikoa prestakuntza-programa horiek zer neurritan lantzen dituzten bikotearen edo bikote ohiaren indarkeriaz haraindiko gaiak, edo zergatik geratzen diren gainerako % 20 horrelako prestakuntza-eremutik kanpo.

Modu berean, GREVIO kontziente da Espainiako osasun-langile guztiek ez dutela bikoteak edo bikote ohiak gauzatutako indarkeriari buruzko prestakuntza jasotzen. Osasun arloko profesional asko ez daude gai horri modu koordinatuan heltzeko prest, baina baita emozio- eta kultura-arloei dagokienez ere. Honek bereziki Espainiako emakume ijitoei eragiten die, polizian edo gizarte zerbitzuetan baino osasuneko lehen mailako arretako zerbitzuetan bilatzen baitute sostengua.

Hala eta guztiz ere, ijito-komunitateko emakume askok ikusten dute eskaintako irtenbideak ez datozela bat haien beharrekin, batez ere osasun-arloko profesionalengan konfiantzarik ez dutelako, haien artean bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeriaren inguruko prestakuntzarik ez dutelako eta emakume ijitoen kalteberatasun handiagoaren eta haien kultura-egoera espezifikoaren arteko elkargunea delako<sup>49</sup>.

Segurtasun indar eta kidegoko agenteek zerbitzura sartzen diren unean eta zerbitzuan daudenean formakuntza jasotzen dute. Esaterako, Guardia Zibileko agente guztiek kidegora sartzean genero-indarkeriari buruzko prestakuntza jasotzen dute eta beste 54 agentek alor honetan espezializatutako prestakuntza jasotzen dute urtero. Polizia nazionalako kideek 30 orduko iraupena duen online prestakuntza ikastaroan izena eman dezakete eta agintarien arabera, berriki formakuntza honetan 10.000 agentek hartu dute parte.

---

<sup>48</sup> Maquibar A., Estalella I., Vives-Cases C., Hurtig AK. y Goicolea I., "Analysing training in gender-based violence for undergraduate nursing in Spain: A mixed -methods study", 2018.

<sup>49</sup> Vives-Cases C., Goicolea I., Hernandez A., Sanz-Barbero B., Davó-Blanes C. y La Parra-Casado D. (2017), "Priorities and strategies for improving Roma women's Access to primary health care services in cases of intimate partner violence: a concept mapping study", *International Journal for Equity in Health*, Volumen 16, 2017.

Gainera, 405 ofizialek osatu zuten kurtso presentziala 901 egunetan. Segurtasun indar eta kidegoko agenteek ere modu orokorrean genero berdintasunari buruzko prestakuntza jasotzen dute. Guardia Zibileko agenteek gauza bera egiten dute Guardia Zibileko Ofizialen Akademiak eskaintako ikastaroen, ikastaro birtualen edo urtero egiten diren Berdintasun Jardunaldien bidez.

Ez dago ebidentziarik genero-berdintasunean trebatutako agenteen ehunekoari buruz emandako informazioan oinarrituta, hau da, emakumearen aurkako indarkeriaren adierazpen desberdinetan (telematika barne), eta eskura dagoen prestakuntza nahitaezkoa edo aukerakoa den.

Esparru akademikoan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan ezagutza-maila handiagoa garatzeko interesaren zati gisa, Espainiako unibertsitate askok emakumeen aurkako indarkeria aztertzeraz berariaz bideratutako graduondoko programak sartu dituzte, eta GREVIOk positibotzat jotzen du alderdi hori<sup>50</sup>.

Hala ere, graduoko karrerek, zuzenbidekoek barne, ez diote heltzen emakumearen aurkako indarkeria-moten azterketari, ez eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari ere. GREVIOk positibotzat jotzen du Espainiako abokatuen elkargoek Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoan espezializatutako profesionalen zerrendak eskaintzen dituztela, baina GREVIO kezkarria iruditzen zaio Espainian lanbide horretako kideek sexu-indarkeriarekin lotutako sistema edo espezializazio-maila konparagarriak ez izatea.

Istanbulgo Hitzarmenaren ezarpenean inplikaturako profesional kopuru handiaren trebakuntzaren maila eta kalitatea modu integralean ebaluatzea zaila bada ere, GREVIOk positibotzat jotzen du Espainiako agintaritzak zentralak Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioarekin (FEMP) lankidetzahalegin bereziak egiten ari zela, landa-eremuetan tokiko gobernuetako langileek, bereziki 20.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietan<sup>51</sup>.

**GREVIOk Espainiako agintariei eskatzen die segurtasun indar eta kidego, erizain eta osasuneko beste lanbideen bezalako profesional taldeen prestakuntza ahaleginak areagotzea, baita herrialde guztiko irakasleena ere, emakumeen aurkako indarkeria mota ezberdinei, indarkeria hau hautemateari, bigarren mailako biktimizazioari eta emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko - dimentsio telematika barne - derrigorrezko moduluak txertatuz oinarritzko ikaskuntzan eta etengabeko prestakuntzan.**

## **E. ESKU-HARTZE ETA TRATAMENDU PREBENTZIO-PROGRAMAK (16. ARTIKULUA)**

### **1. Erasotzaileentzako programak etxeko indarkeriaren alorrean**

Espainian erasotzaileei zuzendutako etxeko indarkeriaren alorreko hainbat programa boluntario eta derrigorrezko daude. Barne Ministerioaren Espetxe Erakundearen Idazkaritza Nagusia (EEIN) askatasun pribatiboko eta ez pribatiboko bi programen inplementazioaz arduratzen da, bikote ohi edo bikote barruan gauzatutako emakumeen aurkako indarkeria delituak egin dituzten gizonei zuzenduta.

Programa hauek lurralde guztietan aplikatzen dira Katalunian izan ezik, zigor-alorrean bere autonomia-eskumena mantentzen duelako. Gainera, zigor- eta epai-sistemetatik kanpo dauden gizarte zibileko erakundeek zuzenean administratzen dituzte beste programa boluntario komunitario batzuk.

Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Lege Organikoaren 42. artikulua Espetxe-administrazioak bikote edo bikote-ohiaren indarkeriagatik kondenatutako pertsona guztientzako programak ematea arautzen duten lege-oinarriak biltzen ditu. Borondatezko programa hauek 2000ko hamarkadaren hasieran sortu ziren, eta 2010ean «PRIA» izeneko programa bihurtzeko

---

<sup>50</sup>Ikus, adibidez, Valentiako Unibertsitateak eskaintzen duen Zuzenbidea eta Genero Indarkeria Masterra, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseak eskaintzen duen Genero Indarkeria: prebentzioa eta esku-hartzea hainbat arlo profesionalean diziplinarteko masterra, eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoak eskaintzen duen Gizonezkoen Indarkeriari buruzko Graduondoko Programa.

<sup>51</sup> Espainiako estatuaren txostena GREVIOri, 98 orr. 3. Eranskinari informazio gehigarria.

bateratu ziren. Zigorrek eta Neurri Alternatiboak Kudeatzeko Zerbitzuak garatu zuen PRIA eta 2017an 49 zaintza zentrotan jarri zen martxan<sup>52</sup>.

25 talde-saioetan banatuta, sei hileko epean, esku-hartze kognitibo-konduktual bat eskaintzen du, genero-ikuspegitik abiatuta, arriskuen ebaluazioko prozedurekin batera. 2018an, bikote barruan emakumeen aurkako indarkeria gauzatzeagatik zigortutako 3.940 gizonetatik 500 bertaratu ziren<sup>53</sup>.

Zigorren eta beste neurri batzuen kudeaketa zerbitzuko profesionalen presoen partaidetza sustatzea da xedea, haiekin egunez egun elkarreraginez, eta laguntzarako banakako bideak sortzen laguntzea - itxuraz ikuspegi eraginkorra, preso gehienek izena borondatez eman izanak agerian uzten duen moduan<sup>54</sup>.

Aldiz, 2010ean, uzte-tasa altuek nolabaiteko kezka eragin zuten, izena eman zuten presoen heren batek ez baitzuen osatu PRIA programa une hartan<sup>55</sup>. Uztearen ondoren, arrazoi nagusiak nahita uztea, espetxetik irtetea eta beste espetxe batera eramatea izan ziren. Agintarien ustetan, programa horien efikazia azken aldian areagotu da.

GREVIOk gogoratzen du programa bukatzen duten presoen kopurua maximizatzea esku-hartze eraginkorra sustatu dezakeen elementua dela<sup>56</sup>. Hori lortzeko, hasierako hautaketako prozedura arduratsuagoak erabil daitezke, izen-ematea eragiten duten faktoreak ebaluatzeko, bai eta gizonen parte hartzea eta indarkeriazko ekintzen erantzukizuna beren gain hartzeko duten jarrera sustatzeko jarduerak ere. GREVIOk programa horien eraginkortasuna ebaluatu beharra ere nabarmentzen du.

Zaintza arloetako programez gain, 2010ean, PRIA-MA programa garatu zen zigor neurri alternatibo batera kondenatutako erasotzaileentzat. SGIP-ren Zigorrek eta Neurri Alternatiboak Kudeatzeko Zerbitzuen, GKE batzuen eta gizarte zerbitzuen arteko lankidetzaren bitartez kudeatzen da (ikus beherago). 10 hilabeteko programa honek genero-erabakidetzaren sentibera den ikuspegi soziokognitiboan oinarritzen den taldekako eta bakarkako saioetan datza, arriskuen ebaluazioaren prozedura bat ere barne hartzen duena. 2015ean eguneratu zen genero ikuspegi transbertsalagoa emateko.

Ikerketa baten arabera, PRIA-MAn parte hartu duten % 6,8k bakarrik egin dute berriz delitua programa bukatu eta hurrengo bost urteetan<sup>57</sup>. Baina, GREVIOren arabera, espetxearen neurri alternatibo bateko zigorra zuten bikotearen edo bikote-ohiaren indarkeria erabili zutenen heren bat baino gutxiago behartu zituen epaileak PRIA-MAn parte hartzera, zerbitzu komunitario gisako zigorra ezarri zieten gehiengoaren aldean<sup>58</sup>.

Horrek ere erasotzaileek berreziketa-programetan parte hartzea eska badezake ere, baita sexu-hezkuntzako programetan ere, eta GREVIOk positiboki baloratzen du alderdi hori, ez dakigu Istanbulgo Hitzarmenean jasotako indarkeria-mota desberdinen egileek zenbateraino duten laguntza emateko agindu judiziala.

Bestalde, GREVIOk 2010 eta 2019 artean EEINen eta gizarte zibileko erakundeen lankidetzarekin 28 hitzarmen sinatu zirela nabarmentzen du PRIA-MA programen inplementazioa ziurtatzeko, espetxe erakunde ezberdinen gizarte zerbitzuen bitartez edo zuzenean gizarte zibileko erakundeen bitartez.

---

<sup>52</sup> Kotsultatu GREVIOri Espainiako estatuaren txostena.

<sup>53</sup> Europapress, «Unos 9.000 condenados por violencia de género cursaron programas de reeducación en 2018, [en torno al 30% de los penados](http://www.europapress.es/epsocial/igualdad/n_oticia-9000-condenados-violencia-genero-cursaron-programas-reeducacion-2018-torno-30-penados-20190811130800.html)», Madrid, 2019, disponible en [http://www.europapress.es/epsocial/igualdad/n\\_oticia-9000-condenados-violencia-genero-cursaron-programas-reeducacion-2018-torno-30-penados-20190811130800.html](http://www.europapress.es/epsocial/igualdad/n_oticia-9000-condenados-violencia-genero-cursaron-programas-reeducacion-2018-torno-30-penados-20190811130800.html)

<sup>54</sup> Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusiak (2010), Genero delitugilea espetxean. Ezaugarri pertsonalen eta kriminologikoen ikerketa, eta esku-hartzea espetxeetan. Madril: Barne Ministerioa, hemen eskuragarri: [www.interior.gob.es/web/archivos-y-documentacion/documentacion-y-publicaciones/publicaciones\\_descargables/instituciones-penitenciarias](http://www.interior.gob.es/web/archivos-y-documentacion/documentacion-y-publicaciones/publicaciones_descargables/instituciones-penitenciarias).

<sup>55</sup> Ibídem.

<sup>56</sup> Etxeko indarkeria eta sexu indarkeria egiten dutenentzako programak: Istanbulgo Hitzarmenaren 16. artikulua, Europako Kontseilua, Estrasburgo, 2014, hemen eskuragarri <https://rm.coe.int/168046e1f2.v>.

<sup>57</sup> Pérez Ramírez M., Giménez-Salinas A. y Juan Espinosa M. (2018), «Reincidencia de los agresores de pareja en Penas y Medidas Alternativas», *Revista de estudios penitenciarios*, nº 261, págs. 49-79.

<sup>58</sup> 2018an, bikotearen eremuan erabilitako indarkeriaren 29.120 egileetatik, 9.110 baino ez zituzten behartu PRIA-MA programan parte hartzera.

Hitzarmen hauek emakumeen GKE, erlijio- erakunde eta unibertsitateekin egindako printzipio eta mandatu ezberdinetako oinarriari buruzko akordioak barne hartzen dituzte. SGIP-ek aplikatutako hautapen irizpideak oraindik ez daude argi.

GREVIOk gogorarazi du programa horiek bideratzaile prestatuak behar dituztela, etxeko indarkeriaren generoaren eragina ulertzeko eta erasotzaileen profil desberdinekin tratatzeko beharrezko trebetasunak izateko.

GREVIOk positibotzat jo du PRIA-MA zuzentzen duten eragile garrantzitsuek osatutako Zigorren eta Neurri Alternatiboen Batzordea sortzea, programak eskualde guztietan homogeneoki inplementatuko direla ziurtatzeko.

Dena den, PRIA-MA programara doazen erasotzaile kopuruari dagokionez, eskualdeen artean ezberdintasunak daude oraindik<sup>59</sup>. Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunak (127. neurria) arazo hauek, generoa kontuan hartzen duten etxeko indarkeria gauzatu dutenei zuzendutako programen, espetxe eta erakunde judizial garrantzitsuen lankidetzaz hobetzearen eta programa hauetan lan egiten duten profesionalen prestakuntza indartzeko beharrezko bitartez lantzeko asmoa du.

Badaude programa osagarriak, ENCUENTRO programa kasu, epailearen aginduz garatu zena. Etxeko indarkeria delituen zigor-erregimen alternatibo baten parte da, esate baterako, belaunaldi arteko indarkeriena eta emakumeak gauzatutako etxeko indarkeriena, LGBTI emakumeen aurkako sexu bereko bikote barruko indarkeria barne. Gainera, presoentzako PICOVI borondatezko programa orotako jokabide bortitza izan duten pertsonen dago zuzenduta, etxeko indarkeria barne. Gutxi dira etxeko indarkeria erabiltzen dutenek borondatez parte hartzeko eskaintzen diren erkidegoen programak. Arrazoiak ekonomikoak dira nagusiki, halako prebentzio lan honentzat eskuragarri dagoen finantzazio eskasa dela eta<sup>60</sup>.

Azkenik, GREVIO kezkatuta dago aurretik aipatutako moduko programa gutxi daudelako, haien helburu nagusia biktimei segurtasuna, babesa eta giza eskubideak bermatzea direnak. Eta bestalde, ez dira emakumeen laguntza-zerbitzu espezializatuekin lankidetzan ezarri, Istanbulgo Hitzarmenaren 16.3 artikulua eskatzen duen bezala<sup>61</sup>.

**Espanian etxeko indarkeriaren arloan erasotzaileentzat dauden programen balorazio positiboa oinarri hartuta, GREVIOk gogor animatu ditu Espainiako agintariak Istanbulgo Hitzarmenaren 16.3 artikulua hobeto betetzeko lan egin dezaten. Alde batetik, etxeko indarkeriaren eremuan erasotzaileei zuzendutako zaintzapean dauden eta askatasunaz gabetzen ez diren programa guztiak gehiago inplementatuko direla ziurtatzea, emakumeentzako laguntza-zerbitzu espezializatuekin lankidetzaz estuan, eta, bestetik, dagoeneko ezarritako programa guztiak baloratzea, haien eragina balioestea ahalbidetzen duten arau metodologiko estandarizatuekin bat etorritik.**

## **2. Sexu erasotzaileentzako programak**

**Espanian** 2006an sortu zen sexu-erasoak kontrolatzera bideratutako programa (PCAS) emakume eta haurren aurka sexu-indarkeria gauzatzearen ondorioz zigortuak izan direnei zuzenduta dago, askatasuna kentzen duten zigorrekin eta kentzen ez dutenekin. Espainiako agintarien arabera, 2017an PCAS programan 441 gizonetzko presok eta zigor alternatiboeara kondenatutako 267 gizonen hartu zuten parte. Ikuspegi soziokognitibora egokituta, programak honek erasotzaileei haien ekintzen erantzukizuna hartzen laguntzen die, berriro eror ez daitezten. Arriskuaren ebaluazio prozedura ere hartzen du barne. Programak sei hilabetetik bi urtera irauten ditu, berriz erortzeko balioetsitako arriskuaren arabera. Ikertzaileek ondorioztatu dute PCAS programetan parte hartu zutenen sexu delitugileen berrerotze-tasa % 4 ingurukoa izan zela<sup>62</sup>.

<sup>59</sup> Ikus Espainiako estatuaren txostena GREVIOri, 5. Eranskina.

<sup>60</sup> Work with perpetrators, European Network, National Report Spain 2016, p. 4

<sup>61</sup> *Ibid.*, Pág. 7.

<sup>62</sup> Redondo S. eta Mangot A. (2017), «Génesis delictiva y tratamiento de los agresores sexuales: una revisión científica», *Revista Electronica de Ciencias Crimnológicas*, 2. zk., hemen eskuragarri:

Gaur egungo PCASak bere modulu bakar batean baino ez du txertatzen genero-ikuspegia, eta modulu horrek «distortsio kognitiboa» du hizpide. GREVIOk gogorarazi du beharrezkoa dela bermatzea sexu-delitugileentzako programek bat egiten dutela ezagutzen diren jardunbide onenekin, emakumeen aurkako indarkeria genero-ikuspegitik ulertuta. Horrenbestez, GREVIOk positibotzat jo du sexu-erasoak kontrolatzeko programako modulu guztietan genero-ikuspegia txertatzeko agindua duen lantalde bat sortzea<sup>63</sup>.

Eskualde eta tokiko mailan, sexu-erasoak gauzatu dituztenei zuzendutako programak ezarri dituzte. Madrilgo Erkidegoan Sexu Delitugile Gazteentzako Hezkuntza eta Terapia Tratamendurako Programa jarri da abian, sexu-delitugile gazteak gizarteratzen laguntzeko.

Bartzelonan, «Laguntza eta Erantzukizun Zirkuluak» programa pilotuak duela gutxi askatutako sexu-delitugileak berriro ez erortzea du helburu, erakundeen arteko lankidetzak-ikuspegi baten bidez. Profesional baten gainbegiradapean sexu delitugileak gizartean berriz barneratzen laguntzen duten borondatezko lantalde batek garatutako programa da. Programak eragile garrantzitsuen artean informazioa hartu eta ematea ahalbidetzen du, besteak beste, segurtasun-indarrak eta osasun zerbitzuak<sup>64</sup>.

**GREVIOk dei egiten die Espainiako agintariei sexu-erasoa kontrolatzeko programako modulu guztietan genero-ikuspegia txertatzera bideratutako ahaleginekin jarrai dezaten, programa guztien inplementazioan ikuspegi komuna berma dezaten, Istanbulgo Hitzarmenaren printzipioekin eta aintzatespena duten jardunbide egokiekin bat etorritz.**

## **F. SEKTORE PRIBATUAREN ETA KOMUNIKABIDEEN PARTE-HARTZEA (17. ARTIKULUA)**

Espainian emakumeen aurkako indarkeria forma ezberdinen inguruko sentsibilizazio-kanpainetan eta indarkeriaren, bereziki bikote edo bikote ohiarenak, biktime diren emakumeen ahalduzko ekonomikoan enpresa pribatuen parte-hartzea exijitu eta sustatzen duten lege eta polita asko daude.

GREVIOk Espainiako agintariak zoriontzen ditu sektore pribatuak eta komunikabideek emakumearen aurkako indarkeria forma guztien aurkako prebentzio eta borrokan izan dezaketenez zeregina aintzatesteagatik. Zehazki, bikote indarkeriaren biktimei zuzendutako lan arloan garatutako neurri espezifikoak baloratzen ditu, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Lege Organikoaren 21. eta 22. artikuluetan ezartzen den bezala.

Horietan, beren betebeharrak profesionalak beren egoera pertsonalera egokitzeko aukera ematen da, eta aukera ematen da ez joateko, lantokiz aldatzeko, lanpostua gordeta lan-harremana aldi baterako eteteko edo lan-kontratuak amaitzeko. Horrek guztiak erakusten du oso garrantzitsua dela lan-baldintzak malgutzeko abusuzko harreman batetik atera nahi duten emakume langileen kasuan.

Sektore publikoan etxeko indarkeriaren biktimei sostengurako neurri antzekoak daude. GREVIOk pozik ikusten du 2015etik badagoela bikote-indarkeriaren biktimei zuzendutako administrazio publikoko funtzionarioen mugikortasuna ahalbidetzen duen prozedura bat<sup>65</sup>.

Bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeriaren prebentzioan eta aurkako borrokan sektore pribatuak duen zeregina indartu denez, Emakumearen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Estrategia Nazionalak (2013-2016) zehaztu zuen sindikatuek eta enplegatzaileek zeregin garrantzitsua izan behar zutela indarkeriaren aurkako borrokan. Estatu Itunak bikote barruko indarkeriaren biktimei

---

[www.ehu.es/ojs/index.php/eguzkilore/article/view/18132/0](http://www.ehu.es/ojs/index.php/eguzkilore/article/view/18132/0).

<sup>63</sup> Espainiako estatuaren txostena GREVIOri, 26 or.

<sup>64</sup> Redondo S. eta Mangot A. (2017), «Génesis delictiva y tratamiento de los agresores sexuales: una revisión científica», *Revista Electrónica de Ciencias Criminológicas*, 2. zk., hemen eskuragarri: [www.ehu.es/ojs/index.php/eguzkilore/article/view/18132/0](http://www.ehu.es/ojs/index.php/eguzkilore/article/view/18132/0)

<sup>65</sup> Ebazpena, 2015eko azaroaren 25ekoa, Administrazio Publikoaren Estatu Idazkaritzarena.



enpleguaren sustapena eta gizarteratzea aurreikusten du, GREVIOk modu positiboan baloratzen duena (Estatu Ituneko 128. neurria)

Halaber, GREVIOk positibotzat jo du Espainiako agintariek Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren osaera bi enpresa-elkarte eta sindikatu garrantzitsuenetako bi sartzeko hartutako erabakia. Gainera, Genero Indarkeriaren Gobernuaren Ordezkaritzak martxan jarritako hainbat ekimenek sentsibilizazio-kanpainetan enpresek parte hartzea eta enplegu-politika inklusiboak txertatzea bilatzen dituzte, bikote barruko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako<sup>66</sup>.

Hala ere, GREVIOk deitoratu du aurreko guztia inplementatzeak duen konplexutasuna. Emakumeek 1/2004 Lege Organikoak eskaintzen dituen enpleguarekin eta onura ekonomikoekin loturiko neurrietara duten sarbidea zaila da oraindik (ikus IV. Kapitulua, C Atala 20. Artikuluari buruz, Babeserako Zerbitzu Orokorrak).

Lege Organikoaren 23. artikuluan ezarritako baldintzen interpretazio ezberdinen ondorioz, praktika ezberdinak gauzatu dira. Gainera, neurri desberdinen baliagarritasun orokorraren inguruko datuak mugatuak dira. Nahiz eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE) enpleguarekin lotutako neurriak baliatu dituzten emakumeen zenbateko osoaren datuak bildu dituen, ez da xehatu neurri motaren arabera.

Honek arestian aipaturiko lan arloko neurrien garrantziaren inguruan ondorio fidagarriak ateratzea zailtzen du bikotearen edo bikote ohiaren indarkeriaren biktimenzat. Datuek adierazten dute neurri batzuk, hala nola bikotearen edo bikote ohiaren eremuan indarkeriaren biktimei zuzendutako lan-kontratueterako gobernu-sorospenak, gutxitan erabiltzen direla, eta horrek esan nahi du neurri hori oraindik ez dela erabat aprobetxatzen<sup>67</sup>.

Jarraipen eta ebaluazio zorrotzik egin gabe, eskuragarri dauden neurriak gutxiegi erabiltzearen atzean dauden arrazoiak ezezagunak izaten jarraituko dute, etorkizun hurbilean jorratzeko zantzu gutxiarekin.

Etxeko indarkeriaren biktimei laguntzeko neurri espezifikoak alde batera utzita, GREVIOk positibotzat jotzen du 50 langile baino gehiago dituzten enpresak genero-berdintasunerako plan bat diseinatzerantz behartzen dituzten lege-xedapenak hartzea<sup>68</sup>.

Sexuan oinarritutako laneko sexu-jazarpenari eta jazarpenari dagokionez, GREVIOk modu positiboan baloratzen du Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoak prebentzio-neurriak barne hartzea (48. artikulua), eta era berean, enpresentzako txosten espezifikoak eta salaketa prozedurak ezartzeko betebeharrak. GREVIOk eskertu egiten du langileen ordezkarien zereginari buruz egiten den aipamen espezifikoa, legeak eskatzen baitu langile guztiak sexu-jazarpenaren arloan kontzientziatzeko eta gertakari horien berri emateko. Gainera, GREVIOk txalotu egiten du Espainiako agintariek eskuliburu bat jarri izana enpresen eskura, sexu-jazarpenaren prebentzio- eta jarduera-protokoloak egiteko gida eta inspirazio gisa<sup>69</sup>.

Hala ere, GREVIOk kezka ikusten du laneko jazarpen-kasuei buruzko estatistika ofizialik edo lege honek biktimek beren enplegatzaileekin hitz egiten eta indarkeria mota horren aurkako neurriak hartzen lagundu duela adierazten duen daturik ez egotea.

**GREVIOk onartzen du neurri handi batean dagoeneko barneratu diren salaketak eta kexak jartzeko mekanismoak hartzen dituela legeak. Horregatik, Espainiako agintariei eskatzen die lanean sexu jazarpenaren biktima diren emakumeen kopuruari buruzko datuak, biktimek aurkeztutako salaketak**

<sup>66</sup>Adibide bat «Empresas por una sociedad libre de violencia de género» («Enpresak genero-indarkeriarik gabeko sozietate baten alde») izeneko ekimena da, 2012an hasi eta 2017ra arte luzatu zena, hainbat enpresa-sektoretako 129 enpresa publiko eta pribaturen partaidetzarekin. Ekimenaren ondorioz, 1.848 emakume txertatu ziren lan munduan 2019. urtean.

<sup>67</sup>Bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeriaren biktimenzako enplegu subsidiatuko erregimenean oinarrituta emandako lan-kontratuen onuradun izan ziren emakumeen kopuruak gora egin duela dirudi (2015ean 836 izan ziren, eta 2018an 1.381), baina horien guztizko kopurua txikia da biktima kopuru handiarekin alderatuta, bereziki askotan egoera sozioekonomiko zailan dauden emakume migratzaileen proportzio handiarekin alderatuta.

<sup>68</sup> Ikus 3/2007 Legeko 45-47 artikulua.

<sup>69</sup> Erreferentziazko gidaliburua, sexuan oinarritutako laneko sexu-jazarpenaren eta jazarpenaren aurkako jarduketak eta prebentzio-protokoloak egiteko, hemen eskuragarri [www.igualdadenaempresa.es](http://www.igualdadenaempresa.es)

## **eta salaketa horien emaitzak biltzea.**

Komunikabideetan parte hartzeari dagokionez, hainbat legek jasotzen dituzte emakumeen estaldura mediatikoa eta genero-indarkeriari buruzko informazioa estaltzea arautzen duten berariazko arauak. Besteak beste, Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Lege Organikoa, Emakume eta Gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako 3/2007 Lege organikoa eta Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Lege Orokorra (7/2010 Legea) <sup>70</sup>.

1/2004 Legeak eta 3/2007 Legeak debekatu egiten dute emakumearen irudi iraingarria edo diskriminatzailea ematen duen publizitate-materiala, eta emakumearen duintasuna eta berdintasuna errespetatuko dituen emakumearen irudia indartu nahi dute (10. eta 41. artikulua, hurrenez hurren). 1/2004 Legearen 12. artikulua salaketa-mekanismo bat aurreikusten du, komunikabideetan eduki sexistak eta iraingarriak kentzea edo zuzentzea ziurtatzeko. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeek eta elkarteek, baita Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzak eta Emakumearen Institutuak ere, legez kontratatzat jotzen diren iragarkiak kentzeko lege-ekintzak has ditzakete.

GREVIOk bereziki gogoan hartu du Emakumeen Irudiaren Behatokiak (OIM) egindako ibilbide luzeko lana, hedabideetan eta publizitatean emakumearen ordezkaritza sexistak jarraitu eta salatzeari dagokionez. 1994an sortu zen, Emakumearen Institutuaren babespean. Erakunde horrek emakumearen irudi orekatua eta estereotiporik gabea sustatzen du, komunikabideen eta publizitatearen edukiaren jarraipen zuzena eginez, eta jendearen kexen bidez, emakumearen tratua sexista edo diskriminatzailea identifikatzeko. Emakumeen aurkako publizitate-kanpaina estereotipatuena edo iraingarriena aldatzeko edo ezabatzeko eskatzeko ahalmena du.

Aurrekoaz gain, estatuko eta jabetza pribatuko komunikabideetan emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatzen duten lege-neurriak hartzeko<sup>71</sup>, 2017an RTVE Berdintasun Behatokia sortu zen.

Erakunde horrek berdintasuna sustatzen duten eta RTVE Korporazioaren jardueran emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen duten kode etikoak daudela eta aplikatzen direla zaintzen du, eta RTVE Korporazioaren edozein komunikabideetan zabalduko edukiek ez dutelako emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edo bultzatzen.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko eta emakumearen aurkako indarkeria desagerrarazteko kanpaina instituzionaletan laguntzen du.

Zoritxarrez, GREVIOk ikusten du, jarduera horietako asko etorkizun handiko adibidetzat har daitezkeen arren, oraindik ere etxeko indarkeriako gertakariekin lotutako albisteak argitaratzen direla, eta biktimei egozten zaiela errua. Gainera, estereotipoak indartzen dituen publizitatea existitzen da oraindik eta emakumea moda, kosmetika eta garbitasun alorretara zuzentzen ditu, objektu sexualizatu gisa<sup>72</sup>.

Emakumeak modu ez-estereotipatuan eta ez-sexistan erretratatzeko etengabeko ahaleginak egin arren, MEBk kexa ugari jasotzen jarraitzen du, eta, horren ondorioz, 221 eskaera egin zituen 2016an eta 2017an eduki sexista, diskriminatzailea edo iraingarria kentzeko hedabideetatik eta publizitatetik.

**GREVIOk Espainiako agintariei dei egiten die ahaleginak areagotu ditzaten zenbait komunikabidek eta irratigintzak genero-indarkeriaren estalduran duten ikuspegi sentsazionalista geldiarazteko eta emakumearen irudi bat sustatzeko termino pluraletan eta ez-estereotipuetan, kazetariak prestatuz emakumearen aurkako indarkeria eta genero-indarkeria mota guztietan eta horien salaketa eginez.**

<sup>70</sup> 7/2010 Legeak ikus-entzunezko arloari zuzendutako marko legala ezartzen du eta genero berdintasuna sustatzeko neurri espezifikoak zehazten ditu, eta era berean, komunikabideetan edo publizitate-dukietan genero diskriminazioa ekiditeko (ikus 4.2 eta 18.1 artikulua).

<sup>71</sup> Ikus 3/2007 Legeko 36-39 artikulua.

<sup>72</sup> Istanbulgo Hitzarmenaren Plataformak GREVIOri egindako aurkezpena, 15. or.

#### IV. BABESA ETA LAGUNTZA

Istanbulgo Hitzarmenaren VI. Kapituluaren helburua Hitzarmenak barne hartutako edozein indarkeria forma jasan duen edozein emakumeri zuzendutako laguntza-zerbitzu polifazetiko, profesional eta biktimetan oinarritutakoa bermatzea da.

##### A. BETEBEHAR OROKORRAK (18. ARTIKULUA)

Istanbulgo Hitzarmenaren 18.2 artikulua sustatutako erakunde arteko ikuspuntu orokor eta integralarekin bat etorriz, Alderdiek ziurtatu behar dute GKE, agintari judizial, fiskal, segurtasun indar eta kidego eta tokiko eta eskualdeko agintarien arteko lankidetzaren eraginkorrerako mekanismo egokiak egotea.

Honek, esaterako, mahai-inguru edo hitzartutako kasu eta protokoloen hitzaldiak antolatzea eskatzen du, barkako kasuen inguruan profesionalen arteko lankidetzaren ahalbideratzen dutenak, modu estandarizatuan lan eginez.

Istanbulgo Hitzarmenaren arabera, lankidetzaren horrek aurre egin behar dio emakumearen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren tratamenduari, eta arreta jarri behar du giza eskubideetan eta biktimaren segurtasunean, genero-ikuspegitik. Horrelako kasuetan, erakundearen arteko lankidetzaren oinarrituta, emakumeei laguntza eskaintzen dieten zerbitzu espezializatuek zeregin garrantzitsua dute biktimen eskubideak bermatzeko orduan.

Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Lege Organikoaren ezarpenak Espainian bikote edo bikote ohiak gauzatutako indarkeriaren biktima diren emakumeei eskainitako erantzunean aldaketa esanguratsua ekarri zuen, GREVIOK modu positiboan baloratzen duena. Lege honek bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeriaren biktimei laguntzeko eta babesteko zenbait neurri aurreikusten ditu. Neurri horiek modu integratuan eskaintzen dira, hainbat erakunderen lankidetzarekin: segurtasun-indar eta -kidegoak, emakumearen aurkako indarkerian espezializatutako epaitegiak, osasun-zerbitzuak eta emakumei lege-aholkularitza ematen dien edozein erakunde (19. artikulua).

Alde horretatik, legeak arlo horretan ezagutza espezializatua izatea eta zerbitzuak modu eraginkorrean ematea eskatzen du; esate baterako, erabilzaileek zerbitzu horiek instalazio berean izatea eragiten du («leihatila bakarra»), baita epe luzearako ahalbideratze ekonomikorako neurriak ere.

GREVIOK bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeria-zerbitzuak kontzeptualizatzeko modu hori ospatzen du, Istanbulgo Hitzarmenarekin bat datorrelako, hitzarmen hori baino lehenagokoa baita. Hala ere, Istanbulgo Hitzarmenaren helburua ikuspegi integral mota honen eskuragarritasuna bermatzea dela behatu du, lankidetzaren oinarritutakoa, barne hartutako indarkeria forma guztien zerbitzuen eskaintzan. Honek sexu-indarkeria, sexu-jazarpena, zelata (*stalking*), behartutako ezkontza, emakumeen genitalen mutilazioa eta behartutako abortu/antzetzea barne hartzen ditu.

Horregatik, GREVIO kezkatuta agertu da Istanbulgo Hitzarmenean jasotako indarkeria-motetako batean erakundearen arteko lankidetzaren oinarritutako laguntza-zerbitzu integralak emateko ahalegin gehiegizko fokalizazioarekin, beste batzuen kaltetan. Bereziki, sexu-indarkeriaren, behartutako ezkontzaren eta emakumeen genitalen mutilazioaren kasuetan, ez dago koordinazio-mekanismo biktimen babesarako eta laguntzarako garrantzitsuak diren agentzia ofizial guztien arteko lankidetzaren eraginkorra lortzeko (ikus beherago).

Horrez gain, GREVIO kontziente da zerbitzuen eskaintzaren kalitate eta erabilgarritasunari dagokionez autonomia-erkidegoetan ezberdintasun handiak daudela<sup>73</sup>. Zerbitzuen prestazioaren erakunde arteko

---

<sup>73</sup> Ebaluazio-bisitan zehar GREVIOri emandako informazioa.

ikuspegiari dagokionez dauden arrakalak ixtearren, GREVIOk adierazi du beharrezkoa dela arlo horretan jarraibide/estandar nazionalak izatea, eta horiek esperientzia duten emakumeen GKEekin lankidetzan egin beharko lirakeela.

Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoan oinarrituta zerbitzuak emateari dagokionez sortzen den beste kezka bat emakumeek zerbitzu horiek eskuratzeko irizpideak dira.

2018an, 1/2004 Lege Organikoaren II Kapituluaren 23. artikuluan aldaketa bat egin zen laneko eskubideen eta gizarte segurantzako zerbitzuen erabilera bermatzeko eta babes agindu baten igorpenaren mendeko ez izateko. Praktikan, zuzenketa honen inplementazioan ezberdintasunak daudela dirudi.

Adituek eta emakumeen GKEek GREVIOri emandako informazioaren arabera, Espainiako leku batzuetan emakumeek etxeko indarkeriaren babeslekuetara duten sarbidea bikote barruko indarkeriaren biktima bezala duten aitortzaren arabera izango da, babes agindua ukatu zaien kasuek babesleku hauetarako sarbidea debekatua dutelarik. Beste erkidego batzuen kasuan, emakumeek eskubide ekonomiko eta sozial eta laguntzak erabiltzeko haien egoerak etxeko indarkeriaren biktima bezala ofizialki aitortua egotea behar du, babeslekuetarako sarbidea behatutako beharren arabera eskaintzen delako.

GREVIOk Espainiako agintarien ahaleginak baloratzen ditu 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikuluan inplementazioan ezberdintasunak berdindu nahi izateagatik, Estatu Itunaren 62 eta 63 puntuetan ezartzen direnak, eta emakumeen aukeraketarako laster erregimen malguago bat izatea espero du, laguntza bilatzean zailtasunak gutxitzeko.

**GREVIOk Espainiako agintariei eskatzen die, Istanbulgo Hitzarmenaren 18.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, sexu-indarkeriari, zelatari, ezkontza behartuei, emakumeen genitalen mutilazioari eta abortu/antzutzte behartuei dagokionez, agentzia ofizial eta beste agentzia garrantzitsuen erakunde arteko lankidetzako oinarriak ezartzeko. Era berean, sostengu eta babes zerbitzuen eskaintzan beste printzipio batzuez gain, genero-ikuspegia hartzea bermatu beharko dute, ahalduz ahalbideratuz eta bigarren mailako biktimizazioa saihestuz (18.3 artikulua).**

**Helburu honekin, GREVIOk agintariei zinez eskatzen die alor honetan ildo/estandar nazionalak garatzeko zerbitzuen eskaintzan esperientzia duten emakumeen GKEen laguntzarekin.**

## **B. INFORMAZIOA (19. ARTIKULUA)**

Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeen informaziorako eskubidea Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurrien 1/2004 Lege Organikoaren 18. artikuluan dago jasoa. GREVIOk modu positiboan baloratzen du legeak organismo ofizialei eta beste agintari batzuei biktima diren emakumeei haien egoera pertsonalera egokitutako informazio guztia eta aholkularitza eskaintzea behartzea, eskaintzen dituzten babes-neurriak eta laguntza-zerbitzuak barne.

GREVIOk positiboki baloratzen du legeak etxeko indarkeria jasaten duten eta desgaitasuna duten emakumeek, haientzako irisgarria den modura informazioa jasotzea eskatzen duela. Hala ere, GREVIO kezkatuta dago desgaitasunen bat daukaten emakumeak ordezkatzen dituzten GKEek praktikan hau oso gutxitan gertatzen dela azpimarratu dutelako, erantzukizuna duten erakunde publikoak trebatuak ez daudelako eta ez dituztelako hori aurrera eramateko baliabideak.

Gainera, Delituaren Biktimaren Estatutuaren 4/2015 Legeak biktima guztiek jasandako delituaren informazioa proposa, egokia eta delituaren izaerari egokitutakoa jasotzeko eskubide dutela ezartzen du. Honek barne hartzen du erabilgarri dauden laguntza-zerbitzuei buruzko informazioa, baita karguak nola aurkeztu eta ordezkaritza legala eta aholkularitza non lortu ere. GREVIOk modu positiboan baloratzen du Espainiako Justizia Ministerioak eta Pertsona Gorren Estatuko Konfederazioak justizia-

administrazioaren sistemarekin pertsona gorren esperientzia hobetzerantz bideratutako hitzarmena sinatzea. Delituen biktimeentzako informazio gehiena autonomia-erkidegoetan sortutako Biktimeen Laguntza Bulegoen bitartez eskuratzen da, justizia penalararekin lotutako kontuez arduratzen direnak.

Dena den, emakumeen GKEek GREVIORi bulego horietako langileek emakumeen aurkako indarkeriari genero-ikuspegia aplikatzen ez diotela adierazi diote. Desgaitasunen bat daukaten emakumez gain, gaztelaniaz hitz egiten ez duten emakume migratzaileak bezalako beste talde batzuek, zailtasun ugari aurre egin behar diete informazio-eskubidea erabiltzeko, interpretazio-zerbitzuen gabeziagatik gehienbat. Asilo eskatzaileak diren emakumeei, indarkeriaren biktimei zuzendutako zerbitzu espezializatuetara gutxi doazen horiei, beste oztopo batzuen artean, hizkuntza-arrakalak ere eragiten die.

**GREVIOk Espainiako agintariei eskatzen die emakumearen aurkako indarkeria forma guztien biktimei informazioa emateko ahalegina egin dezaten haietzako ulergarria den hizkeran eta moduan.**

### **C. BABESERAKO ZERBITZU OROKORRAK (20. ARTIKULUA)**

#### **1. Gizarte zerbitzuak**

Espainiako Konstituzioaren 148.1.20 artikuluan zehazten den bezala eta Autonomia Estatutuan ezartzen denaren arabera, gizarte zerbitzuen eskaintza autonomia-erkidegoen erantzukizuna da, hori dela eta, toki-autonomia maila altuengatik nabarmentzen da. Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Lege Organikoaren 19. artikulua autonomia-erkidegoei bikotearengandik edo bikote ohiarengandik jasandako indarkeriaren biktimeentzako gizarte laguntza integralarekin lotutako betebeharrak esleitzen dizkie sostengu orokor eta espezializatu zerbitzuen forman.

Betebehar hauek larrialdi kasuetan laguntza, babesa eta ostatua eskaintzea barne hartzen dituzte, erakundearen arteko lankidetzaren eta berehalako erantzun espezializatu behar dituztenak. Bikote barruko biktimeen esku jarriko diren zerbitzuek, besteak beste, laguntza psikologiko, sozial eta finantzarioa, erabiltzeko informazioa, gizarte segurantzako laguntzak, laguntza laborala eta prestakuntzarako eta garapenerako laguntzak barne hartzen dituzte. Beste neurri batzuek emakumeen ahalduzko ekonomikoa bultzatzen dute. Horren adibide, bikote barruko indarkeriaren biktimeak diren emakumei zuzendutako enplegu-programa espezifikoak dira (ikus III. Kapituluak, F Atala, Sektore pribatuaren eta komunikabideen parte-hartzea, 17. Artikulua) eta baita ordainketa bakarra ere - lan ordainduko sei hilabeteren baliokidea - lanik ez dutenentzat edo lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztenentzat (1 /2004 Lege Organikoaren 27. artikulua). GREVIOk Espainiako agintariak zorientzen ditu legean erabateko laguntza ezartzeagatik, Istanbulko Hitzarmenaren 20. artikuluko eskakizunekin bat etorritik.

Hala ere, Hitzarmenaren aginduekin bat, maila autonomikoan indarrean dagoen legediak ezartzen ditu etxeko indarkeriaren biktimei zerbitzu hauek eskaintzen zaizkien edo ez, edo sexu-indarkeria, ezkontza behartua, emakumeen genitalen mutilazioa, antzute/abortu behartua edo sexu-jazarpenera jasan duten edo jasateko arriskuan daudenei luzatzen zaizkien. Zenbait autonomia-erkidegok esparru hau asko zabaltzen dute; aldiz, beste batzuk legeria zentralaren eremuari jarraitzen diote.

Ondorioz, autonomia-erkidego ezberdinetan legez beharrezko bitartekoen laguntzaz gizarte zerbitzuek landu behar dituzten emakumearen aurkako indarkeria motak, oso ezberdinak dira, baita gizarte zerbitzuetako langileek bikote barruko indarkeriaz haratagoko emakumeen aurkako indarkeriei buruz eskuratutako espezializazio, trebakuntza eta ezagutza gradua ere.

Erakundearen arteko lankidetzaren oinarriaren gainera, batzuek bikote barruko indarkeriari dagokionez soilik protokoloa eta esku-hartzeak garatu dituzten arren, beste autonomia-erkidego batzuek bortxaketa eta emakumeen genitalen mutilazioaren aurrean erantzun egokiak eskaintzeko helburua

daukate<sup>74</sup>. Askok aholkularitza legala eta psikologikoa, laguntza ekonomikoa, hezkuntza eta enplegu eta etxebizitza bilatzeko laguntza eskaintzen dituzte, indarkeriaren lekuko izan diren haurrentzako ere.

Beraz, GREVIORi gizarte zerbitzuek garatutako bikote barruko indarkeriaren biktimak babesteko eta sostengatzeko ikuspegi integralak, Istanbulgo Hitzarmenean barne hartutako emakumen aurkako beste indarkeria forma batzuk kontuan ez hartzea kezkatzen dio. Izan ere, gerta liteke bikoteak edo bikote ohiak egindako indarkeria mota horrek asko zailtzea indarkeria mota horretatik kanpo dauden emakumeek babesa eta laguntza prestazioak jasotzea. Espainiako autonomia-erkidegoetan nahiko era homoginean gertatzen da hori.

GREVIOk 17 eskualde eta autonomia-erkidego dituen herrialde deszentralizatu batek zerbitzuak eskaintzeko dituen zailtasunak aintzat hartu arren, gogorarazten du, nazioarteko eskubidearen arabera, agintari zentralak direla Istanbulgo Hitzarmena ezartzearen arduradunak, herrialdeko lurraldeen antolakuntza alde batera utziz.

Modu berean, GREVIO kezkatuta dago gizarte zerbitzu munizipalen zerbitzuen eskaintza modu esanguratsuan murriztu delako, 2013ko genero-indarkeriaren alorreko eskumenak udalerriei kentzeko erabakiaren ostean. GREVIOk modu positiboan baloratzen du harrezkero eskumen hauek berrezarri direla eta agintari nagusiek funtsak ahalbideratu dituztela eskaintza maila handitzeko, hala ere, zerbitzuen irismena gutxitzea asko igartzen da zerbitzuen eskaintzaren esperientzia mailan eta jarraipenean.

**GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die neurri eraginkorrak hartzeko emakumeek laguntza-zerbitzu orokorretara herrialde osoan modu homogineagoan sarbidea izan dezaten bermatzeko, zerbitzuen eskaintzaren maila eta kalitateari dagokienez eskualdeko ezberdintasunak murriztuz.**

## **2. Arreta medikuko zerbitzuak**

Osasun publikoko zerbitzuek eginkizun garrantzitsua betetzen dute indarkeriaren prebentzioan, osasun-laguntzan eta beste sostengu mota batzuetan, espezializatutako aholkularitza-zerbitzuetara bideratzea barne. Espainian, Osasun Sistema Nazionalako Lurralde arteko Kontseiluaren Genero Indarkeriaren Aurkako Batzordeak bikote edo bikote ohiak gauzatutako indarkeriari osasun publikoaren sektorearen erantzuna hobetze aldera.

2007tik, Genero Indarkeriaren aurrean Osasunez Jarduteko Protokolo Komuna dago osasun-langileak indarkeria fisiko, sexual edo psikologikoa pairatu duten emakumeak artatzean jarraitu beharreko prozedura eta jarraibideak ezartzen dituena. Protokoloak osasun-langileei indarkeriaren biktimak hautemateko, bigarren mailako biktimizazioa ekiditeko, indarkeria ekintzak dokumentatzeko, segurtasun-plan bat garatzeko eta biktimak dagozkien zerbitzuetara bideratzeko tresnak ematen dizkie.

Gainera, osasun sektoreko erizain, familiako mediku eta gizarte-langileek etxeko indarkeria jasaten duten emakumeak identifikatzeko publikoki eskuragarri dagoen galdetegitik abiatzen den inkesta egitea ezarri da errutina gisa. Horrez gain, autonomia-erkidego batzuetan osasun-laguntza bilatzen duten emakume guztiei zuzendutako hautemate-sistema estandarizatuak ezarri dira, horretara bideratzen dien arazoak kontuan hartzen ez dituztenak. Familiako egoeraren edo arreta behar lezakeen arazoren baten inguruko galdera ezberdinak formulatzearen bitartez, osasun-langileek bikote edo bikote ohiaren indarkeriaren biktima diren emakumeak identifikatu ditzakete. GREVIOk ekimen hau goraipatzen du osasun-langileei zeregin proaktiboa ematen dielako, bikote barruko indarkeriaren biktimen hautematean hobekuntza esanguratsua eraginez, eta honen inplementazio egokiak emakume hauen segurtasuna ekar dezakeelako.

---

<sup>74</sup> 1 Eranskina. Autonomia Estatutua duten Erkidego eta Hiriei buruzko informazioa; Espainiako Gobernuak aurkeztutako estatuaren txostena.

Aitzitik, GREVIOk azpimarratu du osasun-langile askok ez dituztela indarkeria mota honen biktimak hautematen eta identifikatzen, bereziki Espainiako landa-eremuan. Epaitegiek erabiltzen dituzten bikote barruko indarkeria kasuetako txostenetan, osasun-langileek egindako lesio parteen kalitateari dagokionez ere kezka adierazi du.

Lesio forma bakoitzarentzako dauden inprimaki estandarizatuek osasun langileei bikote edo bikote ohiaren indarkeriaren inguruko ezaugarriak idazteko espazio gutxi uzten diete. Era berean, osasun-langileek duten lan karga handiak ez die tarterik ematen txosten hauek betetzeko behar duten denborari. Lan honekiko duten prestakuntza eskasak hauen kalitatean eragiten du.

Osasun-protokoloetan zehazki lantzen den beste indarkeria forma bat emakumeen genitalen mutilazioa da. Osasunez Jarduteko Protokolo Komuna, emakumeen genitalen mutilazioa jasan duten edo jasateko arriskuan dauden emakume eta nesken kasuak hautematen laguntzeko ildoak ezartzen dituena, laguntza medikua eskaintzeko eta prebentzio-neurriak martxan jartzeko asmoz.

Badirudi alor honetako adituek Protokolo Komunean ezarritako prebentzio-neurriak mugatuak direla, nagusiki osasun eremuan oinarritzen baitira, emakumeen genitalen mutilazioarekiko ikuspegi integrala eskaini beharrean. Autonomia-erkidego batzuek, osasun sektorea eta beste eragile batzuk lotzen dituzten protokolo integralagoak dituzte. Esaterako, gurasoei haien jatorrizko herrialdera bidaiatzean haien alaben genitalen mutilazioa ez egiteko «konpromisoa» sinatzeko eskatzen zaie. Hurbilpen honen parte dira aurretik eta ostean pediatrek egiten dituzten beharrezko osasun-kontrolak<sup>75</sup>. Halere, badirudi sendagile guztiek ez dituztela ezagutzen protokolo guztiak.

GREVIOk badaki Espainiako autonomia-erkidego askok osasun-langileek sexu-indarkeria kasuak lantzean ikuspegi estandarizatuak ezartzeko jarraibide edo protokoloak ezarri dituztela<sup>76</sup>, baina zehazki indarkeria forma honi zuzendutako protokolo nazional bat ez izateaz kezkatzen dio. Protokolo komuna ez izateak, laguntzaren kalitatearen eta aplikatutako prozeduren arteko kontraste handia eragin du. Izan ere, ezarritako ildoek ez dute langile guztien arteko harremana bermatzen, ondorioz prozedura ezberdinak jartzen dira martxan, gehienbat auzitegiko frogak jasotzerako garaian.

Erkidego batzuen osasun-zerbitzuek, Madrilgo Erkidegoa kasu, tratamendu bat behar duten lesioen kasuei osasun-laguntza eskaintzen diete, baina ez dituzte bide penaletik egin ahal diren etorkizuneko salaketentzako probak gordetzen dituzten azterketak egiten. Legea betetzeaz arduratzen diren organismoen eta aztertzaile mediku eta forentseen arteko koordinazio eta lankidetzak maila ere ezberdina da. Eta emakume asko lekualdatzen dira haien beharrak asetu gabe, bortxatuak izan ostean garbitzeko, aldatzeko, lo egiteko edo indarberritzeko aukerarik eman gabe. GREVIOk gogorarazten du alderdi interesatu guztien erantzun koordinatua ezinbestekoa dela biktimei laguntza osoa eskaintzeko.

**GREVIOk traumarekin lotura daukaten beharrezko ezagutzak dituzten eta biktima hauen beharrak kontuarekin estali ditzaketen segurtasun indar eta kidegoei, beste agentzia ofizial garrantzitsuei eta trebatutako osasun langileei lotutako bortxaketen eta sexu-erasoen biktimei mediku- eta auzitegi-zerbitzuen eskaintzan ikuspegi koordinatu eta integrala ezartzeko eskatzen die Espainiako agintariei.**

**Horrez gain, GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die neurriak hartzeko, espezializatutako trebakuntza eskainiz, bikote barruko indarkeriaren hautematean mediku profesionalen jardun proaktiboa bermatzeko eta lesio parteen kalitatea hobetzeko, prozesu penaletan erabilgarriak izateko.**

#### **D. SOSTENGUA BAKARKAKO/TALDEKAKO SALAKETETAN (21. ARTIKULUA)**

Istanbulgo Hitzarmenaren 21. artikulua ezartzen du, biktimek aplikagarriak diren bakarkako/taldeko

<sup>75</sup> End FGM Europako Sarea, Save a Girl Save a Generation, UNAF eta Munduko Medikuek elkarrekin GREVIOri egindako ekarpena, 5. or.

<sup>76</sup> GREVIOri aurkeztu zitzaion Espainiako Estambul Sombra Plataformaren aurkezpenak autonomia-erkidegoetako osasun-langileei zuzendutako protokoloen laburpena barne hartzen du, 13. or

salaketen aurkezpenarekin loturiko eskualdeko eta nazioarteko mekanismoei, eta hauetarako sarbideari buruzko informazioa izatea bermatu behar dutela Alderdi diren Estatuak, berretsi egin baitira. Espainiako kasuan, hauek Giza Eskubideen Europako Auzitegia, CEDAW Batzordea eta Europako Gutun Soziala barne hartzen dituzte.

Xedapen honen helburua biktimek salaketa hauek aurkeztean laguntza sentibera eta informatua jasotzea da. Laguntza hau Estatuak, abokatuen elkargoek, GKE garrantzitsuek edo beste organo batzuek emandakoa izan daiteke<sup>77</sup>. Emakume elkarten eta zuzenbideko profesionalen arabera, informazioaren eskuragarritasuna eta mota honetako laguntza gizarte zibilaren ekimenaren ondorio da nagusiki, ezinbestean agintariek biktimei mekanismo hauetarako sarbidea hobetzeko baliabideak dituztela argia da.

**GREVIOk Espainiako agintariei ahalegin gehiago egiteko erregutzen die biktimek eskualdeko eta nazioarteko salaketa mekanismo aplikagarrien informazioa eta sarbidea izan dezaten bermatzeko.**

## **E. LAGUNTZA-ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK (22. ARTIKULUA)**

Laguntza espezializatua eskaintzearen helburua biktimen ahalduntzea bermatzea da, haien behar espezifikoetara optimizatutako eta egokitutako babes eta laguntzaren bitartez. Emakume feministen elkarteek hein handi batean lor dezakete helburu hau, emakumeen aurkako genero-indarkerian ezagutza sakonak dituzten langile espezializatu eta esperientziadunak dituzten tokiko agintarien lez. Berebizikoa da zerbitzu hauek herrialde guztian zehar egotea eta biktima guztientzat erabilgarriak izatea.

Gainera, zerbitzu hauek eta langileek Istanbulgo Hitzarmenean barne hartutako indarkeria mota ezberdinekin lan egiteko ahalmena izan behar dute, biktima talde guztiei laguntza emateko, irismen zaila duten taldeak barne.

GREVIOk Espainiako agintariak zorientzen ditu erkidego guztietan hedatutako bikote barruko indarkeriari zuzendutako laguntza-zerbitzu sare integral eta espezializatuengatik. Nolanahi ere, etxeko indarkeriara zuzendutako zerbitzuetatik haratago, Istanbulgo Hitzarmenean barne hartutako beste edozein indarkeria formaren biktimei zuzendutako laguntza-zerbitzuetan esperientzia gutxi dagoela dirudi. Oso autonomia-erkidego gutxik eskaintzen dituzte bortxaketen biktimentzako zerbitzu espezializatuak (ikus beherago), eta behartutako ezkontzak, emakumeen genitalen mutilazioa, zelata eta behartutako antzutze/abortua jasateko arriskuan dauden emakumeentzako laguntza-zerbitzu espezializatu are gutxiago daude.

Guuzti honek erakusten du tokiko agintariek zerbitzu hauetan inbertitzen. Premiazko aholkularitza, epe luzerako sostengu psikologikoa eta esperientzia traumatikoekiko sentibera den arreta ez dago eskuragarri Istanbulgo Hitzarmenean ezarritako indarkeria forma askorentzako.

GREVIOk zerbitzu espezializatuaren eskaintzari dagokionez, Istanbulgo Hitzarmenaren 18. artikulua ezarritakoarekin bat etorritik, maila autonomian zerbitzu espezializatuak identifikatzeko beharra azpimarratzen du, garatuta daudenetatik haratago, etxeko indarkeriari erantzuna emateko. GREVIOk Espainiako agintariei Hitzarmenak barne hartutako indarkeria forma ezberdinen biktimei zuzendutako babeserako zerbitzu ezberdinen inbentario eta diseinuen sorkuntza errazteko Europako Kontseiluak garatutako metodologia eta tresnen inguruan ohartarazi die, etorkizunean identifikazioan izan dezakeen erabilerarengatik<sup>78</sup>.

**Istanbulgo Hitzarmenean jasotako edozein indarkeria-esperientziatan emakumeei laguntza eta aholkularitza espezializatua emateak duen garrantzirik abiatuta, GREVIOk Espainiako agintariei eskatzen die emakumeentzako laguntza-zerbitzu espezializatuak eman edo koordinatzea,**

<sup>77</sup> Hitzarmenaren Azalpen Txostenaren 130 paragrafoa.

<sup>78</sup> Mapping support services for victims of violence against women in line with the Istanbul Convention standards – Methodology and tools”, L. Kelly, Strasbourg, December 2018.



**genero-ikuspegitik, autonomia-erkidego guztietan eta Istanbulgo Hitzarmenean jasotako indarkeria-mota guztietan.**

Epe ertain eta luzerako berehalako laguntza bermatzea da helburua, gizarte zibilean emakumeentzako laguntza-zerbitzu espezializatuek aspaldidanik metatutako esperientzia aprobetxatuz eta parte hartuz.

**Gainera, GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die autonomia-erkidego guztietan neurriak hartzeko, laguntza-zerbitzu espezializatuen identifikazioa sustatuz bortxaketa, sexu-indarkeria, zelata, sexu-jazarpen, ezkontza behartu, emakumeen genitalen mutilazio, behartutako abortu eta behartutako antzutze kasuetan, zerbitzuen eskaintzan gabezia hauek gainditzeko, beharrezkoa denean.**

## **F. BABESLEKUAK (23. ARTIKULUA)**

Espanian, autonomia-erkidegoen eskumena dira etxeko indarkeriaren biktimetzako babeslekuak. Hala ere, badaude kasu gutxi batzuk, kudeaketa lokal edo pribatuaren esku daudenak. 15 egunetarako ostalua eta larrialdi egoeretan laguntza eskaintzen duten krisi zentroetatik, eta baita informazioa, sostengu psikologikoa, laguntza juridikoa eta biktimetzako beste laguntza mota batzuk emateko langile espezializatuak dituzten instalazioetan epe ertain eta luzerako (urte betera arte) osatuta eskaintzen dituzten harrera-etxeetatik ere ezberdintzen dira.

GREVIOk positiboki baloratzen du Genero Indarkeriaren Gobernuaren Ordezkaritzak eskaintzen duen deskribapen/orientazioak 65 urte baino gehiagoko emakumeen, emakume atzerritarren, desgaitasunen bat daukaten emakumeen eta 18 urte baino gutxiagoko nesken beharretara egokitzen diren babeslekuak bermatzearen beharra erakusten duela.

Modu berean, GREVIOk positiboki baloratzen du indarrean dagoen protokoloa. Horren bidez, babeslekuak behar duten emakumeen lekualdatzea bermatzen dute, bai autonomia-erkidego/eskualde baten barruan baita autonomia-erkidego/eskualde ezberdinen artean ere, tokiko babeslekuak beteta daudenean.

Autonomia-erkidego guztiek gutxienez larrialdi-zentro bat eta harrera-etxe bat dituzte, ordea, *per capita* plaza kopuru ezberdintasun handiak dituzte eta horregatik GREVIO kezkatuta dago. 2017an, babeslekuetan guztira 1.689 plaza libre zeuden<sup>79</sup>, argi eta garbi Istanbulgo Hitzarmenaren Azalpen Txostenean ezartzen denaren arabera, 10.000 biztanleko<sup>80</sup> plaza familiar baten *per capita* ratoria iristen ez dena<sup>81</sup>.

Gainera, GREVIOk maila autonomikoan babeslekuetan biktimen onarpenarekin lotutako praktika ezberdinei buruzko informazioa jaso du (ikus A Atala, Betebehar orokorrak, 18. Artikulua). Batzuetan emakumea salaketa polizial bat aurkeztera behartzen da, beste batzuetan, ordea, onarpen prozedura ziurgabetasunez josia dago. Iturri batzuek GREVIOri jakinarazi diote, poliziarri etxeko indarkeriaren salaketa aurkezten dieten emakumeentzako babes- eta laguntza-neurriak martxan jarri direla, laguntza-zerbitzuetara berehala bideratzeko.

Hala ere, poliziarengana ez doazenak, desgaitasunen bat daukaten emakumeen kasuan gertatzen den bezala, poliziarekin komunikatzeko oztopo praktikoa handiekin topatzen dira, eskuragarri dauden zerbitzuetara sarbidea izateko zailtasun handiagoak izateaz gain, babeslekuetara sartzeko zailtasunak

<sup>79</sup> Plaza familiar bat emakume batek bere seme-alabekin ostatu hartzeko hartzen duen lekua da, Europako Kontseiluaren kide diren estatuen barruko familiako seme-alaben batez bestekoaren arabera. Beraz, hau «oheko plaza» bat baino gehiago da.

<sup>80</sup> Plaza familiar bat emakume batek bere seme-alabekin ostatu hartzeko hartzen duen lekua da, Europako Kontseiluaren kide diren estatuen barruko familiako seme-alaben batez bestekoaren arabera. Beraz, hau «oheko plaza» bat baino gehiago da.

<sup>81</sup> Istanbulgo Hitzarmenaren azalpen-txostenaren 135. paragrafoa.

barne. Landa-eremuko emakumeek zailtasunak dituzte garraio publiko zein pribatua erabiltzeko eta ondorioz, komisariora joateko zailtasunak ere eta joatean, anonimotasun ezaren aurrean gogo gabe geratu daitezke. Menpekotasuna daukaten emakumeak edo prostitutak ezin dute poliziarengana jo beste arrazoi batzuegatik. Eta emakume migratzaileek herrialdean daukaten egoerarekin lotutako arrazoiengatik.

GREVIO kezkatuta dago praktikan emakume hauek poliziarengana jotzeko duten mesfidantzak babeslekuetarako sarbidea gutxitu dezakeelako. Era berean, GREVIO kezkatuta dago etxeko indarkeriaren biktima diren eta desgaitasunen bat daukaten emakumeak sarri desgaitasuna duten pertsonen egoitzetan onartzen dituztelako etxeko indarkeriaren biktima diren babeslekuetan beharrean.

Zerbitzu espezializatuen finantzazio maila ezberdinak egotearen ondorioei, eta hauek emakumeen GKEetako egonkortasun finantzarioan eta zerbitzuen eskaintzaren jarraipenean duten inpaktuari buruz aurretik hitz egin da txostenean, Hitzarmenaren 8. artikularekin lotuta.

**GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die hauek konpontzeko neurriak hartzeko:**

- **Autonomia-erkidego guztietan ostatuak sustatzeko, Istanbulgo Hitzarmenaren Azalpen Txostenenean ezartzen den araura egokituz eta 10.000 biztanleko plaza familiar bat ezarriz;**
- **desgaitasun motaren bat daukaten emakumeentzako, landa eremuan bizi diren emakumeentzako, 65 urte baino gehiago dituzten emakumeentzako, haurrentzako menpekotasuna duten emakumeentzako, prostitutentzako eta emakume migratzaileentzako babeslekuetarako sarbidea hobetzeko.**

## **G. ZAINZA TELEFONIKOAK (24. ARTIKULUA)**

2007an laguntzako telefono-linea nazionala martxan jarri zen, zeinaren bitartez sostengua eta aholkularitza eskaintzen den, aholkularitza juridikoa barne, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Lege Organikoaren arabera bikoteak edo bikote ohiak gauzatutako indarkeriarekin lotuta. Zerbitzu honek asteko 7 egunetan 24 orduz funtzionatzen du, anonimotasuna eta konfidentzialtasuna guztiz bermatuz. Eta 52 hizkuntzatan dago erabilgarri (aholkularitzako langileek 15 hizkuntzatan hitz egiten dute eta beste 38 telefono bidezko itzulpen zerbitzuen bitartez eskaintzen dira). Desgaitasun motaren bat daukaten pertsonen sarbidea ikusmen-interpretazioaren, testu telefonoaren eta online txatean dagoen foro baten bitartez bermatuta dago ([www.telesor.es](http://www.telesor.es)). GREVIOk Espainiako agintariak zoriontzen ditu laguntza telefoniko honetarako sarbidea errazteko ahaleginak egitearren.

Laguntzako telefono-linea autonomikoak ere badaude, eta batzuk 016 baino lehenagokoak dira. Eskualdetako zenbaki guztiak 016 laguntzako linea nazionalarekin lotuta daudela dirudi, autonomia-erkidegoetan 016 zenbakira egiten diren dei guztiak laguntzako linea automatikora berehala transferitzea bermatuz, deitzen duten pertsonen haien komunitatera egokitzen den esperientziak eta haien zonako laguntza-zerbitzu espezializatuak desbideratzeaz onura izan dezaten.

Deiek berehalako arrisku egoera batekin zerikusia dutenean, segurtasun indar eta kidegoek unean bertan jaso ditzakete jakinarazpenak. 2005etik dago bikoteak edo bikote ohiak gauzatutako indarkeriari zuzendutako laguntzako telefono-linea (ATENPRO). GREVIOk biktima baten (edo beste biktima batzuk, haurrak alegia) bizitza eta segurtasuna babesteko beharra dagoenean konfidentzialtasuna, zerbitzuen printzipio orokorra, hautsi daitekeela aintzat hartzen du, baina ez du horrelako egoeretan legezkatuta dauden arauak buruzko informaziorik jaso 016 telefono-linearen langileengandik.

GREVIOk laguntzako linea nazionalaren irisgarritasun unibertsala bermatzeko egindako ahaleginak eskertzen ditu eta positiboki baloratzen du batez beste 70.000 dei baino gehiago jasotzen dituela

urtero. Adierazi du telefono-linea honen irismena handitzeko saiakerak egiten ari direla Istanbulgo Hitzarmenak barne hartutako indarkeria forma guztiei dagokien aholkularitza eskaintza bermatu ahal izateko, hots, ezkontza behartuei, emakumeen genitalen mutilazioari, sexu-indarkeriari, sexu-jazarpenari, zelatari edo behartutako antzutzeari. Modu berean, GREVIOk gogorazten du laguntzako telefono-linearen irismena handitzeak Hitzarmenean barne hartutako indarkeria forma guztiei buruzko esperientzia espezializatu aproposa eta formakuntza eskatzen duela, indarkeria forma ezberdinen biktimen behar espezifikoak estaliko dituen zerbitzua bermatuz.

Ez hori bakarrik, GREVIOk azpimarratu du emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei zuzendutako babes- eta laguntza-zerbitzuekin gertatzen den bezala, laguntzako linea hau ere lizitazio baldintzen menpe dagoela eta kostuak etengabe murriztearen ondorioz eskaintzen diren zerbitzuen kalitatea kolokan jartzen dutela dirudi. Baldintza formalekin bat etorritik trebatutako langileak izan arren, lizitazio prozedura hauek lan-baldintza kaskarragoak sortzen dituztela dirudi, lanean gustura ez egotea eta langile aldaketak egotea eragiten dituztenak.

**GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die telefono-laguntza linea nazionalaren irismena handiagotzea Istanbulgo Hitzarmenean barne hartutako indarkeria forma guztiekin lotutako trebatutako langileek eskaintako aholkularitza ziurtatzeko.**

#### **H. SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMEN SOSTENGUA (25. ARTIKULUA)**

Hala ere, GREVIOk Espainian emakumeen aurkako indarkeria-moten inguruan dauden legeria, ikuspegi politikoak eta diskurtsoak berrikustea erakutsi du bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeriari ematen zaion garrantzia. Bortxaketa eta sexu-indarkeria, sexu-jazarpenera, behartutako ezkontza, emakumeen genitalen mutilazioa eta behartutako antzutzeari ez dira hain modu integralean lantzen legedian eta politika publikoetan.

Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioaren eta borrokaren arloko eskumenak gobernu zentralaren eta autokomikaren artean partekatzen direnez, alde nabarmenak daude legeria autonomikoaren irismenari, zerbitzuak emateari eta esleitutako finantzaketari dagokienez. Espainiako autonomia-erkidego batzuek emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiekiko ikuspegi integrala eta espezifikoa bermatu nahi badute ere, beste batzuek ez dute hala egiten, eta, horren ondorioz, oso panorama heterogeneoa dago, Istanbulgo Hitzarmenean aurreikusitakoaren arabera, indarkeria-mota guztiak prebenitu, babestu eta epaitzeari dagokionez.

GREVIOk eskertu egiten du Espainiako agintariek erakutsitako borondate politiko globala, Istanbulgo Hitzarmenaren betetze-maila eta arlo horretan egindako ahaleginak areagotuz, bai eta Espainiak nazioarteko itun horri emandako babesa ere. Txosten honen bidez, GREVIOk Espainiako agintariei lagundu nahi die, eta Istanbulgo Hitzarmenaren inplementazioan ematen den edozein aurrerapen aldian-aldian jakinaraztera gonbidatzen ditu. Espainiako agintariekin duen lankidetzara onuragarriari jarraipena ematea espero du GREVIOk.

GREVIOk agintari nazionalen txosten hau haien hizkuntza ofizial nazionaletara itzultzeko eskatu die eta hura hedatzeaz ardura daitezkeen, ez bakarrik maila guztietako (nazionala, eskualdekoa eta tokikoa) estatuko erakundeek eta bereziki gobernu, ministerio eta botere judizialen artean, baizik eta emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean lan egiten duten GKE eta gizarte zibileko beste erakunde batzuen artean ere.

## **I. ERANSKINA: GREVIOREN PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUNEN ZERRENDA**

### **HELBURUAK, DEFINIZIOAK, BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIO EZA, BETEBEHAR OROKORRAK**

#### **Hitzarmenaren ezarpen-eremua (2. artikulua)**

GREVIOk gogorarazi du Istanbulgo Hitzarmenaren 2.1 artikulua emakumeen aurkako indarkeria-mota desberdinek duten genero-joera azpimarratzen duela, bikotearen edo bikote ohiaren eremuan gertatzen den indarkeriatik haratago doazelako. Hori dela eta, GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die Istanbulgo Hitzarmenaren inplementazioa hobetzea espainiar lege, politika publiko eta programetan gaur egun arreta gutxiago jasotzen duten indarkeria formei dagokienez, indarkeria mota hauen prebentzioan, babesean eta jazarpenean ikuspegi holistikoa hartuz.

Hau bereziki garrantzitsua da sexu-indarkeriari, sexu-jazarpenari, behartutako ezkontzei, emakumeen genitalen mutilazioari eta behartutako abortu/antzutzei dagokienez. Era berean, GREVIOk emakumeen GKE eta beste aditu independente batzuei eskatzeaz gain, Espainiako agintariei ere eskatzen die Estatu Itunaren inplementazioa berrikusteko oraingo estatuko politiken jarraipen eta ebaluazio mekanismoak erabiltzea, ezarritako neurrien inpaktua aztertzea eta jarraitu beharreko hurrengo pausoak planifikatzea, emandako aurrerapausoak neurtzen dituzten aurrez zehatutako adierazleetan oinarrituz. (10 paragrafoa)

### **Definizioak (3. artikulua)**

GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die legedia eta araudi administratiboak, protokoloak barne, maila nazional eta autonomikoan, Istanbulgo Hitzarmeneko 3. artikuluko definizioetara guztiz egokitzea bermatzea inplementazioa bateratzeko. (16 paragrafoa)

### **Oinarrizko eskubideak, berdintasuna eta diskriminazio eza (4. artikulua)**

#### **Diskriminazio interseksionala**

GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die: (24 paragrafoa)

- diskriminazio interseksionala pairatzen duten edo jasan dezaketen emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzio eta borrokarako neurriak indartzea, zeinak ezgaitasuna duten emakumeak, talde minoritarioetako emakumeak, emakume ijitoak, emakume migratzaileak eta asiloa eskatzen dutenak, LGBTI emakumeak, adineko emakumeak, prostituzioan dauden emakumeak eta emakume drogazaleak barne hartzen dituen;
- genero-indarkeriaren aurkako prebentzio eta borrokarako politika publikoen diseinuan, inplementazioan, jarraipenean eta ebaluazioan emakume hauen ikuspegia txertatzea, ordezkatzen dituzten GKE babestuz, finantzatuz eta kooperazioa eskainiz;
- talde hauetako biktimak babes- eta laguntza-zerbitzuekin lotutako eskubideen erabilerei buruz sentsibilizatzea;
- emakume talde hauentzako babes- eta laguntza-zerbitzuen sarbidea garatzea eta hobetzea;
- ikerketa sendotzea eta diskriminazio interseksionala pairatzen duten edo jasan dezaketen emakume eta nesken aurkako indarkeriarekin lotutako datu bilketan adierazle espezifikoak txertatzea.

### **Estatuaren betebeharrak eta bidezko eginbidea (5. artikulua)**

GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die Istanbulgo Hitzarmenean barne hartutako edozein indarkeria formaren biktimei, Istanbulgo Hitzarmenaren 4.3 artikuluan zerrendatutako arrazoiengatik diskriminatu gabe, modu arduratsuan prebenitzeko, ikertzeko, zigortzeko eta kalte-ordaina emateko bidezko eginbidearen betebeharra eraginkortasunez betetzea ziurtatzeko. (29 paragrafoa)

### **INTEGRATUTAKO POLITIKAK ETA DATUEN BILKETA**

#### **Politika zabal eta integratuak (7. artikulua)**

GREVIOk Espainiako agintariei eskatzen die gobernuko maila guztietan, maila autonomikoan batez ere, Istanbulgo Hitzarmenaren printzipioetara legedia eta araudi administratiboak guztiz egokitu daitezen eta estatu mailan politika eraginkor, osatu eta koordinatuak bermatu ditzaten Istanbulgo Hitzarmenean barne hartutako indarkeria forma guztien aurkako prebentzio eta borrokarako. Helburu honekin, GREVIOk Espainiako agintariei zinez erregutzen die: (35 paragrafoa)

- emakumearen aurkako indarkeriari buruz dauden legeria eta politika autonomikoen konparazio-azterketa independenteak egitea, etorkizun handikoak diren eta, horregatik, Espainiako gainerako estatuei gomendatu dakizkiekeen praktikak identifikatzeko, eta, gainera, ekimen horiek nazio-mailara eta autonomia-erkidegora eraman ahal izatea bultzatzea.
- emakumearen aurkako indarkeria bere forma eta adierazpen guztietan lantzen dituzten politika integral eta holistikoak diseinatzea eta inplementatzea, bereziki sexu-indarkeria, sexu-jazarpena, behartutako ezkontzak, antzutea eta behartutako abortua, baita ustez «ohorea»ren izenean emakumearen aurka gauzatutako delituak ere.

### **Finantza-baliabideak (8. artikulua)**

GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die gobernuko maila guztietan, autonomia eta lekuko mailan bereziki: (41 paragrafoa)

- sustapenak ezartzea edo parte-hartzen dutenei Istanbulgo Hitzarmenean barne hartutako emakumearen aurkako indarkeria forma ezberdinetako biktimei zuzendutako zerbitzuen kontratazio prozeduretan esperientzia profesional eta teknikoan behar bezalako enfasia jar dezaten eskatzea.
- Gobernu zentraletik transferitutako finantzaketaren erabilera agintari autonomikoen erantzukizuna handitzeko moduak aztertzea;
- maila autonomikoko lehentasun ekintzak Estatu-itunean ezarritako neurriekin eta Istanbulgo Hitzarmenaren printzipioekin lerrotatuta egotea ziurtatzea, zerbitzuak ematean eta Istanbulgo Hitzarmenaren xedapenen inplementazio orokorrean arrakalak ixteko helburuz.

### **Gobernuz Kanpoko Erakundeak eta gizarte zibila (9. artikulua)**

GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die: (47 paragrafoa)

- finantzaketa-sistemak garatzea eta finantzaketa-mailak bermatzea, emakume espezializatuen GKEek zeregin aktiboa izan dezaten indarkeria mota guztien biktimei laguntzeko zerbitzuak ematen, Espainiako eskualde guztietan;
- lurralde-maila guztietan, bereziki toki- eta autonomia-mailan, emakume independenteen erakundeen esperientziaren aitorpena ezartzea edo indartzea, oinarri komunitarioko GKEak barne, baina baita emakume-talde espezifikoak ordezkatzeko dituzten erakundeena ere, hala nola emakume migratzaileak, desgaitasunen bat duten emakumeak, landa-ingurune emakumeak eta ijitoak, beren iritziak eta esperientziak politika publikoen diseinuan eta prebentzio- eta borroka-neurrien diseinuan txertatze aldera.

### **Koordinazio organoa (10. artikulua)**

Eskualde guztietan Istanbulgo Hitzarmenaren inplementazio uniforme bermatzeko, GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die: (53 paragrafoa)

- o Gobernu egitura nazional eta deszentralizatuen eta Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzak eskumenen arteko koordinazioa indartzea, Istanbulgo Hitzarmena erabat betetzea erraztuko duten esparru legegile eta politiko nazional eta erregionalen diseinua lortzeko;
- o maila autonomikoan emakumearen aurkako indarkeriari dagozkion lege eta politika publikoen jarraipen eta ebaluazio eraginkorrerako neurriak hartzea indarkeriaren prebentzioko arrakalak identifikatu eta heltzeko helburuz, baita biktimei babsezko eta delituak jazartzeko;

- lorpena baloratzen duten aurretik definitutako adierazleetan oinarritzen diren politika publikoen jarraipen eta ebalauzioa ziurtatzea, maila nazional zein autonomikoan.

## **Datuen bilketa eta ikerketa (11. artikulua)**

### **Datu administratiboen bilketa**

Istanbulgo Hitzarmenak estalitako indarkeria-mota guztiei buruzko datuak biltzeko beharra kontuan hartuta, GREVIOk Espainiako agintariei eskatzen die berma dezatela datuak bildu eta argitaratzeko Gobernuaren Genero Indarkeriaren Ordezkaritzak egindako ahaleginak Istanbulgo Hitzarmenean jasotako emakumeen aurkako indarkeria-mota guztietara hedatzen direla, bereziki sexu-indarkeriara, mutilazio genitalera eta emakumeen mutilaziora. (57 paragrafoa)

### **Segurtasun indar eta kidegoak eta justizia penalaren sektorea**

GREVIOk Espainiako agintariei dei egiten die ahalik eta azkarren ezar ditzaten Diputatuen Kongresuak onartutako Genero Indarkeriari buruzko Estatuko Itunaren 167. eta 180. neurriak, Istanbulgo Hitzarmenean jasotako indarkeria-mota guztiei buruzko datu xehatuen bilketa osoa bermatzeko. Gainera, GREVIOk biziki animatzen ditu Espainiako agintariak emakumearen aurkako indarkeria-mota guztiei buruzko datuak biltzea erraztuko duten neurriak hartzera, prozesu judizialaren fase guztietan (salaketa, ikerketa, prozedura penala eta horren emaitza), sexuaren, adinaren, indarkeria motaren eta erasotzaileak biktimarekin duen harremanaren arabera banakatuta. Era berean, GREVIOk biziki animatu ditu Espainiako agintariak BJKNk dibortzioari eta seme-alaben zaintzari buruzko ebazpenei buruz bildutako datuak zabaltzera, Espainiako epaitegiek testuinguru horretan etxeko indarkeriaren eraginpean dauden emakumeen eta adingabeen segurtasuna bermatzeko erabiltzen dituzten mekanismoak baloratu ahal izateko. (63 paragrafoa)

### **Osasun sektorea**

GREVIOk Espainiako agintariei dei egiten die Istanbulgo Hitzarmenean jasotako emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiei buruz osasun-sektoreak herrialde osoan biltzen dituen datuen bilketa sistematikoa hobetzeko neurriak har ditzaten, ondoren alderatu ahal izateko. (66 paragrafoa)

### **Biztanleriaren inkestak**

GREVIOk gonbita egiten die Espainiako agintariei Istanbulgo Hitzarmenean jasotako emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak estaltzen dituzten inkestak egin ditzaten, bereziki emakumeen genitalen mutilazioa eta behartutako ezkontza lantzen dituztenak barne. Era berean, GREVIOk edozein inkestaren emaitzak, bereziki indarkeriarekiko esposizioari dagokionez emakume taldeen artean desberdintasunak adierazten dituztenak, ebidentzian oinarritutako politikak formulatzen laguntzeko erabiltzen direla bermatzera animatu ditu Espainiako agintariak. (70 paragrafoa)

### **Ikerketa**

GREVIOk Espainiako agintariei dei egiten die gaur egun arreta gutxien jasotzen duten emakumeen aurkako indarkeria-adierazpenei buruzko ikerketa bultzatzeko ahaleginak areagotu ditzaten. Horretarako, lehentasuna ematen zaie sexu-indarkeria, behartutako ezkontza, emakumeen genitalen mutilazioa eta behartutako antzutzeta jorratzen dituzten ikerketei, bai eta etxeko indarkeria ikusi duten seme-alabengan duten eraginari ere. (74 paragrafoa)

### **Prebentzioa**

## **Betebehar orokorrak (12. artikulua)**

GREVIOk dei egiten die Espainiako agintariei ahaleginak egin eta egin ditzaten, beharrezkoa denean,

gizartea oro har inplikatzeko, bereziki gizonak eta haurrak, prebentzio-programen, kanpainen eta oinarri komunitarioko beste neurri batzuen bidez, emakumeen aurkako indarkeria-mota desberdinak prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko modu gisa. Horretarako, autonomia pertsonalarekiko eta sexu-onespenarekiko errespetuari, sexu-jazarpenari eta baliabide teknologiko eta digitalen bidez emakumeen aurka gauzatutako indarkeriari buruzko kontzientziazioa behar da. (80 paragrafoa)

### **Sentsibilizazioa (13. artikulua)**

GREVIOk biziki animatzen ditu Espainiako agintariak emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan sentsibilizatzeko ahaleginetan jarrai dezaten, eta horren inplementazioak Istanbulgo Hitzarmenean jasotako indarkeria-mota guztiak barne har ditzan, bereziki sexu-indarkeria eta indarkeria digitala. Horretarako, laguntza eman behar zaie emakumeentzako laguntza-zerbitzu espezializatuak eskaintzen dituzten elkarteei, Erkidegoko oinarriko erakundeei eta komunikabideei. (85 paragrafoa)

### **Hezkuntza (14. artikulua)**

Hezkuntza-sistemaren helburuetako bat genero-berdintasuna bihurtzen duen Espainiako lege-esparrua erreferentziatzen hartuta, GREVIOk gonbita egiten die Espainiako agintariei, ahaleginak egin ditzaten ikasleei Istanbulgo Hitzarmenaren 14. artikuluan identifikatutako gaiei lotutako ezagutzak eta trebetasunak emateko. (92 paragrafoa)

### **Profesionalen prestakuntza (15. artikulua)**

Botere judizialak, legeak hala aginduta, prestakuntza behar duenez, GREVIOk biziki animatzen ditu Espainiako agintariak botere judizialaren eskura dauden prestakuntza-aukerak balora ditzaten, haien eraginkortasuna hobetzeko. GREVIOk agintariei eskatzen die berma dezatela eskura dagoen prestakuntzak Istanbulgo Hitzarmenean jasotako emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak jorratzen dituela, bereziki sexu-indarkeriari dagokionez, bai eta bikotearen eremuan indarkeria biltzen duten dinamika psikologikoak, banantzearen ondoriozkoak, indarkeriaren ondorioak haur biktimengan eta lekukoengan, eta bigarren mailako biktimizazioaren prebentzioa ere. (98 paragrafoa)

GREVIOk Espainiako agintariei eskatzen die segurtasun indar eta kidego, erizain eta osasuneko beste lanbideen bezalako profesional taldeen prestakuntza ahaleginak areagotzea, baita herrialde guztiko irakasleena ere, emakumeen aurkako indarkeria mota ezberdinei, indarkeria hau hautemateari, bigarren mailako indarkeriari eta emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko - dimentsio telematikoa barne - derrigorrezko moduluak txertatuz oinarriko ikaskuntzan eta etenbako prestakuntzan. (104 paragrafoa)

### **Esku-hartze eta tratamendu prebentzio-programak (16. artikulua)**

#### **Erasotzaileentzako programak etxeko indarkeriaren alorrean**

Espanian etxeko indarkeriaren arloan erasotzaileentzat dauden programen balorazio positiboa oinarri hartuta, GREVIOk gogor animatu ditu Espainiako agintariak Istanbulgo Hitzarmenaren 16.3 artikulua hobeto betetzeko lan egin dezaten. Alde batetik, etxeko indarkeriaren eremuan erasotzaileei zuzendutako zaintzapean dauden eta askatasunaz gabetzen ez diren programa guztiak gehiago inplementatuko direla ziurtatzea, emakumeentzako laguntza-zerbitzu espezializatuarekin lankidetzan estuan, eta, bestetik, dagoeneko ezarritako programa guztiak baloratzea, haien eragina balioestea ahalbidetzen duten arau metodologiko estandarizatuarekin bat etorriz. (112 paragrafoa)

#### **Sexu erasotzaileentzako programak**

GREVIOk dei egiten die Espainiako agintariei sexu-erasoa kontrolatzeko programako modulu guztietan genero-ikuspegia txertatzera bideratutako ahaleginekin jarrai dezaten, programa guztien inplementazioan ikuspegi komuna berma dezaten, Istanbulgo Hitzarmenaren printzipioekin eta aintzatespena duten jardunbide egokiekin bat etorriz. (115 paragrafoa)



## **Sektore pribatuaren eta komunikabideen parte-hartzea (17. artikulua)**

Nahiz eta onartzen duen salaketa-mekanismoak gehienak ezarri direla juridikoki, GREVIOk dei egiten die Espainiako agintariei datuak bil ditzaten sexu-jazarpenaren biktimek diren emakumeek lanean duten kopuruari buruz, biktimek aurkeztutako salaketei buruz eta salaketa horien emaitzei buruz. (124 paragrafoa)

GREVIOk Espainiako agintariei dei egiten die ahaleginak handitu ditzaten, komunikabide eta irratidifusio batzuek genero-indarkeriaren estalduran hartzen duten ikuspegi sentsazionalista geldiarazteko, emakumea modu pluralean eta ez-estereotipatuan aurkeztearen premisapean. Ahalegin horiek kazetariei prestakuntza ematera bideratu beharko lirakeke, emakumearen aurkako indarkeria eta genero-indarkeria moten inguruan eta horiek salatzeko moduaren inguruan. (130 paragrafoa)

## **Babesa eta sostengua**

### **Betebehar orokorrak (18. artikulua)**

GREVIOk Espainiako agintariei eskatzen die agentzia ofizialen eta sexu-indarkeria, sexu-jazarpen, zelata (stalking), behartutako ezkontza, emakumeen genitalen mutilazioa eta behartutako abortu/antzutze arloetan garrantzitsuak diren agentzien arteko lankidetzak egitura multilateralak ezar ditzatela, Istanbulgo Hitzarmenaren 18.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Generoa eta antzeko beste printzipio batzuk babesteko eta babesteko zerbitzuak emateko funtsezko zutabe bihurtu behar dituen ikuspegian oinarritu behar du, baita ahalduntzean eta bigarren mailako biktimizazioaren aurkako ekintzetan ere (18.3 artikulua). Horretarako, GREVIOk biziki animatzen ditu agintariak arlo horretan gidalerro/estandar nazionalak gara ditzaten, zerbitzuak ematen esperientzia duten emakumeen GKEekin lankidetzan. (137 paragrafoa)

### **Informazioa (19. artikulua)**

GREVIOk Espainiako agintariak adoretzen ditu ahaleginak handitu ditzaten, emakumearen aurkako indarkeria mota guztien biktimei informazioa emanez, haiek uler dezaketen hizkuntza eta formatu batean. (140 paragrafoa)

### **Babeserako zerbitzu orokorrak (20. artikulua)**

#### **Gizarte zerbitzuak**

GREVIOk biziki animatzen ditu Espainiako agintariak neurri eraginkorrak har ditzaten herrialde osoan emakumeek laguntza orokorreko zerbitzuak modu uniformeetan jaso ditzaten bermatzeko, horrela eskualdeetan emandako zerbitzuen mailan eta kalitatean dauden desberdintasunak murriztuz. (146 paragrafoa).

#### **Arreta medikuko zerbitzuak**

GREVIOk eskatzen die Espainiako agintariei ikuspegi koordinatua eta zabala har dezatela bortxaketaren eta sexu-erasoaren biktimei mediku- eta auzitegi-zerbitzuak ematean, segurtasun-indar eta -kidegoak beste agentzia ofizial garrantzitsu batzuekin eta profesional medikoekin lotzeko, biktime horien premiak modu errukigarrian eta esperientzia traumatikoekiko sentikorrean asebetetzeko gai diren heinean. Gainera, GREVIOk biziki animatzen ditu Espainiako agintariak neurriak hartzera, baita prestakuntza espezializatuaren bidez ere, profesional medikoen rol proaktiboa bermatzeko bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeria hautematean, eta profesional horiek egindako lesioei buruzko txostenen kalitatea hobetzeko, prozedura judizialean haien erabilgarritasuna areagotzeko. (152 paragrafoa)

### **Sostengua bakarkako/taldekako salaketetan (21. artikulua)**

GREVIOk dei egiten die Espainiako agintariei ahalegin handiagoa egin dezaten, biktimek informazioa izan dezaten eta eskualdeetako eta nazioarteko salaketa-mekanismo aplikagarriak eskura izan ditzaten. (154 paragrafoa)

### **Sostengu zerbitzu espezializatuak (22. artikulua)**

Istanbulgo Hitzarmenean jasotako edozein indarkeria-esperientzian emakumeei laguntza eta aholkularitza espezializatuak emateak duen garrantzirik abiatuta, GREVIOk Espainiako agintariei eskatzen die emakumeentzako laguntza-zerbitzu espezializatuak eman edo koordina ditzatela, genero-ikuspegitik, autonomia-erkidego guztietan eta Istanbulgo Hitzarmenean jasotako indarkeria-mota guztietan. Epe ertain eta luzerako berehalako laguntza bermatzea da helburua, gizarte zibilean emakumeentzako laguntza-zerbitzu espezializatuak aspaldidanik metatutako esperientzia aprobetxatuz eta parte hartuz. (158 paragrafoa)

Gainera, GREVIOk biziki animatzen ditu Espainiako agintariak neurriak har ditzaten, autonomia-erkidego guztietan, bortxaketa eta sexu-indarkeria, zelata, sexu-jazarpen, behartutako ezkontza, emakumeen genitalen mutilazio eta behartutako abortu/antzutze kasuetan dauden laguntza-zerbitzu espezializatuak mapatze osoa sustatuz, premien arabera, zerbitzuak ematean dauden hutsuneak konpontzeko. (159 paragrafoa)

### **Babeslekuak (23. artikulua)**

GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die hauek konpontzeko neurriak hartzeko: (164 paragrafoa)

- ostatu-horniduraren maila bat sustatzea autonomia-erkidego guztietan, Istanbulgo Hitzarmenaren Azalpen Txostenean 10.000 biztanleko familia-leku bati buruz ezarritako arauarekin bat datorrena;
- babeslekuak hobetzea desgaitasunen bat duten emakumeentzat, landa-eremuetan bizi direnentzat, 65 urtetik gorakoentzat, neskentzat, drogazaleentzat, migratzaileentzat eta prostituzioan aritzen diren emakumeentzat.

### **Zaintza telefonikoak (24. artikulua)**

GREVIOk biziki animatzen ditu Espainiako agintariak, Istanbulgo Hitzarmenean jasotako indarkeria-mota guztiei dagokienez aholkularitza eta deribazio egokiak bermatzen dituen telefono bidezko laguntza-linea nazionalaren irismena langile gaituek azkarrago zabaltzera. (169 paragrafoa)

### **Sexu-indarkeria jasan duten biktimei sostengua ematea (25. artikulua)**

GREVIOk Espainiako agintariei eskatzen die neurriak har ditzatela bortxaketa edo sexu-indarkeriako egoeretan dauden biktimek bideratzeko behar adina zentro ezartzeko, baldin eta zentro horiek delitu horien biktimeentzat irisgarriak badira, eta haien beharrian guztiak epe labur, ertain eta luzera asetzen badituzte. Horren barruan sartzen dira berehalako arreta medikoa, kalitate handiko auzitegi-azterketak, laguntza psikologikoa eta juridikoa, eta erakunde espezializatuetarara bideratzea, bai eta indarkeria sustatzeko modu horri erantzuteko protokolo bat garatzea ere. Biktima baten sostengu-zerbitzuetarako sarbidea ez da salaketa bat aurkeztearen asmoaren araberakoa izan beharko. (174 paragrafoa)

### **Arriskuan dauden adingabeen babesa eta laguntza (26. artikulua)**

GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die ondo ziurtatzeko laguntza psikologikoa egokia dela Istanbulgo Hitzarmenean jasotako edozein indarkeria-motaren lekuko diren haurren adinaren arabera,

herrialde osoan eta haien jarraipena eta kalitatea bermatzeko baldintzetan. (179 paragrafoa)

### **Profesionalen salaketak (28. artikulua)**

Profesionalek indarkeria-kasuak salatzeko duten betebeharra dela eta, GREVIOk Espainiako agintariei dei egiten die betebeharrak hori haztatzeko, biktimak bere autonomia zainduz erabaki kontzientek hartzeko izan behar duen testuinguru horretan informazio osoa eta sentikorra emanez, eta, aldi berean, guztien segurtasuna bermatzeko, batez ere adingabeena. (184 paragrafoa)

### **Eskubide substantiboa**

#### **Zuzenbide zibila**

### **Errekurtso zibilak Estatuaren aurka: bidezko eginbidea (29. artikulua)**

GREVIOk biziki bultzatzen ditu Espainiako agintariak neurri zibil eta diziplinazkoen araubidea berrikusteko dauden ahaleginak jarraipena izan dezaten, neurri horiek zabalduz; izan ere, neurri horiekin Estatu funtzionarioei egotzen zaie Istanbulgo Hitzarmenak biktimen babesari buruz babesten dituen indarkeria-egintzak prebenitzeko, ikertzeko eta arduraz zigortzeko betebeharra ez betetzearen erantzukizuna. Gainera, horiek erabiltzeko edozein oztopo ikertzera eta aztertzerara bultzatzen ditu, baita neurri praktikoak hartzerara ere, hala nola, botere judizialaren eta beste profesional batzuen prestakuntza eta sentsibilizazioa, indarkeriaren biktima diren emakumeek dauden lege-baliabideak baliatu ahal izan ditzaten, are gehiago justizia-administrazioan okerrak izan diren erabakien testuinguruan. Arlo horretan egindako aurrerapenak neurtzeko, biktimen salaketen kopuruari buruzko datuak bildu behar dira, baita horien emaitzak ere. (189 paragrafoa)

### **Kalte-ordaina (30. artikulua)**

GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die hauek konpontzeko neurriak hartzeko: (194 paragrafoa)

- Istanbulgo Hitzarmenean jasotako edozein indarkeria-motaren egileek kalte-ordainetarako aginduak atzerapenik gabe betetzen dituztela bermatzea;
- biktimei Estatuaren kalte-ordaina jasotzeko aukera erraztea arrazoizko epe baten barruan, 30.3 artikulua eskatzen duenaren arabera, eta Istanbulgo Hitzarmenaren 30.3 artikulua ezartzen duenaren arabera.

### **Zainketa, bisita-eskubidea eta segurtasuna (31. artikulua)**

GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die beharrezko neurriak har ditzatela, beharrezkoa bada lege- eta prestakuntza-aldaketen bidez, honako hauetarako: (206 paragrafoa)

- bikotearen eremuan erabilitako indarkeria-errudunen zaintzarekin eta bisita-eskubideekin zerikusia duten erabakietan diskrezionalitate judizialaren marjina (penala zein zibila) mugatzea, epailetaren zain daudenei dagokienez eta haurraren edo amaren abusua egiaztatzeko froga nahikoak bildu diren kasuetan;
- epaileei zuzendutako gidalerroak eguneratzea, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriari buruzko 1/2004 Lege Organikoa ezartzei buruz, adingabeen aurkako indarkeria-ekintzak ikustek duen eraginari buruzko identifikazioan eta dokumentazioan epaileen proaktibotasuna hobetzeko helburuarekin, barnean hartuta informazioa modu proaktiboan bilatzea emakumei laguntzeko zerbitzuetan, familia-elkarguneetan, segurtasun-indar eta -kidegoetan, eta, hala badagokio, adingabeen babes sartzeko aginduetan;
- auzitegien eta indarkeriaren biktima diren emakumei eta haien seme-alabei laguntzen dieten zerbitzuen arteko koordinazioa eta lankidetzaren hobetzea (emakumeentzako zerbitzu espezializatuak, osasun- eta gizarte-zerbitzuak, familia-elkarguneak, etab.);

- inplikaturako profesional guztiek, bereziki epaileek eta familiarentzat eta familia-elkarguneetan zerbitzuak ematen dituzten langileek, ama baten aurkako indarkeria-ekintzak ikusteak adingabearen interes gorena arriskuan jartzen duela ohartarazten dien prestakuntza egokia dutela zaintzea;
- familia-topaguneen finantzaketa eta langile-horniduraren mailak hobetzea, guraso bakarreko familiei abusuaren ondorioen aurrean laguntzea helburu duten kalitatezko esku-hartzeak egin ahal izan ditzaten; horrek berekin ekarri behar du abusu-frogen dokumentazioak edo guraso erasotzaileari egindako bisiten (gainbegiratuen) ondorio kaltegarriek;
- familia-elkargune guztiek printzipio eta balioetan oinarrituta funtzionatuko dutela bermatzea, baldin eta printzipio eta balio horiek bat badatoz emakumearen aurkako indarkerian dagoen genero-joerarekin eta Istanbulgo Hitzarmenaren printzipioekin, bereziki, emakumeen ahalduntzeari dagokionez, eta agintaritza autonomikoek haien lana gainbegiratuko dutela ziurtatzea, ahal dela erakunde independenteen laguntzarekin;
- familia-elkarguneek auzitegiei abusu-arriskuan dauden adingabeei buruzko informazioa emateko betebeharra betetzen dutela ziurtatzea, erantzukizun hori errespetatuz, auzitegiek bisita-erregimenei buruzko ebazpenak berrikusi edo berriz aztertu ahal izan ditzaten, beharrezkoa izanez gero.

## **Zuzenbide penala**

### **Etzeko indarkeria, indarkeria psikologikoa barne (33. eta 35. artikulua)**

GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die: (213 paragrafoa)

- beharrezkoa den prestakuntzaren bidez, epaileek, segurtasun-indarrek eta lege-sektoreko profesionalak genero-izaerari eta indarkeria psikologikoaren ondorioei buruz duten kontzientziarazioa areagotzea, Espainian nagusi diren emakumeen aurkako indarkeria-motetako bat den aldetik, eta, era berean, indarkeria psikologikoarekin lotuta dauden delitu penalak praktika judizialean nola aplikatzen diren berrikustea, baita digitalak/telematikoak direnak ere, delitu mota hori modu eraginkorrean zigortzeko dauden adierazpen guztiak ikertzeko. Azken hori indarkeria fisikoaren xedapenetan ere aplikatzen da;
- neurriak hartzea emakumeen aurkako indarkeria psikologikoko kasu judizialen kopuruari buruzko datuen bilketa hobetzeko, digitalak/telematikoak direnak ere;
- ebidentzian oinarritutako politika publikoen formulazioan indar handiagoa jartzea, biktima hiltzea eragin duten bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeria-kasuen analisisa erabiliz, etorkizunean horrelako kasuak prebenitzeko helburuarekin.

### **Zelatatzea (34. artikulua)**

GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die jokabide bat jazarpentzat jotzeko behar den larritasun-maila berrikustea, Espainiako Zigor Kodearen 172. artikulua arabera. Jazarpen-delituaren inplementazio eraginkorra bermatze aldera, GREVIOk Espainiako agintariei dei egiten die prebentzio-neurri operatiboak sar ditzaten, berrerortzea saihesteko, bereziki banantze baten osteko jazarpenari dagokionez, hala nola babes-agindu bat eskatzeko aukera eta eskumuturreko elektronikoen sistema bat erabiltzea. GREVIOk, gainera, dei egiten die Espainiako agintariei neurriak har ditzaten zelatatze-kasuen kopuruari buruzko datuen bilketa hobetzeko, alderdi telematikoari dagokionez, profesional guztiek delitu horren tratamenduan dituzten gaitasunak garatzeko. (218 paragrafoa)

### **Sexu-indarkeria, bortxaketa barne (36. artikulua)**

GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die Zigor Kodearen aldaketekin jarrai dezaten, urraketa-delituak baimenik eza tipifika dezan, segurtasun-indarrek, fiskaltzak eta botere judizialak praktikan modu eraginkorrean artikulatu ahal izan dezaten. Biktimaren baimenik gabe sexu-izaerako ekintza guztietarako zigor egokiak aplikatuko direla bermatzea da helburua, baita biktimaren erresistentziarik ez dagoenean eta kasuaren inguruabarrek adostasun onargarria eragozten dutenean ere.

Horretarako, GREVIOk zinez eskatzen die Espainiako agintariei zigor-arloko justizia-sistemako kide guztientzako prestakuntza eta orientabideak sar ditzaten, bortxaketaren eta sexu-indarkeriaren esanahia ulertzea berma dezaten, baimenik ez izatean oinarritutako delituak diren heinean, ez indarra erabiltzean oinarritutakoak. (224 paragrafoa)

#### **Behartutako ezkontza (37. artikulua)**

GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die legegintza-aldaketak eta bestelakoak egiteko, babes-neurriak indarkeria mota horren biktimei eta arrisku-egoeran dauden emakume/neskei aplikatzeko, eta inplikaturako epailetzako profesionalak gai direla egiaztatzeko, kasuz kasu, behartutako ezkontzak eta gizakien salerosketa bereizteko, delitu berri horren inplementazioa sendotuz. (230 paragrafoa)

#### **Emakumeen genitalen mutilazioa (38. artikulua)**

GREVIOk dei egiten die Espainiako agintariei delitu gisa tipifika dezaten emakume bati genitalen mutilazioa egitera behartzeko nahitako jokabidea, bai eta Istanbulgo Hitzarmenaren 38 *b* eta *c* artikuluetan aurreikusitakoaren arabera neskak menderatzeko neurriak hartzeko, behartzeko edo emateko asmoa duten jokabideak ere. (234 paragrafoa)

#### **Behartutako abortu eta antzutea (39. artikulua)**

GREVIOk Espainiako agintariei eskatzen die legez desgaitasuna duten emakumeak antzutea baimentzen duen edozein prozeduratan hain inbaditzaileak ez diren aukera antikonzeptiboak aintzat hartzea berma dezatela, emakume horien interesa eta autonomia behar bezala kontuan hartuta. GREVIOk Espainiako agintariak animatzen ditu beren ahaleginekin jarrai dezaten desgaitasunen bat duten eta modu adostuan antzuteko hautua egiten duten emakumeei dagokienez, erabakiak beren desgaitasunari egokitutako informazioan oinarrituta hartu ahal izan ditzaten eta generoan eta desgaitasun-arazoetan trebatutako profesionalak aurkez ditzaten. (238 paragrafoa)

#### **Sexu-jazarpena (40. artikulua)**

GREVIOk biziki animatzen ditu Espainiako agintariak Espainiako Zigor Kodean jasotako sexu-jazarpenaren definizioa Istanbulgo Hitzarmenaren 40. artikuluan ezarritakoarekin bat etor daitezen, haren irismena zabalduz, bizitzaren eremu guztietan, publiko zein pribatuetan, aplikatu ahal izango dela bermatzeko, larderia, etsaitasuna edo umiliazio objektibo eta larriko edozein betekizun ezabatuz. (241 paragrafoa)

#### **Ikerketa, jazarpena, zuzenbide prozesala eta babes-neurriak**

#### **Berehalako erantzuna, prebentzioa eta babesa (50. artikulua)**

#### **Segurtasun indar eta Kidegoen txosten eta ikerketak**

GREVIOk biziki animatzen ditu Espainiako agintariak dagokien polizia-agintari guztiei Istanbulgo Hitzarmenean jasotako indarkeria-mota guztiei azkar eta eraginkortasunez erantzuteko baliabideak, ezagutzak eta gaitasuna ematera, bereziki sexu-indarkeriari, behartutako ezkontzari eta jazarpenari dagokienez, bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeriaren dimentsio digitala eta banantzearen ondorengo abusua alde batera utzi gabe.

GREVIOk biziki animatzen ditu agintariak polizia-ikerketara eraginkorrak eta proaktiboak sustatzera, besteak beste, biktimaren deklarazioaz bestelako frogak biltzea, lesioak dokumentatzea, lekukoei elkarrizketak egitea, argazkiak edo DNA laginak jasotzea. (250 paragrafoa)

### **Zigor-tasak**

GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die auzitegi-balorazioko unitateen lanean genero-ikuspegia hobetu eta indartzeko, auzitegietan salaketak egiten dituzten kasu guztiei dagokienez, bereziki bortxaketa eta sexu-eraso delituekin eta bikotearen edo bikote ohiaren indarkeriarekin zerikusia dutenei dagokienez. (255 paragrafoa)

Gainera, GREVIOk Espainiako agintariei eskatzen die mekanismoak eta prozedurak azter ditzatela, legezko zuzenketak egin ahal izateko, bikotearen edo bikote ohiaren indarkeria eta sexu-indarkeria kasuetan biktimaren deklarazioaren zentraltasuna ezabatzeko. (256 paragrafoa)

45. GREVIOk Espainiako agintariei eskatzen die ahalik eta lasterren identifika eta azter ditzatela bortxaketari buruzko epaiketetan gehiegizko froga-nahikotasunaren atalase bat egon dadin laguntzen duten faktore legegile eta prozesal guztiak, erreferentziatut hartuta prozedura judizialek eta ikerketa-prozedurek dakarten esperientzia traumatikoa biktimei aurrezteko printzipioa. (257 paragrafoa)

### **Arriskuen balorazio eta kudeaketa (51. artikulua)**

Bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeria-kasuetan arrisku-balioespenen zehaztasuna areagotzeko, GREVIOk Espainiako agintariei eskatzen die segurtasun-indar eta -gorputzen esperientzia aprobetxatzeko, arriskuen balorazioa agentzia desberdinen arteko lankidetzatik abiatutako informazio-truke baten arabera egiteko. Truke horretan, emakumeentzako zerbitzu espezializatuek parte hartu beharko lukete, eta hori guztia giza eskubideen banakako segurtasunaren premisaren eta bermearren premisaren pean. (263 paragrafoa)

### **Premiazko debeku eta babes aginduak (52. eta 53. artikulua)**

GREVIOk biziki animatzen ditu Espainiako agintariak, azkenean ukatzen diren babes-aginduen eskaera kopuru handia eta erasotzaileek babes-aginduen urratze kopuru handia azal dezaketen arrazoiak azter ditzaten, eta agindu horien xede diren indarkeria-ekintza guztiekin lotutako erronka horiei aurre egiteko legegintza- eta politika-neurriak aplikatu ditzaten. Kontuan hartu beharreko neurriek barne har dezakete, adibidez, babes-aginduak urratzen direnean behar den arretarekin erantzutea, bereziki arrisku handiko egoeretan behin-behineko espetxealdi-zehapena eraginkortasunez aplikatuz. Arlo honetan egindako aurrerapenak gainbegiratu eta aztertu egin behar dira, aurrez definitutako adierazle-multzo batean oinarrituta. (271 paragrafoa)

### **Laguntza juridikoa (57. artikulua)**

GREVIOk biziki bultzatzen ditu Espainiako agintariak bermatzeko Istanbulgo Hitzarmenak estalitako indarkeria-mota guztien biktimek abokatu-laguntza jasotzeko aukera izango dutela, prozeduraren etapa goiztiar batean (poliziari lehen deklarazioa emateko edo salaketa jartzeko unean). (277 paragrafoa)

### **Migrazioa eta asiloa**

#### **Egoitza estatutua (59. artikulua)**

GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die: (283 paragrafoa)

- Espainian bizi diren emakume migratzaileen kategoria guztietarako (EBko herritarrak, Europako Esparru Ekonomikoko herritarrak, hirugarren herrialdeetako herritarrak eta egoera irregularrean dauden emakume migratzaileak) aldi baterako bizileku-baimenak emateko froga-nahikotasunaren atalaseak berrikustea, handiegiak direnak ezabatzeko, adibidez,

abusatzailearen kondena penalaren betekizuna;

- Bermatzea behartutako ezkontzen biktima guztiek eskubidea dutela atzerrian ezkontzera behartuak izateagatik galdutako bizileku-baimenak berreskuratzeko.

## **Generoan oinarritutako asilo-eskaerak (60. artikulua)**

### **Generoarekiko sentikorrek diren asilo-prozedurak**

GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die neurriak har ditzatela, lege-zuzenketen bidez, asiloa eskatzen duten emakumeek asilo-prozedurarako berehalako sarbidea izan dezaten, itsasoz edo lehorrez iristen diren kontuan hartu gabe (muga-pasabideak), eta, aldi berean, asilo-prozedura arrunta eta azeleratua generoarekiko sentikorra izan dadin zainduz, bereziki honako hauei dagokienez: (295 paragrafoa)

- Asilo-prozeduran parte hartzen duten guztien (polizia eta asilo- eta babes-bulegoa) giza baliabideak eta finantzaketa handitzea, lokal egokiak, sexu bereko langile gaituak eta interprete kualifikatuak bermatzeko, hizkuntza garrantzitsu guztiei dagokienez;
- emakumeen eta nesken kalteberatasun-egoeraren azterketa sistematiko bat sartuz, nazioarteko babesaren balizko premiak identifikatzeko, zerbitzu espezializatuetara bideratu aurretik, zerbitzu horietan emakumeek genero-arrazoiengatik jazarpen-esperientzien berri eman ahal izateko, bai eta emakumeek beren jatorrizko herrialdeetako agintariei beren indarkeria-esperientziak salatzea saihestu ahal izateko beren bizi-testuinguruaren arrazoi espezifikoak ezagutzeko ere.

Gainera, genero-arrazoiengatik jazarpenean oinarritutako asilo-eskaeren urteko kopuruari eta emandako eta ukatutako eskaeren kopuruari buruzko datuak biltzera bultzatzen ditu GREVIOk agintariak.

### **Ostatua**

GREVIOk Espainiako agintariei zinez eskatzen die ostatu segurua eta egokia berma diezaietela asiloa eskatzeko asmoa duten emakume eta neska guztiei, genero-indarkeriaren biktimei laguntzen esperientzia duten GKE espezializatuetan sartzeaz gain, zerbitzu horiek ostatuaren arloan garatutako jardueren artean sartuz edo bestela sarbidea ziurtatuz, biktimizazio eta traumatizazio handiagoa izateko arriskua murriztearren. (299 paragrafoa)

### **Itzulketa eza (61. artikulua)**

Espanian asiloa eskatu duten emakumeen itzulketa ezaren arriskua murrizteko, GREVIOk Espainiako agintariei eskatzen die berma dezatela asiloa eskatzen duten emakumeen kalteberatasun-egoeraren balorazioak nazioarteko babesa behar duten emakumeen aurkako indarkeriaren biktima gisa identifikatzeko moduan egiten direla. (302 paragrafoa)

## **II. ERANSKINA: GREVIOK KONTSULTATUTAKO AGINTARI NAZIONALEN, ERAKUNDE PUBLIKOEN, GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEEN ETA GIZARTE ZIBILEKO ERAKUNDEEN ZERRENDA**

### **Agintari nazionalak**

1. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia
2. Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza
3. Asiloko eta Babeseko Ministerio arteko Batzordea (ABMB)
4. Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa ( Estatistikako Institutu Nazionala)
5. Laneko, Migrazioetako eta Gizarte Segurantzako Ministerioa
6. Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioa
7. Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa
8. Barne Ministerioa
9. Justizia Ministerioa
10. Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateen Ministerioa
11. Ekonomia eta Enpresa Ministerioa
12. Presidentetzako, Gorteekiko Harremanetako eta Berdintasuneko Ministerioa
13. Asilo eta Babesleku Bulegoa (OAR)
14. Presidenteordetzaren Saila
15. Fiskaltza
16. Berdintasun-estatuaren Idazkaritza

### **Eskualdeko agintariak**

1. Ertzaintza (Euskal Poliziaren Bulego Nagusia)
2. Andaluziako eta Gaztela-Mantxako Polizia Nazionalaren Familia eta Emakumeen Arretarako Unitateak (UFAM)
3. Andaluziako Junta
4. Gaztela-Mantxako Junta
5. Madrilgo erkidegoa
6. Euskal Autonomia Erkidegoko Eskualdeko Gobernua
7. Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioa (FEMP)
8. Andaluzian eta Gaztela-Mantxan Guardia Zibilaren Mujer-Menor taldeak (EMUME)

### **Entitate publikoak**

1. Errefuxiatuentzako Harrera Zentroa, Gaztela-Mantxa
2. Errefuxiatuentzako Harrera Zentroa (Sevillako CAR Zentroa), Andaluzia
3. Emakunde (Emakumearen Euskal Erakundea)
4. Genero Indarkeriaren Erakundearteko Koordinazio Batzordea
5. Herriaren Defendatzailea
6. Emakumearen Institutua

### **Gobernuz Kanpoko Erakundeak**

1. ACCEM (ACCEM Andaluzia barne)
2. AIETI (Asociación de Investigación y Especialización en temas Iberoamericanos)
3. Amnistia Internacionala
4. Asociación AMUVI
5. Andalucía Acoge
6. Fundación para la convivencia Espacia
7. Acción Social por la Igualdad
8. Mujeres Supervivientes de Violencias de Género
9. Plataforma de sombra CEDAW
10. Fundación CERMI Mujeres



11. El Parto es Nuestro
12. CIMASCAM (Servicio de Apoyo a la Violencia Sexual de la Fundación Aspacia)
13. Emakumeen Aurkako Tratu Txarrak Ikertzeko Batzordea
14. Emakume Progresisten Federazioa
15. Feminicide.net
16. Aholku Sarea abokatuen sarea, Euskadi
17. Rescate Internacional
18. Estambul Sombra Plataforma
19. Munduko Medikak
20. Avanza sin miedo Elkartea
21. Indarkeria Matxisten aurkako 7N plataforma
22. Salva una niña, salva una generación
23. Espainiako Errefuxiatuen Batzordea (CEAR, CEAR Andaluzia barne)
24. Comisión General Justicia y Paz
25. Lobby Europeo de Mujeres en España (LEM España)
26. Espainiako Gurutze Gorria
27. Women's Link Worldwide

### **Akademikoak**

1. Belén Sanz Barbero
2. Helena Soletto
3. Laura Nuño
4. Lucía Martínez Garay
5. Teresa San Segundo